

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



1990, 2
.35. liburukia (2. aldia)
BILBO

EUSKALTZAINDIA

Elkano, 5 - 1. - 48011 Bilbo

Argitarapenen Batzordea / Comisión de Publicaciones:

Burua:	Jean Haritschelhar
Kideak:	Juan Mari Lekuona J. M. Satrustegi J. A. Arana Martija Pello Salaburu F. Luis Villasante Endrike Knörr Patxi Altuna Pierre Charritton

Eragile eta Idazkaria: Ricardo Badiola Uriarte

© Euskaltzaindia

ISSN. 0210-1564

Euskera

ISBN. 85479

Legezko Gordailua BI-1409-90

Fotokonposaketa: Rali. Particular de Costa, 12-14 - 48010 Bilbo

Elkar, E. Koop. grafikagintza. Autonomia, 71 - 48012 Bilbo

Maketazioa eta orrazketak: R. B. U.

Aldizkari hau beste agerkariekin trukutzen da. Otoi, idatz Zuzendariari.
Esta **Revista** admite el intercambio con otras publicaciones. Se ruega dirigirse al Director.

AURKIBIDEA

NOVIA DE SALCEDO, MIGEL ARRUZA ETA GABRIEL MANTEROLAREN MENDEURRENAK (Bilbo, 1990-II-23)

Tomas Uribeetxebarria Bizkaiko Kulturako Foru Diputatua, <i>Novia de Salcedo, Migel Arruza eta Gabriel Manterolaren mendeurrenak ospatuz</i>	271
Jean Haritschelhar euskaltzainburua, <i>Novia de Salcedo, Migel Arruza eta Gabriel Manterolaren mendeurrenak</i>	273
Eusebio Erkiaga, <i>Euskaltzaindiaren hasieratik urgazle izan zanaren mendeurrena: Migel Arruza egia (1890-1966)</i>	275
Juan San Martin, <i>Don Gabriel Manterola, mendeurreneko oroitza</i> .	281

GREGORIO ARRUEREN HERIOTZEKO MENDEURRENA (Zarautz, 1990-IV-20)

Antonio Alberdi herriko Alkatea, <i>Gregorio Arrueren heriotzeko mendeurrena</i>	291
Jean Haritschelhar, <i>Gregorio Arrueren mendeurrenean</i>	293
Karmelo Iturria, <i>Gregorio Arrueren biografia</i>	297
Maite Etxaniz, <i>Gregorio Arruren Santa Jenobebaz beste zerbait</i> .	313

Jose Antonio Arana Martija, <i>Gregorio Arrue, Mazoren lehen itzul-tzailea</i>	323
--	-----

BATZAR-TXOSTENAK

Xabier Diharce “Iratzeder”, <i>oroitzapen purruxken purruxkak</i> ...	329
Juan San Martin, <i>botanika lexikoa Eibarren eta Toribio Etxebarriaren Lexicon lanari gehigarriak</i>	337
Xarles Videgain, <i>tripot, lehatxun, ez adiorik: Euskal Atlasaren in-formatizatzeke bidean epantxu zenbait</i>	367
Martin Haase, <i>erdal hitzen mailegatzea Iparraldeko euskaraz</i> ...	405
Txomin Peillen, <i>Gaskoniako Okzitanoarengandikako maileguak euskaraz</i>	417

EUSKALTZAINDIAREN BATZAR-AGIRIAK

<i>Euskaltzaindiaren Batzar-Agiriak, 1990-I, II, III, IV, V, VI</i>	427
<i>Autodeterminazioaz Adierazpena/Declaración sobre la Autodeterminación (Zarautz, 1990-IV-20)</i>	442

BERRIAK

Jose Antonio Gesalaga “Zaldubi”, <i>aitona zaharra</i>	459
Xanti Zabala “Lezo”, <i>gogoetak</i>	461
Antton Kazabon, <i>esnatzerakoan</i>	463
Jose Antonio Arana Martija, <i>Joannes Leizarraga Testamentu Berrira, Kalendreraren ABC liburukien faksimilezko berrargitarapenaren aurkezpena</i>	465

HILBERRIAK

Patxi Altuna, <i>Aita Patxi Etxeberria S. J. (1900-1989)</i>	471
Emile Larre, <i>Jean Hiriart-Urruty (1927-1990)</i>	477

	267
Pierre Molères, <i>Jean Hiriart-Urruty euskaltzainaren hiletak</i>	483
Jose Maria Satrustegi, <i>Marcelino Garde, Erriberako euskalduna</i> .	489

ZUZENKIZUNAK/FE DE ERRATAS

Endrike Knörr, <i>Bilbo izena dela eta</i>	493
--	-----

EUSKALTZAINDIAREN AURKITEGIA

Egoitza / Sede	497
Azkue biblioteka	497
Gordailua / Almacén	497
Ordezkaritzak / Delegaciones	499
Euskaltzainburugoa / Cargos académicos y ejecutivos	501
Euskaltzain osoak / Académicos de número	503
Euskaltzain ohorezkoak / Académicos de honor	505
Euskaltzain urgazleak / Académicos correspondientes	507
Aurkibidea 1990	515

**NOVIA DE SALCEDO, MIGEL ARRUZA
ETA GABRIEL MANTEROLAREN
MENDEURRENAK**

Bilbo, 1990-II-23

**NOVIA DE SALCEDO, MIGEL ARRUZA ETA
GABRIEL MANTEROLAREN MENDEURRENAK OSPATUZ**

Bilbo, 1990-II-23

*Tomas Uribeetxebarria
Bizkaiko Kulturako Foru Diputatua*

Berriro ere Foru Aldundi honek ohorez hartzen du Euskaltzaindia bere hileroko bilera egin dezan eta eskertzen dio Bizkaiko Jauregi hau hautatu duelako hiru Bizkaiko idazle ezagun eta garrantzitsu ospatzeko: bi bilbotarrak, eta hirugarrena, berriz, zeanuritarra.

Nik ez daukat hemen zer aipatu beharrik Pedro Novia de Salcedo eta haren hiru lurraldeen defentsa historikoa edo haren hiztegi etimologikoa, ez eta Gabriel Manterolaren edo Mikel Arruzaren lanak, beste batzuk azalduko bait dituzte bilera honetan.

Hala ere, Pedro Novia de Salcedo Bizkaiko Foru Aldundi honetara hain loturik egon zenez eta aldi ezberdinetan Diputatu Nagusi ere izan zenez. Foru Aldundi honen eta Diputatu Nagusiaren izenean bereziki aipatu nahi nuke eta berriro ere Euskaltzaindiari aditzera eman gure poza eta atsegina etxe honetan hartu ahal izan dugulako gizon haundi hori ospatzeko.

NOVIA DE SALCEDO, MIGEL ARRUZA ETA GABRIEL MANTEROLAREN MENDEURRENAK

Bizkaiko Foru Diputazioa, 1990-II-23

Jean Haritschelhar

Euskaltzainburuaren sarrera hitzak

Tomas Uribeetxebarria, Bizkaiko Kultur Diputatua,
Jaun Andereak, arratsalde on.

Eskerrik asko zuri, Tomas Uribeetxebarria jauna, egin diguzun ongi etorriaz. Aspaldidanik badakigu gure etxean gaudela hemen, Foru Aldundi honetan. Badakigu ere Bilbon ukanen dugula gure egoitza berria, hain zuzen Plaza Barrian eta zor diogula Foru Aldundiari, erakunde honek hartu dituen erabakiei esker.

Gaur bilduak gara hiru bizkaitar idazleen ohoretan. Lehena, Pedro Novia de Salcedo deitzen da, Diputatu Nagusi izana, etxe honetako nagusi beraz joan den mendean. Foruen alde jokatu da bere bizian baina denbora berean euskararen kezka erakutsi du *Diccionario etimológico del idioma bascongado* deritzan esku izkribuarekin, zendua zelarik argitaratua, 1887an Tolosako Eusebio Lopez-en irarkolan. Baina bizkaitar ospetsu horretaz, ni baino hobeki mintzatuko da Alfonso Irigoyen bizkaitar euskaltzaina.

Bigarrena da Migel Arruza Egia, hau ere bizkaitar zintzoa eta idazle bikaina. Jadanik agurtu ditut haren senideak eta orain agurtzen ditut publikoki Euskaltzaindiaren izenean. Idazle horretaz mintzatu behar zitzai-gun Erkiaga euskaltzain jauna, baina gaixorik izanez, utzi digu bere txostena eta Jose Antonio Arana Martija euskaltzain jaunak irakurriko du.

Hirugarrena, Gabriel Manterola, sortzez Zeanurikoa, apaiz eta erre-tore egona Eibarren, erbestera joan aintzin gerlarengatik. *Jaungoiko-Zale* elkarteko langile ona izan da eta Juan San Martin euskaltzain jauna

Gabriel Manterolaz mintzatuko zaigu berak ongi ezagutu duelakotz. Gutartean daude Gabriel Manterolaren familiakoak, haien artean Ander Manterola adixkidea eta eskaintzen diet nere agurrik beroena.

Hiru idazle ohoratuak izanen dira eta horrelako ospakizunak antolatuz, Euskaltzaindiak bere eginbidea betetzen du, aintzinekoen oroitzapena atxikiz, aurreko idazleek zaindu baitute euskara, Euskaltzaindiak zaindu nahi duen bezala, euskalkiak begiratzuz eta euskara literario bat bultzatuz. Badu hogeitaz bi urte xede hori hartu zuela eta segituko du bere lana helburu berarekin.

Barkatuko didazue hemendik alde egin behar baitut. Alabaina galdegin didate mintzaldi bat egitea Gasteizen bildua den Pirineotako lan talde baten aintzinean arratsaldeko bostak eta erdietan. Banoa beraz uzten dudala arratsalde honetako bilkura J.M. Satrustegi Euskaltzaindiaren idazkariaren eskuetan.

Eskerririk asko.

**EUSKALTZAINDIAREN HASIERATIK URGAZLE
IZAN ZANAREN MENDEURRENA:
MIGEL ARRUZA EGIA (1890-1966) (*)**

Bilbo, 1990-II-23

Eusebio Erkiaga

Haren gurasoak, aita Mungiako semea, ama Gatikako alabea, Migel Bilbon jaio zan, hain zuzen Irakaskintzako 2. mailako Institutu etxean, aita hango kontserje zan eta.

Mutikoa, bost urte zituanean, aita hil eta umezurtz geratu zala, Algortako osabek eurenera eroan eben; ama Bilbon lotu zan.

Hamazazpi urte inguru zituanean, Migelek bizikaturea lortu eban “La Polar” aseguruen bulegoan, eta orduan amagana bihurtu zan. Geroago, lanbidea Banco de Comercio-n izan eban eta 28 urtekoa zala Klotilde Sopelanagaz ezkondu zan eta familia ederra izan eben, hiru seme ta hiru alaba.

Arruzak eta biok alkarren ezagupidea lehenengoz zertzean bilbotar euskalduna bailitzan agurtu ninduan. Horraitino, Bilboko euskalduna ete zan, susmoa, aierua sortu jatan kaskarrean. Izan ere, ondotxo dakizue euskaltzain jaunok, orainarte, euskaldun oro nonbaiteko euskalduna izan da, izan gara, txikitatik eta geroago ere, eta hain nabarmena izan da iraupen hori, atxiki hori, bada, Bonaparte printzearen entzumen finak eta adimen argiak, euskera modu anitzaz baliaturik, egin-eginean dialektologi sail adartsua burutu eben eta: lehenbizi euskalki nagusiak begi-ziztan ulertuz, hurrengo subdialektoak, eta jarraian, Jaungoikoa lagun, uri, ibar, haran, bailara, errearte eta mendi giroko hizkera ta mintzabide berezi ugari entzun, aditu, ezagutu ta ikasi ondoren, hain egoki ta maisukiro, moeta erduetan saikatu zituala.

Arruza Bilboko euskalduna zala... Ez nintzan konforme geratu. Arean, XX mende erdian Bilbo barrutiko hizkerek ez dau, nire eritiz, herri-

(*) Beronen ezin etorriagatik, Jose Antonio Arana Martija euskaltzainak irakurria.

-susterrrik, arorik ez girorik izan, Bilboko euskerea gino esan ahal izateko, doinutasun ta molde herrikoï berezirik izan ez daualako. Nire susmoak zutik iraun eban, eta Arruzarekiko ta euskerearekiko nire pekua ha bera hil ondoren argitu neban, harenera joan eta alabakaz berba egin nebanean; hain zuzen, nerabilen itaunea zorrotz egin neutsenean. Euskerea ahaztu... euskerea geroago ikasi.

Eta begira, lan hau gertetako esku artean izan ditudan paperen artean, orainarte jakin ez dodana irakurri dot. Arean, Mikel Zarate zana ere, susmo ta peku berberaz ibilia zala. Hona hemen haren esaldia: "Euskera asko daki Arruzak, baiña «euskaldun barri» usaiña darioe, batzutan, bere idazlanai" (*Bizkaiko Euskal Idazleak*, 203 orrialdea).

Guadianako uren ixtorio-mixerio dalakoaren fenomeno ha hemene ere ez ete dogun, neure kautan esan izan dot. Ausaz, ezkutatu diran urak, barriro agertzean berberak ete diran; halako etenik gertatzen ez ete dan.

Eta honela, Guadianaren uren fenomeno hori, euskerearekiko, Acruzagan jazo ete zan, Lizardigan ere... Umetan euskaldun, mutikotan euskera ments izan... Eta barriro, euskalduntze saio eskergak.

Lizardi aipatu dogun ezkerro, aldatu dagigun haren pasarte bitxi haxe. Entzun: "Ara. Badet nik laguntxo bat. Errez-zale purrukatua da iñorena irakurtzekoan. Baña, bera idazten asten danean, luma biurritzen zaio, ta inork ez dio kolperik konprenditzen. Gertatu izan zaio iñoiz adiskideren batek lantxo bat eskatzea: Aizak i, itzaurre bat egin bear diak, erderazko teatro au traduzitu bear diguk... Baña!... (au eskua altxata) faborez!!, erreza izan dedilla, e?... Vanguardismorik ez diagu bear!... Kuitauak, bada, egiñalak egiten zitun, ni naiz testigu; ustez, aingeruak berak baño malizi gutxiagokin itzak yosten zitun: bere lantxoa eman eta zai gelditzen zan. (...) Noizbait ere, orratio, eman diote zearoko etsia. Gure olerkari baten bertso yator errikoï bat irakurriberrria zan, eta egillea ikusi zuneko an diyoakio bostekoa estutzera. Besteak, lotsati-samar, ala esan zion: Eskerrik asko, eskerrik asko... Zuek bezela ez dakigu, baña... amaren bularretik aziak gaude beintzat... Zuek, berriz, iñork ba al daki nongo errapetik edoski zenuten? Ateraldi aretxek argi eman zion nere laguntxoari. Bereala, gorri-gorri eginda, izkide errikoïari aitortu bear izan zion baietz, bera etzala txikitan amarenetik aritu..., biberioiakin azia zala..." (ITZ-LAUZ 84-85 orr. Donostia 1934).

IRAKASLE

Arruzak berrogetaz urteak izango zituan euskal-irakasle maila jasora heldu zanean. XIX.mende azkenean Bizkaiko Aldundiak bere kabuz eta diru laguntasunez, lehenengo euskal-katedra sortu eban Bilboko Institu-

tuan. Irakasle R.M. Azkue izan zan; honek, ordezko, Ebaristo Bustinza “Kirikiño” utzi eban. Errepublika denboran, ostera, lau ziran irakasleak: Jose Altuna, J. Gandariasbeitia, Tomas Agirre “Barrenoso” eta Migel Arruza. “Kirikiño” 1929.urtean Maiñarira joan zan, bere sasipera; ez saripera.

Arruzak Estaduko eskoletan be jardun eben euskal-klaseak emoten, berberako Ribera kalean unada baten.

LANAK

Euskeraz idazten hasi zanean 21 urte zituan. Prosaz eta baita izneur-tuz be, eurrez idatzi eban. Non agertu be, izan eban, arean: Hermes, Aberri, El Bidasoa, Jesusen biotzaren Deia, Euzkadi egunkaria eta La Gaceta del Norte egunkaria. Azken honetan unada batez 1933-36 bitar-tean Euskal-atalaren arduradun gertatu zan eta bere lantxoak be, agertu zituan. Gerratean, 1937. urtean “*Eguna*” euskal egunkari bakarrera be, bialtzen euskuzan idatziak. Gerrate ostean, haren lanen argitaratzaile: *Euzko Gogoia, Egan, Karmel, Zeruko Argia, Olerti*.

Batik-bat bizkaieraz atondu zituan bere emoiak. Neurtitzez eginda-koetan olerki harikoak be bai, baina alegiak batez be, harek arkamele esanikoak. Lexikoan, hitz arruntak, arkaikoak eta neologismoak esteka-tzen zituan. Joskera artezez idazten ahalegindu zan. Erabiliriko izenor-deak: “Garbizale”, “Garbizale zar”, “Urratza”, baina sarrienik “Arrugain”.

Harek antolaturiko liburuak:

1. *Método Massé-Dixon*, euskeraz jarria (Bilbo 1923). 160 orr.
2. *Método práctico para aprender el vascuence* (Bermeo 1925) 146 orr., Gaubekaren irarkolan. Atzerri izkuntzetatik itzuli ta euskerari egokitua.
3. *Euskal-ikasbide erraza* (Bilbo).
4. *Euskeraz ikasteko bide erraza* (Bilbo 1934). Bigarren irarraldia, Verdes-Atxirikanean, 107 orrialde. Hitzaurrea R.M. Azkuek egina, orrial-de bat.
5. “Etxe-kalte” (Bilbo 1934), Anton Truebaren “El Judas de Casa” ipuina, bizkaieraz ipinita, Verdes-Atxirikanean, 80 orrialde, Arsenio Beas-koetxearen edergarriak.

Lan honez Aingeru Irigaray-ren berbak: “Ondo ezaguna da «Arru-gain» euskaltzaleen artean, *La Gaceta del Norte*-n bere euskal lanak xurga-xurgaka aogozatu ditzake-ta. “Etxe-kalte”-n darabilen euskera biz-kaitar errikoia duzu: argi, zuzen, aratza, garbiegikeria gabe; edozein eus-

kaldun zerbait dakianak, aixa irakurriko du Truebaren ipui au; ala ere, bear bada, gaur eguneko irakurleai lirismu laiñoegi batez jantzia irudituko zaie” (RIEV, XXV, 1934, 198 orr.).

Horraitino, Truebaren ipuin hori lehenago ere euskerara itzulia egoan; Antero Apaolazak egina eta “Patxiko Txerren” izenez Bergaran 1890. urtean argitaratua, hain zuzen Arruza jaio zan urte berean, alajaiña. Geroago, 1915 eta 1917 urteetan barriro ere argitaratua. Migelek lan hori adionez ikusi ete eban? Ez dakigu. Erkatze zeregina gazte ikastunen batek egin lei, bigarrenean lehenengoaren azterrenik aurkitzen ete dauan.

6. Jo (Bilbo 1966). Umeentzeko euskal irakurbidea, irudiz apaindua. Aita Lino ta Olabeaga anaia lagun zituala egina. Editorial Vasco-Americanaren irarkolan, 78 orrialde. Arruza hil aurretukoa.

7. Irrati-saioak. Azken urteetan, Xabier Peña Albisu lagun eballa Bilboko Erri-irratitik Euskal Orduan zabalduriko saioak. Argitara bageak dira.

Aita Onaindiaren eritziz, Arruza langile porrokatua zan, euskal idazle amorratua. Euskerearen aurrerakuntzarako edozer jakon atsegin, eta besteen ahaleginei indar emoteko gertu egon ohi zan. Hil zanean, Euskaltzaindiko urgazlerik zaharrena bide zan.

Gerrate denboran —beste asko lez bildurrak jota, jakina—, Iparraldera ihesi joan zan, etxeko guztiakaz, eta 1937-40 bitartean Donibane Garazin eta Armendaritzen egon ziran, harik eta urte horretan —eta orduan alemanen bildur—, Bilbora bihurtu ziran arte. Hona itzuli eta etorri barritan gorriak ikusi zituen, senperrak, lanaren bila, eta aurkitzen gatx, irabazpiderik ez... Halakoren baten “Harino Panadera”-ren bulegoan sartzea lortu, eta hantxe jardun eban zahar-mailako sari garaira heldu arte.

BIRRITAN ZADORLARI

1950 urte inguruan Krutwig euskaltzainak Bilboko urgazleei dei egiten eutsen eta Euskaltzaindian hilerok bilerak egiten hasi ziran. Juan Gorostiaga, Garro, Arruza, aita Lino... Garrok eroan ninduan ni hara. Aita Imanol Berriatua ere, etorten zan. Krutwig jaunak Julio Urkixo Filologi Elkhargoa sortu nahi eban, bera buru izango eta lehenbizikoan Arruza zadorlari. Erabiliko genduan lanabesa lapurdiera klasikoa izango zen: Axular, Etxeberri Sarako... Buru zanak lexiko eta aditz formen zerrendak atondu zituan. Gramatika egokia egingo genduan, asmo nagusiaren arabera, eta beste hizkuntzetako obra on eta ospatsuen itzulpenak egingo. Isidoro Fagoagak Buenos Airesen ateraten eban *Gernika* hiru hizkuntzako aldizkarian agertzen genduzan lapurdieraz gure prosak,

gure neurtitzak. Aldi hartan Arruzak Ateneuan ikastaro bat edo beste zertu zituan.

Aita Villasante euskaltzain oso egin ebenean, haren sarrera jaia Bilbon, Aldundiaren jauregian ospatu zan, eta sarritan lez orduantxe ere, euskerearen kukuiek euren zitala agertu eben, euskaltzain barriaren hitzaldiari Krutwig-ek eginiko erantzuna amaitu zanean... “Txalo luzeegiak” entzun zirala ta. Horrez ganera, erantzun hitzaldi horren paperak han maipuruan egoanak Oleagari eskatu, eta bertatik Gobernari zibilaro eroan eutsoezan. Ondorioz Krutwig euskaltzainak begiratu ki Hegoe Euskalerritik hanka egin eban. Ganeko egunean harako “busca y captura” agindua iragarri eben. Eta hor amaitu zan jaiobarri genduan Jul Urkixo Elkhar goa.

Geroetan, euskal-giroa zelanbait berotu guran 1960. urtean edo, Bilbon “Euskaltzaindiaren Laguntzaileak” taldea antolatu nahi izan zan. Buru, Nazario Oleaga, ta hor ere Arruza zadorlari. Oker -ulertzeak gertatu ziran eta ekintza hori be, bertan behera laga zan.

EUSKERADUN EGUNKARIAK

Arruzari norbaitek euskerearekiko kezkea sartu eutsan, eta horri atxikirik bizi izan zan, untzorria hormeari lez. Aldaketa joerek eta gazte ausartek eginiko erasoak jasaitean, arbindu egiten zan, erre, estutu, badaezpadako ekintza horreek euskerearentzako kaltegarriak zirala uste izaten eban eta. Akulua eskuar eukiten eban, ziki egiteko prest.

Bere sasoian egin zituan istudioen barririk ez dogu. Euskerara itsutu zanetik, gure elederraren ezagutzea be tamainan izan ebal leitekena da; eta gaztelaniar literaturarena ere bai. Gogoan dot harek, agirakako idatzi baten “culta latiniparla” aipatu ebal.

Dana dala, eta noizbait idatzia dot, ez eban eguno bere burua handitzat jo. Irakasle ezezik, kazetari ere izan zan. Bestek izan ez eban eretia gertatu jakon eta aukera hori ez eban alperrik galdu, ondo ustiatu eban: *La Gaceta* zalakoan, 1933-36 urteetan eta geroago 1956-58 bitartean euskal-atalaren arduradun suertatu eta bere lantxoak ere agertu zituan.

Ba zan Bilbon, eta ba da beste egunkari bat, zeinen tiradea gerrate aurrean txit urria izaten zana (izen bikoa, ta bigarrena *Euskal Herria*); baina orain aspaldi tirada itzelak, ikaragarriak egiten dituana. Horraitino, eguneroko indartsu horrek —Axularren esate-moldez adierazoko dot—, euskerea... ez dau senide, ez dau etxeko, ez dau auzo, ez dau ezagun ez lagun; arrotz zaio, mamu zaio, atariko haizea aina...

Barriro ere, Lizardi aipatuko dogu, honek 1930. urtean euskal-egunkaria al bait lasterren atera beharrez eginiko istudio ta aurrekontuak ikusi izan

ditut eta. Egunkariaren izena *BAI* izango zan (Aipatu beste egunkari indartsu horretan *BAI* versus *EZ*).

Oraingoan, euskal-egunkariaren haur-min eske dabiltz euskaltzaleak. Irakurleak non dira, perretxikoen antzera sortuko ete? Gainera zarauzta-rrak Euskerea haundiki soinekoz jantzi nahi izan eban.

Esanak esan, biok ondo merezi izan eben eta, degiogun gorazarre Lizardiri, degiogun gorazarre Arruzari.

DON GABRIEL MANTEROLA, MENDEURRENEKO OROITZA

Bilbo, 1990-II-23

Juan San Martin

Gabriel Manterola Urigoitia, duela ehun urte jaio zen Arratian, Gorbeapeko Zeanuri herri polit bezain jator horretan. Santi Onaindiak dioenez, 1890.eko Martxoaren 17an, Arregia kalean, eta hurrengo egunean bataiatu zuen Jose Antonio Uribe apaiz jaunak. Gurasoak: Florentino Manterola Gortazar, Zeanuri bertakoa, eta Nikolasa Urigoitia Elizaga, Arteakoa (Gaztelu-Elexabeitia). Aitaren aldetiko jatorria Zeanuri bera omen, eta amarena Otxandio eta Galdakao.

Euskaltzale kementsua eta idazle trebea zelako izendatu zuten urgazle Euskaltzaindiaren sorreran, eta gure Erakunde honen urre-etzeietan ohorezko euskaltzain.

Bere herrian eta Galdakaon egin zituen lehen ikasketak. Hemen, osabarekin bizi zen, Erruperto Aranategi apaizarekin hiru urteren buruan ikasi zuen latina, Gasteizko Apeztegian sartu baino lehen. Gero, 1905.etik 1913.era bitartean, hiru urtez Filosofia eta bostez Teologia ikasketak burutu zituen. Gainera urtebete itxaron behar izan zuen apaiz egiteko adina bete arte. Azkenik, 1914. urtean, Prudentzio Melo apezpiku zela eman zuen lehen meza. Eta berehala, Eibarrera apaiz-laguntzaile eta monja/serora kapilau edo kaperau.

Eibar, industri hirietarik euskaldunena edo hiri euskaldunetatik industriatuenena. Era askotariko tresneria egiten bazen ere, XV.mendetik zetorkion suzko armagintza zen nagusi; eta "langabezia" zer zen ez bazekiten, lanik-eza ondotxo ezagutzen zuten eibartar armaginek.

Baina Don Gabriel hara joan zen urte berean krisiaren itzal izugarritik irtetzen ari zen; Europako gerratea piztu zenez, lanetik ugaritasuna etorri zen, armaginentzat urterik oparotsuenak ezagutzeko. Aldiz, Armagintza Eskola sortu berria, bere zuzendari zen Julian Etxeberriaren eraginez, armagintza irakaskintzetara baino gehiago bestelako beharrizanetarantz bideratua zuen, eta eibartarrok etorkizunari itxaropentsu begiratzen

hasiak ziren. Felipe Arrese Beitia otxandiarrek epika gisako poema haie-tan agertu zuen bezala.

Ai!, baina, Eibar hiri gorria zen, ez agian auzoek uste zuten adina, bai ordea apaiz gaztetxoek gorriak ikusteko. Ez dakigu Prudentzio Melo apezpikuaren prudentziaz ote zen ala historiaz jantzia eta kulturaz zuhur nabari zen Eugenio Urroz parrokoaren gomendiozkoa, kriterio berriekin zetozen apaizak igortzea. Zeren Don Gabrielen ondotik igorri bait ziren Don Juan Ibargutxi gaztetxoak dotrinaz hezitzeko eta Don Poli Larraña-ga, langileriak zekartzan gizarte arazoetan laguntzeko; eta hau izan zen Eusko Langile Alkartasunaren sortzaile, Eibarren U.G.T. bere gailurrik erpinenean zen garaian. Sindikatu horrek ematen zien sozialistei indarra klase borrokaz soilik arduratzen zirenean, hori bait zen helburua; baina aldiz, nazionalismorik ez hangorik eta ez hemengorik.

Garai haietako gizarte giroaz lehendik ere zenbait berri emanak ditut Don Juan Ibargutxi eta Toribio Etxebarriaren mendeurrenetan, 1984 eta 1987. urteetako *Euskera* agerkarietan argitara emanak dira.

Don Gabriel, komentu batetako kapelau joan bazen Eibarrera, ez uste izan edonolako kargua zuenik. Bera jabetu behar zen eliza herri askotako parrokiak baino garrantzitsuagoa zen. Hori ondo ulertzeko kome-nigarria deritzot Isasiko komentuaren sorreraz eta historiaz zertzelada batzu adierazteari.

Guk Markeskua izen soilaz ezagutzen dugun jauregia, XVI.mende-koa, oraindik zutik dago Isasi kalearen altuenean, Otaola (Otola)-rako kaminoa hasten den tokian. Hiri-bilduaren Untzaga ataritik Bizkairantza bidean. Jauregi horri loturik, Untzagako dorre zaharraren jaun eta jabe zen Martin Lopez de Isasi eta beronen emazte Domenja de Orbearen erakuntza, Argatxa zeritzan tokitik Santa Ines ondoan Isasi zeritzonerai-noko inguru hartan frantziskotar mojen komentua eraikitzeko, Isasi jau-regiari bat eginik, 1595.urtean komentua eta eliza XVII.mendearen hasieran eraiki zen, Migel Aranburu frantziskotar arkitektoak prestatu zuen proiektuaren arabera, Hernando Loidi, Migel Garaizabal eta Joan Arostegiren zuzendaritzapean.

Antonio Isasik hartu zuen lehen oinordekotza, eta honek bere seme Juan Isasi Idiakezekin, Valladoliden karmeldar fraide zen osaba Juan Orbearen bidez, Gregorio Fernandez-ekin lortu zuen erretaulagintzarako ebazpena. Eta 1625-1629. urteetan egin zen, imajina nagusitzat Kontze-zioko Andra Maria jarriz. Conde de la Viñaza-ren ustez, Gregorio Fernández eskultore ospetsuaren eskutik irten zen irudirik hobereneta-koa zen. Eliza oparotsua, bai neurritz eta bai ederrez, Isasiko hura.

Hirugarren belaunaldiko Juan Isasi Idiakez izan zen jaunik ospetsue-na. Erregeren gortean sarrera onekoa, Felipe IV.aren semeen maisu, Pié

de Concha konde tituludun bakarra. Franzisko Fernando (Cardenal Infante) eta Baltasar Karlos printzea maiz egoten ziren jauregi horretan. Izan ere, Argatxa eta Isasitik Ipurua eta Kaskarrengua baserrietarainoko baratzek zituen, Santa Ines barne zelarik, zuhaitz ederrez horniturik, ez zitzairen faltako non josta. Eta egotaldi horietako batean, 1634.eko Martxoaren 11.an, hor hil zen Frantzisko Fernando, Felipe IV.aren seme naturala. Eliza horretan egin zitzaizkion Escorial-era eroateko prestakuntzak.

Gero beraren anaia Baltasar Karlos printzearen hezkuntzaz arduratu zen, eta aipagarria da 1635.urtean Madridetik Gipuzkoako Batzarretara idatzi zuen gutuna, non erakusten duen euskaraz zerbait irakasten ziola: "...gusta su Alteza a ratos que se le hable en vascuence y cuenta en nuestra lengua algunos números muy naturalmente..." (G. Mujika, *Monografía*, 272. orr.). Juan Isasiren irakaskuntzak Ama Agredakoak Erregeri ematen zizkion aholkuak baino zerbait gehiago beharko zuen, hezkuntza egokiaz jabeturik nobiziak baketan uzteko. Baina zoritxarrez, 1646an hil zen printzea, erregea oinordekorik gabe utziz. Atsekabe handiegia izan zen ordurako alargundurik bizi zen J. Isasirentzat, eta elizgizon bihurtu zen. Laster lortu zuen Guadalajarako artzadiakonotza, Toledoko kalonje eta azkenik kardenal, Erromarako hautagai zela hil omen zen: "...Además de arcediano de Guadalajara fue dignidad y canónigo de Toledo, y murió electo cardenal de Roma teniendo en su poder la gracia del capelo..." (G. Mujika, *Monografía*, 274. orr.).

Gizon honen itzala neurtzeko ikus dezagun Gipuzkoako Batzarretara gutun hura idatzi zuen urte berean, euskaldun eskribauak hain gogorki uxatzen zituen Francisco de Quevedo Villegas-ek Sandoval-en dorretik zer zioen, Sancho de Sandoval jaunari idatzi zion gutun batetan: "...El señor Juan de Isasi, maestro y ayo del príncipe nuestro señor, y ahora vizconde, de que me dió cuenta este ordinario pasado, por su bondad, que es grande como su nobleza y letras, ha dado en hacerme merced compasión, en Madrid se venía los más días a mi posada, y aquí todos los ordinarios aun se anticipa a escribirme..." (Quevedo, *Obras comp.*, tomo II, pág. 938). Handik urte t'erdira Madridetik S. de Sandoval-i idatzi zionean beste honako hau gaineratzen zion: "...El señor Don Juan de Isasi está con buena salud, y mi señora Doña Juana nos tuvo con mucho cuidado; ya está del todo convalida. Yo debo tanto al señor Don Juan, que todos los días o los más se viene a esta posada, donde está tres días..." (Quevedo, *Obras comp.*, tomo II, pág. 958).

Horregatik, Isasiko hura ez zen nolanhiko jauregia, ezta ere bere eliza. San Andres parrokiaren ondotik Eibarko hirian zenik garrantzitsuen. Gure mendera arte gorde zuen bere ospea eta gure akorduz ere erregeek bisitatzen zuten Donostian uda igarotzera etortzen zirenean. Bisita horietako batzuren lekuko izan zen Don Gabriel.

Euskaltzaletasuna Apeztegitik zetorkion Don Gabrieli. Gazterik erakutsi zuen bere jakintza goresgarria maila altuagoetarako prestaturik zuela. Haren lehen lan haiek era hori erakusten digute. Lehen liburua, bertsoz, hogeitamar urte bete orduko egin zuen: *Goi-izpiak*, “Yaungoiko-Zale” bazkunari eskainia eta elkarte berak Zornotzan argitaratua. Haren ikastaroen agiria da, eta sarreratzat irakurleari egiten dizkion hitzetan dio, “... Elerti arauz begiratu ezker, txorta onetan kimu asko moztu bearko litzakezala, bai’ dakus; gai onetzaz ba, bere lenengo urratzak dira; baita elertizaletasunak geyago eragin dautsolako”. Bere edukia Historia Sakratuan oinarritzen da eta hitz neurtuok epika era daramate. Apaiz egin berriko lan hezea, noski; ondo josiak, puntuz zainduak eta zehatz neurtuak, kantatzeko eran emanak. Besteak beste, kobla eran “Yosu’ren Yayotza’ri” direlakoak bikainak dira, baina ondotik “Bathleem’go estalpean” direlakoak zortziko txikian onduak besteei zorrik gabekoak. Pasio-koak ordea, bihotz minez, fede sendoaren lekuko. Bestalde, hortik sortu zitzaizkion irudizko agerpen haiek: *Yesu-Kristoren nekaldia* eta *Gabonetako Antzerti Yaunkoya*: Bigarren hau Bilboko Coliseo Alban aurkeztua. Apeztegiko irakaskuntzaren ondoriozkoa dugu 1925ean argitara eman zuen *Santuen bizitza laburra* deritzon liburua ere.

Gerora egin zituen idazlanak, behar bada, ez dira orduko gazte kementsuagandik espero genituenak. Gainera, hitz-neurtuzko liburu horretan Naturarekiko adierazpenak bere ikuspegi sentiberatsua erakusten du; era berean kontalari trebe bezain otzanarena nabari zitzaion. Bazuen olerkari sena; baina nik uste eguneroko ekintzaren pragmatikotasunak eten ziola olerkigintza.

Handik laster, Euskaltzaindiak bere “Lenengo Euskalegunetako Itzaldiak” antolatatu zituen Durangon, eta hizlarietako bat genuen Don Gabriel Gaia, “Durangaldeko gizonik agirienak”. Zenbait pertsonaren ekintzak eman ondotik, Fr. Juan Zumarraga eta Pablo Astarloarenetan aski zabal eta sakon ihardun zuen, agiririk fidagarrienen iturrietara joaz eta erudizio hornitua erakutsiz. Hemen ere, hitz-neurtuetan bezala, dohaindun gizon prestua nabari da; luma bizkorraz gainera, ikerketarako ahalmenak erakusten bait ditu.

Baina, behar bada, Eibarko gizarte inguru giroak mugatzen du, fede apalez eguneroko beharrianak kunplituz, berekautako gogoetetan murgiltzera. Ez hori bakarrik; euskal egunkari eta aldizkariak egarri dira, egunean egungoari jarraituko badiote, eta idazlerik guti. *Ekin*, *Yakintza*, *Zeruko Argia* eta beste, kalera aterako badira, artikuluz ase behar, eta hor jarri zen gure Don Gabriel egunoro artikulugintzan, handikeriarik gabe, izakerazko apaltasunez. Erabili zituen izenordeak? Jaingoak daki! *Escritores euskerikos* deritzan katalogo hura prestatzen ari nintzela, adiskide mina nuen Nikolas Alzola (Anai Berriotxo) zenari galdetu nion ea berak baino izenorde gehiago erabili zuen inor ezagutzen zuen, eta berak

baietz, Gabriel Manterola apezak gutienez berrogeitamar inguru. Gero Don Gabrielekek berak egiaztatu zidan, baina guztiekin gogoratzea ez omen zen erraza. Baina ez, ez zituen erabili bere burua estali nahirik edo inork igarri ez ziezaion. Zeren luma zorrotza izan arren, *Goi-izpiak* liburuko “Egi bidean”go esaldia bait zuen bizitzaren ikur: “On egin beti, txarrik inoz bez”.

Euskaltzaindiaren deiak eta eskariak zintzo jarraitzen zituen. Erakunde honek Txomin Agirrereren gorazarrezko ospakuntza eratu zuenean, “Agirre euskaltzale” deritzon hitzaldia eman zuen, *Yakintza* aldizkarian 1934.ean argitaratua.

Itzulpen saioak ere egina zen. Schmid-en hogeitabat alegi eman zituen *Ipuintxoak* izenburuaz eta *Jaungoiko-Zale*-k liburuxka batean argitaratu zuen 1929an. Baina baita frantsesetik eta ingelesetik gaztelerara erlijio gaiak ere. Adibidez, bere azken urteetan *The Official Hand-book of the Legion of Mary* euskaratu zuen.

Apezpikuen idazkiak bizkaieratzen ere lan handia egin zuen, lehenengo Mateo Mujikarekin eta gero Morcillorekin. Beste ekintzetako bat, Apezpikutegiaren eskariz, dotrinak bizkaieratzea izan zen.

Ez da erraz igartzen lehendabiziko ideal altu haietatik ez jarraitzea Eibarko gizarte giroaren eraginez ote zen.

Berberak artikulua batean aitortuko zuenez: “Gizonen barri asko yakin barik Eibar’era eldu nintzan...” eta han ohartu omen, zer zen eibartarren gogo eta kemena eragozpenen aurrean atzera ez egiteko, “gizona gizon dalako bakarrik, aintzat artzen”, langiletasuna eta bakezalea izaten.

D. Juan Ibargutxiren mendeurrenez idatzi nituen oroitzapenetan E. Urroz, P. Larrañaga eta G. Manterolari buruzko zertzelada batzu eman nituen, eta Don Gabrieli buruz hau nioen: “... G. Manterola, filosofia eta liburu zalea, jardunlari ona baina ez jarduntsua, edonoregaz laster lagun egitekoa eta erudizioz betea, edozelako harremonetarako aukerako gizona...”. Txosten hartan eman nituen Eibar eta eibartarroi buruz zituen aburuak, gu benetan harro sentitzeakoak, norberaren burua harro agertzea hain lotsagarria ez balitz. Izatez, Don Gabriel bera zen bihotz onekoa eta pentsamen zabalekoa. Mundu guztiarekin tratatzen zekien eta sozialistekin ere lagun zen, gure ez hain aintzinako Eibarren. Dena dela, Don Juanen izakeratik zeharo desberdina zen, biak adiskide baldin baziren ere; eta ekintzaz bakoitzak bere esparru jakinean ziharduen.

Eibartar gorriak, errespetu ezezik maitasuna ere bazioten Manterola apaizari, bere jokaera hain liberala zelako. Isasi guenean, Santa Inesko ohitura zaharrak gordetzen zituen kapirautza betetzen zuen elizak, San Blas egunez opilak bedeinkatuz, Larunbat Santu goizez “Ixueguna” zela

eta, su eta ur bedeinkatuak etxerik etxe eroateko; alderantziz, Isasi barrenean, bere patriarka itxurarekin, Martzelino Baskaran "Sumendixa", ogi bedeinkatua baino onagoa baina zibilezko entieruetan "kura laiko" egiten zuena. Gezurra badirudi ere, elkarren artean harreman onak zituzten, errespetuz tratatzen ziren. Baina Isasi guenetik Isasi barrenerako tarte hori ez zen basamortua, eta kalearen aurtenean bizi zen Toribio Etxebarria, ezkonduz geroz. Toribio zen sozialismo mugimenduaren intelektua, politika alderdi horren bigarren belaunaldian, eta honen ekintzak gizartearen klaseak berdintzearen aldekoak izan arren, existentziaz eta Jainkoz kezkatu gizona zen, "kura laiko"aren lagun mina eta Isasiko kapilauaren adiskide ona, Biblia irakurlea eta zahartzaroan Eskritura Santu horietatik zenbait zati Eibarko euskarara itzuli zituen.

Egia esan, irudimenari amain emango bagenio, Isasi kalearekin parez pare edo paralelo zihoan Ego erreka apala zitekeen guretzat Jordan. Alferrik esango du gure Bitoriano Gandiagak:

*Jordanik ez ibairik
ez baita Eibarren,
San Juan Eibarrera
nola etorri zen?
Ez dut konprenitzen,
Jordanik ez ibairik
ez baita Eibarren.*

Isasi barrenean Untzaga plaza zabala, Ego erreka hegalean San Juan ermita zegoena, patriarka eta profeta bere ibarrean zituelarik, nork uka orduko eibartarrei Jordanik ez zenik? Gaur ordea, errekatik ezin laudoriorik kanta. Toribiok berak, zahartzaroan exiliotik idatziriko *Lexicon* hartan ziurtasunez honako hau azaltzen zigen: "... Non da gaur gure antxiñako Ego garbixa, barrez zetorrena Bizkai aldetik, bere arte estuan?..." Edo bertsoz *Ibiltarixanak* deritzon liburuan (143 orr.) oroimenez:

*Gure Ego, noizbaitten ziñan ederra!
Zenba't bidar zaittut bururatzen nik!
neskatxa garbi bat bez'la, Bizkaittik
barrez ziñanian zu Eibar'era!*

Naturak adina herritasunak eraginik, itxaropentsu bizitzaren jarreraz ilusioz beterik aritu zirenak herbesteraturik aurkitu ziren, gerrak sakabaturik, bata Ingalaterran eta bestea Venezuelan; baina harremanik ez zuten eten, eta Don Gabrielek gogoratzen du "Eibar'ek irakatsi eustana" delako artikulu hartan: "... Sarritan entzuten neutsen eibartarrei ume-zintzotasunaz esaten: «Au ta bestea esango dabe, baña eibartarrak biotz-onekoak gara». Egi andia. Eta gorrotorik ez dabela ezagutzen egiztutze-ko, ara ale bat. Il baño egun batzuk lenago Toribio Etxebarria'k idatzi eustan: «1964'gn Eibar'en izan nintzan eta adizkideak ain ondo artu

ninduelako uste izan neban, igaro zan guztia gora bera, areriorik ez neukala». Or agertzen da eibartarrak gorrotorik ez dabela ezagutzen eta biotz-onekoa dala. Auxe da Eibar'ek irakatsi eustana”.

Gehienok kutsatzen gaitu garaiko giroak. Hala gertatu zitzaion Don Gabrieli ere. Orduako ustean, arbasoengandiko herri hizkuntza, mordoi-loa zen, eta garbikeria jabetu zen garbizaletasunaren ustez. Gaur ordea, besterik diote orkestan desentonatu nahi dutenek.

Garai hartakoagatik honako hau zioen Mikel Zarate zenak: “Euskal idazle ona da Manterola. Baiña garbikeri giroan bizi izan da-ta, ba-ditu garbikeri batzuk bere idazlanetan, gaztetan egindakoetan, batez bere”.

Baina, inork uka ezinezkoa, euskararen zerbitzari leialtasuna. Horregatik, goragoko mailetan lan egiteko ikasia zen gizon hura eguneroko eginkizun arruntetara emanik ibili zen, zeren uzta jasoko bazen alorrek eskatzen zuen ongarriz hornitu beharra zegoen, erakundez eskolarik ez zuen hizkuntzaren alde.

Gerrateak ordea, gizonok piztia zitalak bezala jartzen gaitu eta gizonik eredugarrienak uxatzen. Don Gabrieleke, tamalez, Franco-ren guda-rosteak Eibarren sartu baino lehentxoago ezagutu zuen Isasiko elizaren erreketeta, Migel Aranbururen arkitekturarekin batean Gregorio Fernandez-en hiru erretaulak betiko suntsituko zituena, eta gertakari horren ondotik erbesteratu beharraren mina zeraman bihotzean, Jaurlaritzaren aginduz haur talde batzurekin Ingalaterrara itsasoz irten zenean.

Espainiako gerra lotsagarria bukatu ondorean, Londres-eko Apezpikutegiak, Vatikano-ren eraginez, itzultzera behartu nahi zuen, baina Don Gabriel, berean tinko, inork agintzekotan On Mateo Mujika bere gotzainak agintzen ziona beteko zuela. Ez bait zen itxura bere anaiak presondegian eta ama zaharra bilobak zaintzen, ondasunik gabe utzirik, bera buru-makur etortzea; zeren edozein gizoni ere begirapena zor zaio. J. G. Etxebarriak *De vita exemplarium presbyterorum vasconum* delako liburuxkaren 43-56. orrialdeetan biltzen ditu gutun horietako batzuk.

Zintzo bete zuen agindua eta Mujika gotzainaren ondotik herriratu zen, 1948. urtean, Gorbea-peko Zeanurin kokatzeko; baina hori bai, inorentzat gorrotorik gabe, orduan Bizkaian gotzain zenari itzultzaile lana eskainiz.

Han eman zituen bere azken urteak, ez ordea Eibarrera osteratxoren bat egin gabe, eta euskaltzaleen bileretara agertu gabe. 1977ko uztailaren 6an bere sorterrian hil arte Eliza eta euskararen zerbitzuko jarraitu zuen.

*Udazkeneko egun ituna
axe-erauntzi eta orri igarra,
ludi ontako bizitz laburran
bakar-bakarrrik orixe gara.*

(Goi-izpiak, 38. orr.)

BIBLIOGRAFIA

- N. ALZOLA (N. Kortazar): *Cien autores vascos*, Donostia, 1966.
- B. ESTORNES LASA: *Literatura*, III, Donostia, 1973.
- J. G. ETXEBARRIA: *De vita exemplarium presbyterorum vasconum*, Gernika, 1989.
- K. ETXENAGUSIA: *Euskal Idazleen Lorategia* (itz lauz), Donostia, 1969.
- K. ETXENAGUSIA, K. KORTAZAR, A. ETXEBARRIA: *Euskal Idazleak bizkaieraz*, Bilbo, 1980.
- EUSKALTZAINDIA: *Lenengo Euskalegunetako Itzaldiak*, Bilbo, 1922.
- G. MANTEROLA: "Eibar'ek irakatsi eustana", *Eibar* aldizkaria, 134. zenb. (San Juan jaietako ale berezia), 1971, 23. orr.
- G. MUJICA: *Monografía histórica de la villa de Eibar*, Irún, 1910 (3. argitalpena, Eibar, 1984).
- S. ONAINDIA: *Euskal Literatura*, V. liburukia, 1977. 38-43. orr.
- F. QUEVEDO: *Obras completas*, tomo II, Madrid, 1960.
- Fr. J. RUIZ DE LARRINAGA: "La tradición artística de la provincia franciscana", *Homenaje a Don Carmelo de Echegaray*, San Sebastián, 1928.
- J. SAN MARTIN: "Gabriel Manterola", **Euskera**, XXIV, 1979.
- J. SAN MARTIN: "Juan de Isasi", *Eibar, 1974* (Fiestas de San Juan, 1974), 9. orr.
- J. SAN MARTIN: "Don Juan Ibargutxi abade idazlearen oroitzapenak", **Euskera**, XXIX, 1984.
- J. SAN MARTIN: "Toribio Etxebarria euskalari eta euskal idazle", **Euskera**, XXXII, 1987.
- M. ZARATE: *Bizkaiko Euskal Idazleak*, Bilbo, 1970.

**GREGORIO ARRUEREN HERIOTZEKO
MENDEURRENA
(1890-1990)**

GREGORIO ARRUEREN HERIOTZEKO MENDEURRENA

Zarautz, 1990-IV-21

*Antonio Alberdi
herriko Alkatea*

Euskaltzain agurgarri, agintari, Gregorio Arrueren senide, jaun-andreok, eguerdi on eta ongi etorri bero bat guztioi.

Gregorio Arrueren heriotzearen mendeurrena ospatzeko bildu gara hemen, Zarautzen hainbat urte eman zituen itzultzaile oparo honi ondo merezia daukan omenaldia egiteko.



Baina ospakizun ekitaldi honetaz gain egiten ari da beste lanik ere: XI. Lexikologi Jardunaldiak. Esan beharrik ez dago, zarauztar bezala, eta ziur nago zarauztar guztion izenean hitzegiten dudala, euskara etengabe-ko aldaketak jasaten ari den gizarte honi agokitzeko hain garrantzitsu den lan baten egoitza izateko gure herria aukeratzea ohore bat dela, Gregorio Arrue herrikide izana ohore haundi bat den bezalaxe.

Baina, askotan gertatu ohi den bezala, ezer gutxi dakigu Hernanin jaiotako zarauztar agurgarri honetaz eta beronen lanaz.

Izan dadila bada, bilera hau, gaur omentzen dugunari eta berarekin batera, bere lanari, itzulpengintzari, dagokien arreta eskaintzeko aukera.

Eta ez naiz gehiago luzatuko, gai honetan adituak direnek beren txostenen bidez Gregorio Arrue eta haren obraren berri eman diezaguten.

GREGORIO ARRUEREN MENDEURRENEAN

Zarauzko Udaletxean, 1990-IV-21

Jean Haritschelhar

Euskaltzainburuaren sarrera hitzak

Antonio Alberdi Zarauzko alkate Jauna,
Agintari jaun andereak,
Euskaltzainkideak
Jaun andereak, agur.

Ez da lehen aldia biltzen dela Euskaltzaindia Zarauz-ko udaletxe honetan. Duela zenbait urte, aurten bezala, Zarautz-en ospatu genituen Lexikografia-ko jardunaldiak eta orduan, orai bezala, Sanzeneako Kultur etxean egin ziren bilkurak. Eskerrak beraz zuri, Alkate Jauna, horrelako esku zabala erakutsiz. Jadanik idatziz egina baldin badut ere, nahi dizkitzut eskerrik beroenak errepikatu gaur Sanzeneako gela bat utzi baitiozu Euskaltzaindiari, gela horretan lanean ari direla Hizkuntz Atlaseko langileak.

1890.eko Apirilaren 21ean, duela gaur bertan ehun urte, pausatzen zen Zarautz-en, Don Gregorio de Arrue. Nahiz sortu zen Hernanin badakigu bere bizi guztia iragan zuela Zarautz-en eta Zarautzartzat har dezakegula. Hortakotz gara bilduak egun, Zarauz-ko udaletxeak nahi ukan baitu ohoratu Euskaltzaindiarekin batean XIX. mendeko Gipuzkoar idazle irakurtuenetarik bat.

Fama haundiko idazlea, orduko atzerritar hizkuntzalarien aholku emaile bilakatu zen, haien artean zirela Luis Luciano Bonaparte printzea eta bereziki Van Eys holandar gramatikalari ezagutua. Gipuzkoarra izanez landu du bereziki gipuzkera espainoetik itzulpenak eginez edo Bizkaieratik gipuzkerara emanez —ez baitira horiek itzulpenak— zenbait liburu, hala nola Juan Jose Mogel-en *Baserritar jaquitunaren echecho escolia* edo Juan Antonio Mogel-en *Peru Abarca* famatua, nahiz ez zen azken liburu hau bere bizian argitaratua izan.

Liburu asko idatzi ditu Gregorio de Arrue-k. Haien artean arrakastarik haundienekoa *Santa Genoveva-ren vicitza antziñaco denboretaco con-*



Zarautz, 1990-IV-21. Ezkerretatik eskubitara: J. A. Arana Martija, diruzaina; J. M. Satrustegi, idazkaria; J. Haritschelhar, euskaltzainburua; Antonio Alberdi, herriko Alkatea; Imanol Murua, Gipuzkoako Foru Diputatu Nagusia, eta Mari Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkari Nagusia.

dairén ederrenetaco bat... Tolosako Pedro Gurruchagaren irarkolan, 1868an argitaratua, bigarren edizio bat atera zelarik irarkola berean, 1882an. Tolosan berriz ere agertuko da *Bravanteco Genoveva-ren bicitz arrigarri miragarria* Cristobal Schmid-en liburuaren itzulpena Gregorio de Arrue-k egin. Egia erran, Brabanteko Genobeba-ren bicitza da Europa guztian maizenik erabilia izan den gaia, elaberri, kondaira, antzerki edo bertsutan. Erdi arotik heldu zaigu leienda eder hori, latinez lehenik, baina, dirudienez, *Geneviève ou l'innocence reconnue*, Aita René de Cerisiers-en liburuak eman zion, argiratu zenetik 1649an, hedadura zabala. Liburu hau da baserritar antzerkien iturria. Probentzan eman zuten 1665ean *L'innocence reconnue ou Geneviève de Brabant* eta gero Biarnon *L'histoire de Geneviève de Brabant*, Britainian ere *Le mystère de Geneviève de Brabant* edo *Tragédie de Sainte Geneviève*, Flandesetan XVIII. mendean bai neerlandez, bai frantsesez eta Italian XIX. mendean.

Ziberotar pastorala gai horretaz baliatu zen. XVIII. mendeko bukarakoa da Pariseko "Bibliothèque nationale" delakoan dagoen esku izkri-

buia, 1123 berset dauzkana, eta Pierre Fourcade dit Hilloton pastoral errejentak jokaerazi zuen Maulen 1802ko Urtarrilaren 13an. Geroztik emana izan da Landan 1839an eta berriz ere Maulen 1846an. Dirudie-nez arrakasta haundia ukan zukeen, neskek emanikako pastoral bilakatu baitzen, Maulen jokatua lehenik 1849an, Uharte Garazin gero 1863an eta Muntorin azkenik 1878an. Orotarat sei jokaldi XIX. mendean.

Horiek horrela, nahi nituzke orain agurtu eta denbora berean esker-tu Gregorio Arrue-ren ohoretan mintzatuko direnak. Aita Karmelo Iturria-ren txostena da: "Gregorio Arrue-ren biografia". Maite Etxaniz anderea-ren txostenaren titulua da: "Gregorio Arrue-ren Santa Genobebaz beste zer bait" eta Jose Antonio Arana Martija euskaltzainaren mintzaldia: "Gregorio Arrue Mazoren lehen itzultzailea".

Eskerrik asko.

GREGORIO ARRUEREN BIOGRAFIA

Karmelo Iturria

Zarautz, 1990-IV-20

Gaurko egunez ehun urte, hain zuzen ere, eta hementxe bertan, Zarautzen, eta leku honetatik oso hurre, Kale Nagusiko 39. zenbakian, “Etxezabala” deituriko etxean, hil zitzaigun Gregorio Arrue euskal idazle joria, 1890.go Apirilaren 20ean. Hari omenaldi hau eskaintzen dio Zarautzko Udalak Euskaltzaindiarekin batera.

JAIOTZA ETA LEHEN URTEAK

Hernanin jaioa zen Gregorio Arrue, 1811. urteko Maiatzaren 2lan, baina Zarautzko Udaletzeko agirietan ikusi ahal izan dugunez, hiru urte besterik ez zituela etorri zen Arruetar familia osoa gure herrira, bertan bere bizilekua jarriaz, lehen esandako etxean hain zuzen. Orduan, zarautzarrok herritartzat hartzeko eskubidea badugula deritzot. “Basarri” bertso-laria, errezildarra izanik, sei-zazpi urte zituela Zarautza bizitzera etorri zela-eta, zarautzartzat hartzen baldin badugu, arrazoi eta eskubide osoz zarautzar bezala har dezakegula uste dut baita Gregorio Arrue ere. Bego hau kontutan! Ez hori bakarrik. Ia bere bizitza osoa Zarautzen eman zuen eta hementxe bertan hil zen bati, bidezkoa dela deritzogu zarautzar izena ematea. Hernaniko herriari ezer kendu gabe noski! Fausto Arozena historilariak berak ere zera dio Euskalerriko Adiskideen Boletinean: “Y mozo aun, se traslado a Zarautz, en donde afinco su residencia, de suerte que se le tiene por muchos como nacido en la veraniega poblacion guipuzcoana, en la que murio en abril de 1890” (1). Horrek esan nahi du Zarautzen egin zituela lehenengo ikasketak, Zarautzen zapaldu zuela lehenengo aldiz eskola, Zarautzen hartu zuela Sendotzako sakramentua, Zarautzen egin zuela Lehenengo Jaunartzea, eta Zarautzik joan zela Arantzazura fraile izateko asmoz, geroago ikusiko dugunez, Zarautzen

(1) Fausto Arocena: «La versión guipuzcoana del “Peru Abarca”, de Moguel», BRSAP, 1948, 166 or.

egon zela urte askotan eskola-maisu bezala, Zarauzko Udalan izan zela idazkari, eta azkenik Zarautzen hil zela gaur hain zuzen ehun urte. Zer gehiago behar dugu zarautzartzat hartua izateko?

Gregorio Arrue euskal idazlearen bataio-agiriak honela dio: “En veinte y dos de mayo de mil ochocientos y once Yo el infraescrito Vicario bautice á un niño, que nacio á las nueve y media de la noche de ayer, hijo legitimo de Juan Antonio de Arruebarrena (*barrena* hau gainetik ezabatua dago), natural del lugar de Berrobi y de Maria Ascensión de Errezola, natural de Alvistur: sus abuelos paternos Joaquin de Arruebarrena (berriro ere *barrena* ezabatua) natural también de Berrobi y Maria Francisca de Barandiaran natural de Tolosa; y los maternos Francisco de Errezola, natural de Beasain y Maria Joaquina de Loperegui natural de Goyaz; pusieronle por nombre Gregorio y fueron padrinos Patricio de Erreycenea y Maria Antonia de Yarza en nombre de Gregorio Arrola y Francisca de Yanci, á quienes adeverti el parentesco de la cognacion espiritual y la obligacion de instruirle en la Doctrina Christiana. D. Elías de Ugalde” (2).

Izen-deiturei buruz zenbait xehetasun: Izena hemen Gregorio bakarririk agertzen da, baina Sendotzako agirian eta Arantzazukoan *Gregorio Antonio*. Bigarren deitura hemen Errezola azaltzen da, baina geroko beste agiri gehienetan *Rezola*. Arruebarrena deiturari dagokionez, berriz, bataio-agirian bertan eskuineko ohar batean hauxe dager: “En virtud del auto despachado a nueve de enero de mil ochocientos veinte y nueve (Gregoriok hemezortzi urte zituelarik, beraz) por el Dr. D. Casildo Goyena Provisor y Vicario General de este Obispado a peticion del procurador de la parte D. Pedro Xavier Astrain se camvio el apellido Arruebarrena, poniendo en su lugar Arrue; borrando el aditamento *barrena*. Erice Vic.”. Horra auzia garbitua!

Juan Antonio Arruebarrenak eta Maria Aszension Errezolak hiru seme-alaba izan zituzten: Maria Magdalena Frantziska, zaharrena, Gregorio Antonio bigarrena, eta Mikaela Josefa gazteena, 1816.ean jaioa. Hala azaltzen da beren sendotza-agirian. Zortzi urte zituela hartu zuen gure Gregoriok Sendotzako sakramentua. Honela dio agiriak: “Don Jose de Alzolavea Presbitero Vicario, Cura propio de la Iglesia Parroquial, matriz, Santa Maria la Real de la N. y L. villa de Zarauz, certifico, que el dia miercoles veinte, y ocho de julio de mil ochocientos diez y nueve, administro el Santo Sacramento de la Confirmacion el Ilmo. Sr. D. Joaquin Xavier de Uriz, y Lasaga, Obispo de Pamplona á los que anotaré en seguida, siendo padrinos de todos Dn. Fausto Ignacio de Corral, y Azlor, y Da. Manuela Suelves, y Azlor, Señores de la Casa de Zarauz”.

(2) Elizbarrutiko Artxibategia, Donostia: *Libros Parroquiales, Parroquia de Hernani* (7), Libro 7.º de Bautizados, 1799-1831, 90 v. folioa.

Eta ondoren, banan-banan haurren izen-deiturak ipintzen ditu, alfabetikoki, A letratik hasita. Hirugarren folioan azaltzen dira hiru anai-arrebak: Maria Magdalena Frantziska, Gregorio Antonio eta Mikaela Josefa. Eta laugarrenean, berriz, Lazaro Valentin (1811), Jose Maria Matias (1814), Pedro Jose Joaquin (1816), eta Maria Magdalena Rafaela (1817) Balanzategui Altuna, azkenengo hau gure Gregorioren lehenengo emaztea izan zena, lauak Zarautzen jaiok, eta Bizente de Balanzategi eta Josepha Isidora Antonia Altunaren seme-alabak.

Eta honela amaitzen da Sendotza-agiria: “Y, para que conste quanto en estas doce ojas llevo anotado, firmaré yo el Vicario de Zarauz, advirtiendo, que de los confirmados en Aya no fueron Padrinos los expresados en el encavezamiento de este rol de Zarauz; nueve de septiembre de mil ochocientos, y diez, y nueve. Dn. Jose de Alzolavea” (3).

621 haurrek hartu zuten Sendotzako sakramentua. Horietatik 8 sasikumeak, eta 6 Orion bizi zirenak. Beste 7 izen ere azaltzen dira, Zarautzen bizi zirenak baina Sendotza Aian hartu zutenak, urte bereko Uztailaren 29.ean.

Zarauztarrantzat interesgarri denez, hemen ipintzen ditut jasota gehien agertzen diren deiturak: Eizagirre 25 aldiz, Amilibia 23 bider, eta Bonetxea 21 aldiz. Gero, Aeta, Aginaga, Agirre, Agote, Aiestaran, Aizpuru, Alberdi, Albisu, Alkorta, Aldabaldetreku, Altuna, Alzuru, Amezti, Ameztoi, Aranburu, Arruti, Azpiazu, Arzalluz, Azkue, Balanzategi, Berazadi, Biquendi, Txapartegi, Zendoia, Cisnaga, Korta, Dorronsoro, Etxaide, Etxaniz, Etxabe, Etxenagusia, Etxebeste, Etxeberria, Etxezarreta, Egibar, Elberdin, Esnal, Galdos, Garate, Garmendia, Gereka, Goenaga, Gurmendi, Iburguren, Iburutzeta, Iburuzketa, Illarramendi, Inarga, Intxausti, Indo, Iribar, Iruretagoiena, Izeta, Jauregi, Labaka, Laburu, Landa, Lazkano, Leunda, Lizaso, Makatzaga, Maiz, Manzisidor, Manterola, Mendizabal, Mitxelena, Munita, Murua, Nafarrete, Narbaiza, Oiarzabal, Olazabal, Oliben, Ostolatza, Otegi, Roteta, Sagarna, Salegi, Segurola, Sorazu, Sorreluz, Soroa, Uranga, Uria, Usandizaga, Uzcanga, Uzkudun, Zaldive, Zara, Zubiaurre, Zulaika, Zumeta, Zuzuarregi, etabar.

ARANTZAZURA FRAILE

Hemezortzi urte beterik zituela, Arantzazuko Santutegira joan zen Gregorio Arrue, frantziskotar fraile izateko asmotan. Zalantzarik gabe, pentsatzekoa da ordurako Zarauzko fraileekin harremanak izango zituela. Baziren orduan Zarauzko komentuan Euskal Literaturan oso ezagu-

(3) Zarauzko Parrokiako Artxiboa: Libro 3.º de Confirmados, años 1819-1890, 1 folioa eta hur.

nak diren frantziskotarrak, hala nola, Aita Pedro Antonio Añibarro, Aita Juan Mateo Zabala, Aita Jose Kruz Etxeberria, eta Aita Kristobal Linaza, besteak beste. Aita Añibarro gure Gregorio Arantzazura joan eta hurrengo urtean hil zen Zarautzen, artean Arrue Arantzazun zelarik. Aita Zabala, berriz, handik hamar urte geroago hil zen, 1840. urtean. Baliteke, bada, honekin harekin baino harreman gehiago izatea. Eta baita Aita Etxeberria, Linaza eta besteekin ere, geroago hilak bait dira, baina denak Gregorio Arrue oraindik bizirik zegoela. Baina hauek usteak eta susmoak dira, inolako agiritan oinarritu gabeak. Halere, geroago ikusiko dugunez, Arruek berak ematen digu horretaz pentsatzeko arrazoirik, hemengo frantziskotarrekin izan zituen harremanak aipatzerakoan.

Bada Arantzazuko Artxibuko Liburu zahar batean agiri bat, Gregorio Arrueren habitu hartzearen eta Arantzazutik irtetearen berri ematen diguna. Honela dio: “En cinco de Diciembre de mil ochocientos veinte y nueve yo Fr. Jose de Ugartondo Maestro de novicios 1.º y Guardian de este Convento de la Madre de Dios de Aranzazu di el habito de nuestra sagrada Religion para Coro á Gregorio Antonio de Arrue hijo legitimo de Antonio de Arrue natural del lugar de Berrobi, y de Maria Ascension de Errezola natural de Albistur: con remision de N.M.R.P. Provincial Fr. Juan Ruiz dando el debido cumplimiento á lo que ordenan nuestras Constituciones Generales. Fue bautizado en veinte y dos de Mayo de mil ochocientos once = Y para que conste firmé con el Discreto mas antiguo y dcho novicio; dichos dia, mes y año. (Se le dio á las siete de la mañana). Fr. José de Ugartondo, Guardian = Fr. Jose de Echeverria Pred. conv. 1.º = Gregorio Ant.º de Arrue”. Eta ondoren hauxe: “El mencionado novicio Gregorio Ant.º de Arrue fue expelido por enfermo de orden del R.P. Prov. Fr. Damaso Suso, é intimadole dicha orden en presencia del P. Guardn, y Discretos marchó a su casa con su padre el dia 15 de Febrero de 1831. Fr. Jose de Ugartondo, Guardian” (4).

Urtebete eta bi hilabete iraun zuen, bada, Gregorio Arruek frantziskotar habituz jantzita. Ez zuen, ez, garai egokia aukeratu Arantzazura joateko, hango paraje haietan Abenduan hotzak, ekaitzak eta eurite eta elurteak ugariak bait dira. Eta gaisorik egonez gero, nork jasan hango giro gogorra!

GREGORIO ARRUE ESKOLA MAISU. EZKONTZAK ETA SEME-ALABAK

Zarautzen dugu, bada, berriro ere, gure Gregorio. Eta aurki ikusten dugu berriz zerbait egiten. Zer eta Eskola Maisu, alajaina! Handik hiru

(4) Arantzazuko Artxibategia: *Libro de Recepciones y Profesionas de Novicios en Aranzazu*, 1753-1833-XIII, 133. folioa.

urtetara hasia da iadanik eskolak ematen, 1834. urtean hain zuzen. Ez dakigu non egin zituen Maisu ikasketak, baina Donostian edo egingo zituela pentsatzekoa da, Oñatin egin ez bazituen. Eskolak ematen ari zen, bai, baina ba al zuen Maisu titulurik? Honetaz aurkitu ahal izan dugun agiri bakarra, Hernaniko Kultur Etxe ederreko Artxibokoa da, eta bertako artxibari gazte eta prestuari esker jaso. Honela dio: “Hallandose en mi poder un titulo de Maestro de Instruccion primaria elemental expedido á favor de D. Gregorio de Arrue natural de esta Villa, se servira v. manifestar al interesado se presente en la Secretaria de este Gobierno de Provincia, á firmar y recoger dicho titulo. Dios que guarde a V. muchos años. Tolosa, 27 de Octubre de 1850. (Izen-deiturak ulertezinak) Al Alcalde de Hernani” (5). 1850. urtean gaude, beraz.

Ordurako Gregorio Arruek bere bizitzan pausu garrantzitsuak emanak zituen: ezkondata zegoen, horra! Arantzazutik irten eta handik sei urtetara ezkondu zen, 26 urte betetzear zituelarik, lehen berarekin batera Sendotza hartzen ikusi dugun Maria Magdalena Rafela Balanzategirekin. Honela dio ezkontza-agiriak: “En diecisiete de Mayo de mil ochocientos treinta y siete yo Dn. Miguel de Lazcano vicario interino de la Iglesia Parroquial Santa Maria la Real de esta villa de Zarauz, asisti y me halle presente al Santo Sacramento del Matrimonio que conforme manda la Santa Madre Iglesia, y el Santo Concilio de Trento, contrajeron entre si por palabra de presente Dn. Gregorio de Arrue, soltero, natural de Hernani, hijo legitimo de Juan Antonio Arrue, natural de Berrobi, y de Maria Ascensión de Rezola natural de Albistur, residentes en Zarauz: y Da. Maria Magdalena Rafaela de Balanzategui, soltera natural de Zarauz, hija legitima de Dn. Vicente de Balanzategui natural de Mondragon residente en Zarauz, y de Da. Maria Josefa de Altuna natural de Zarauz, difunta. Para cuya celebracion precedieron las tres proclamas que dispone el Santo Concilio de Trento en esta Iglesia Parroquial tan solamente por quanto el dicho Gregorio ha residido en esta villa desde la edad de tres años: la confesion y comunion que recibieron en la misa nupcial que oyeron, y aunque no hubo consentimiento de parte de Dn. Vicente Balanzategui (emaztearen aita bera), que no quiso prestar, pidio por tribunal secular, y el Juez mando se casasen sin dilacion. Y no habiendo resultado impedimento alguno, se hallaron presentes por testigos Dn. Joaquin de Amilivia, Andres Alberdi, y Miguel Ramon de Gorriaran, naturales de Zarauz, donde residen: Y para que conste firmo, Dn. Miguel de Lazcano” (6).

Hiru seme-alaba izan zituen Gregorio Arruek Maria Magdalena Balanzategirekin: Joan Kruz Ramon Nonnato, Josefa Joakina, eta Gregorio

(5) Hernaniko Artxiboa, B-5-1-1, Exp. 3.

(6) Elizbarrutiko Artxibategia, Donostia: *Libros Parroquiales, Parroquia de Zarauz* (9), Libro 5 de Casados, 1819-1841, 16 zenb. 143. folioa.

Antonio. Lehentxeago ikusi dugun ezkontza-agiritik antzeman zitekeen, ezkondu zireneko, haurdun zegoen Maria Magdalena bere emaztea, ezkondu eta handik bost hilabetetara jaio bait zen lehenengo semea, Joan Kruz Ramon Nonnato. Hona bere bataio-agiriak dioena: “En veinticuatro de Noviembre de mil ochocientos y treinta y siete yo Dn. Miguel de Lazcano presbitero Vicario interino de la Iglesia Parroquial Santa Maria la Real de esta Villa de Zarauz bautize solemnemente en dicha Iglesia a un niño que segun me informaron nació á las dos de la misma tarde, hijo legitimo de Dn. Gregorio de Arrue natural de Hernani y Da. Maria Magdalena Rafaela de Balanzategui, natural de Zarauz donde residen: Abuelos paternos Juan Antonio de Arrue, natural del lugar de Berrobi, y de Maria Ascension de Rezola, natural de Albistur, residentes en Zarauz: Maternos Dn. Vicente de Balanzategui, natural de Mondragon, residente en Zarauz y Da. Maria Josefa de Altuna natural de Zarauz, difunta: pusosele por nombre Juan de la Cruz, Ramon Nonnato: Fueron sus padrinos sus abuelos paternos a quienes adverti el parentesco espiritual y demas obligaciones, y firmo Dn. Miguel de Lazcano” (7).

Handik bi urte eta bi hilabetetara jaio zitzaion bigarrena, alaba, Josefa Joakina, 1840.urteko Urtarrilaren 27an. Eta honengandik beste bi urtetara hirugarrena, semea, Gregorio Antonio, 1842. urteko Maiatzaren 12an. Josefa Joakinaren bataio-agiriak honela dio: “En veinte y siete de Enero de mil ochocientos cuarenta, yo Dn. Miguel Jose de Alzuru Presbitero Beneficiado Coadjutor de Vicario de la Iglesia Parroquial Santa Maria la Real de esta Villa de Zarauz con comision de Dn. Fco. Placido de Segura Presbitero Vicario interino de la misma, bautice solemnemente en ella á una niña que nació á las cinco de la tarde de ayer, hija legitima de Dn. Gregorio de Arrue, natural de Hernani, y de Da. Maria Magdalena Rafaela de Balanzategui, natural de esta, donde residen: abuelos paternos Juan Antonio de Arrue, natural de Berrobi, y Maria de la Ascension (sic) de Rezola, natural de Albistur, maternos Dn. Vicente de Balanzategui natural de Mondragon, y Da. Josefa de Altuna natural de Zarauz, difunta: pusosele por nombre Josefa Joaquina: fueron sus padrinos Dn. Joaquin de Amilivia, y Da. Micaela Josefa de Balanzategui naturales de Zarauz, donde residen, á quienes adverti el parentesco espiritual y demas obligaciones, y firmamos ambos. Dn. Miguel Jose de Alzuru Dn. Franco Placido de Segura” (8). Eta hona Gregorio Antonioren bataio-agiriak dioena: “En doce de Marzo de mil ochocientos y cuarenta y dos, yo Dn. Fco. Placido de Segura Presbitero Vicario interino de la Iglesia Parroquial Santa Maria la Real de la Villa de Zarauz, bautice solemnemente á un niño que nacio a las nueve y media de su

(7) Ibid.: *Libros Parroquiales, Parroquia de Zarauz* (6), Libro 6.º de Bautizados, años 1826-1858, 53 zenb., 129. folioa.

(8) Ibid. *ibid.*, 7 zenb., 147 v. folioa.

mañana, hijo legítimo... (lehen bezala): abuelos paternos (lehen bezala) residentes en Zarauz: maternos Dn. Vicente de Balanzategui natural de Mondragon, residente en la Provincia de Leon, y Da. Josefa Altuna, natural de Zarauz, difunta. Pusosele por nombre Gregorio Antonio: fue su padrino el abuelo paterno, á quien adverti el parentesco espiritual, y demas obligaciones, y firme. Dn. Franco Placido de Segura” (9).

Ez zuen zorte haundirik izan Gregoriok Maria Magdalena bere emaztearekin, hirugarren semea izan eta handik lau hilabetetara zendu egin bait zitzaion, 1842. urteko Irailaren 6an hain zuzen, 24 urte besterik ez zituelarik. Honela dio bere heriotz-agiriak: “En seis de Septiembre de mil ochocientos cuarenta y dos murio Da. Maria Magdalena de Balanzategui de edad de 24 años, natural de esta de Zarauz, casada con Dn. Gregorio de Arrue natural de Hernani, parroquianos de Zarauz: recibio los santos sacramentos de penitencia, viatico, y extremauncion; no testó. Al día siguiente su cadaver fue conducido a esta Iglesia Parroquial, donde se le hicieron los sufragios acostumbrados, y desde ella fue trasladado al cementerio de la Villa, donde fue sepultado. Y para que conste firmo yo el vicario interino Dn. Franco. Placido de Segura” (10).

Gure Gregorio emazterik gabe bakarrik gelditu zen. Bakarrik ez, berarekin bait zituen bere gurasoak eta bere hiru seme-alabak. Baina ezin zuen etsi emakumerik gabe nonbait eta handik hiru hilabete t’erdira berriro ezkontzen da, oraingoan Tolosan, Beasaingo alaba batekin, Josefa Antonia Leundarekin, alegia. Hona ezkontza-agiri honek dioena: “Dia veinte y siete de Diciembre de mil ochocientos cuarenta y dos, habiendo publicado las tres proclamas en la Parroquial de Zarauz, y en esta de Tolosa, de las cuales no resulta impedimento alguno, enterado del consentimiento grádual de los interesados de los contrayentes (sic), y de que habiendo sido aprobados en la Doctrina Cristiana recibieron los Santos Sacramentos de la penitencia y comunión, yo el infto Vicario interino de la Parroquial Santa Maria de esta dicha villa asisti al Matrimonio que por palabras de presente y como lo manda la Santa Madre Iglesia contrajeron Dn. Gregorio Arrue, natural de Hernani y vecino de Zarauz, de edad de treinta y dos años, viudo de Da. Maria Magdalena de Balanzategui, de profesion maestro de primera educacion, y Da. Josefa Antonia Leunda, natural de Beasain y vecina de Tolosa de edad de treinta años, soltera: Padres del contrayente Dn. Juan Antonio de Arrue, natural de Berrobi, su profesion Labrador, y Da. Maria Ascension Rezola, natural de Alvis-tur y vecinos de Zarauz: Padres de la contrayente, Juan Bautista Leunda, su profesion Labrador y Maria Nicolasa Elizalde, naturales de Beasain ya

(9) Ibid. ibid., 13 zenb., 167. folioa.

(10) Ibid.: *Libros Parroquiales, Parroquia de Zarauz* (14), Libro 4.º de Finados, 1836-1885, 38 zenb., 32 folioa.

difuntos: siendo testigos Dn. Manuel Iñarra, natural de Vergara y vecino de Tolosa, y Dn. Manuel Gonzalez, natural de Aya y vecino de Zarauz, sita en esta Prov. de Guipuzcoa. Y porque conste firmo Dn. José Francisco de Elizarán” (11).

Bigarren emazte honekin beste hiru seme-alaba izan zituen: Jose Maria Frantzisko, Maria Balbina eta Frantziska Ignazia. Hiruen bataio-agiriak ipiniko ditut hemen laburbilduta: 1) *Jose Maria Frantziskorena*: “En cinco de Febrero de mil ochocientos cuarenta y cuatro yo Dn. Franco Placido de Segura (lehen bezala) bautice solemnemente en ella á un niño que nacio a la seis de la mañana del mismo dia, hijo legitimo... (lehen bezala) y de Da. Josefa Antonia de Leunda, natural de Beasain, parroquianos de Zarauz: abuelos paternos... residentes en Zarauz: maternos Juan Bautista de Leunda, y Nicolasa de Elizalde naturales de Beasain difuntos. Pusosele por nombre Jose Maria Francisco: fue su madrina Francisca de Narbaiza, natural y parroquiana de Zarauz... (lehen bezala)” (12). 2) *Maria Balbinarena*: “En treinta y uno de Marzo de mil ochocientos cuarenta y seis, yo el infraescrito Presbitero vicario propio de la Iglesia Parroquial Santa Maria la Real de la N. y L. villa de Zarauz, bautice solemnemente y puse por nombre Maria Balbina á una niña que me informaron haber nacido a las seis y media de la mañana del mismo dia, hija legitima... (lehen bezala) y parroquianos mios, nieta por la linea paterna de Juan Antonio natural de Berrobi y Maria de la Asuncion (sic) de Rezola, natural de Albistur y parroquianos mios: por la materna de Juan Bautista y Maria Nicolasa de Elizalde, naturales de Beasain, ya difuntos. Fue su Madrina Maria Carmen de Uzcanga, natural de Deva y parroquiana mía, a quien adverti el parentesco espiritual y demas obligaciones que contrajo. Y para que conste firmo yo el vicario Dn. Luis de Guereca” (13). 3) *Frantziska Ignaziarena*: “En nueve de Marzo de mil

(11) Ibid.: *Libros Parroquiales, Parroquia de Santa María de Tolosa*, Libro 8 de Casados, 1806-1847, 127 zenb., 269 v. folioa. Zarauzko Parrokiako Artxiboan ere bada ezkontza honen berri: *Libro de Velados que dio en principio en cuatro de Septiembre de mil setecientos tres hasta mil ochocientos setenta y dos*: “En catorce de Junio de mil ochocientos cuarenta y tres recibieron las bendiciones, y oyeron la misa nupcial por mi ministerio Dn. Gregorio de Arrue natural de Hernani y Josefa Antonia de Leunda natural de Beasain, parroquianos de Zarauz, casados en Tolosa. Y para que conste firmo yo el vicario interino. Dn. Franco Placido de Segura”, 1843, 83 folioa. Eta beste liburu honetan ere bai: *Libro 6.º de Casados y Velados de la Parroquia de Zarauz, 1842-1892*: “Dia veinte y seis de Diciembre de mil ochocientos cuarenta y dos di certificado de haber hecho en esta Iglesia Parroquial las tres proclamas, y no haber resultado impedimento para el matrimonio, que intentan contraer en Tolosa Dn. Gregorio de Arrue, parroquiano de Zarauz, y Josefa Antonia de Leunda, parroquiana de Tolosa. Y para que conste firmo yo el vicario interino Dn. Franco Placido de Segura”, 1842, 6 folioa.

(12) Ibid.: *Libros Parroquiales, Parroquia de Zarauz* (6), Libro 6.º de Bautizados, años 1826-1858, 11 zenb., 183 folioa.

(13) Ibid. ibid., 12 zenb., 202 v. folioa.

ochocientos cuarenta y nueve, yo el infraescrito... (lehen bezala) y puse por nombre Francisca Ignacia á una niña que nació á las cinco de la tarde precedente, hija legitima... nieta por la linea paterna de Juan Antonio natural de Berrobi y todos tres parroquianos míos, y Maria de la Asuncion de Rezola natural de Albistur difunta: y por la materna de... difuntos. Fueron Padrinos Ignacio Fco. Jose de Iburuzqueta natural de Zarauz y Micaela de Zabalo, natural de Vergara, y parroquianos míos, á quienes advertí el parentesco espiritual y obligaciones que contrajeron. Y para que conste firmo yo el vicario Dn. Luis de Guereca” (14).

Sei seme-alabekin eta bere aitarekin bizi zelarik, nahiko lan bazuen Gregoriok etxean eta kanpoan. Ama, Maria Aszension (*Asunzion* beste agiri batzutan) Rezola, seigarren alaba jaio baino bi urte aurretik hil zitzaion, 1847.urteko Otsailaren lehenengo egunean, 78 urte zituelarik. Hona bere heriotz-agiriak dioena: “En uno de Febrero de mil ochocientos cuarenta y siete murió en esta villa de Zarauz, de edad de setenta y ocho años, Maria de la Asuncion de Rezola, natural de Albistur, casada con Juan Antonio de Arrue, natural de Berrobi y parroquianos míos: recibí los Santos Sacramentos de la Penitencia, viatico y sub condicione la Extrema unción: no testo: al siguiente dia fue conducido su cadaver a la Iglesia Parroquial de esta Villa, y hechos los sufragios de costumbre, fue trasladado al Cementerio de la misma, donde yace sepultado. Y para que conste firmo yo el vicario Dn. Luis de Guereca” (15).

1849. urteko Urriaren 5ean, berriro ere Sendotzak izan ziren Zarautzen. Eta oraingo honetan, Sendotza harturikoen artean, Gregorio Arrueren azkenengo hiru seme-alabak azaltzen dira, arestian aipatu ditugunak. Baina zeharo harritzekoa: beste hiruak, lehenengo emaztearekin izan zituenak ez dira agertzen. Zer pasa ote zen? Ez ba jakin! Eta ez da txantxetako gauza: lehen esan dugu Gregoriok berak eta bere lehenengo emazteak, Maria Magdalena Balanzategik, 1819. urteko Uztailaren 28an hartu zutela Sendotzako sakramentua. Handik hiru urtetara heldu zen berriro Iruñeko Gotzaina Sendotza ematera, 1832. urteko Urriaren 17an hain zuzen. Gregorio artean ezkongabea zen. 740 haurrek hartu zuten orduan Sendotza: 346 gizakumek eta 374 emakumek. Iruñeko Gotzaina Sebero Adriani Jauna. 1849. urtean berriro ere Gotzain berbera dator Zarautza Sendotza ematera. Bitarte horretan ez da agertzen Iruñeko Gotzainaren Pastoral Ikustaldirik, ez Sendotza ematerik. Eta azkenengo honetan Gregorio Arrueren azkenengo hiru seme-alabek hartzen dute Sendotza eta lehenengo hiruek ez. Horra misterioa, eta oraingoz ezin argituzko misterioa noski! On Luis Gereka zen urte hartan Zarauzko

(14) Ibid. ibid., 12 zenb., 221 folioa.

(15) Ibid.: *Libros Parroquiales, Parroquia de Zarauz* (14), Libro 4.º de Finados, 1836-1885, 7 zenb., 48 v. folioa.

Bikario berria, Zarauzko semea bera. Honela dio agiriari: “D. Luis de Guereca, Presbitero, Cura propio de la Iglesia Parroquial matriz Santa Maria la Real de la N. y L. villa de Zarauz: Certifico que el dia viernes cinco de Octubre de mil ochocientos cuarenta y nueve administró en ella el Santo Sacramento de la Confirmación el Exmo. é Illmo. Sr. Dr. Severo Adriani, Obispo de Pamplona, Senador del Reyno, del Consejo de S.M., á los que anotaré en seguida; siendo Padrinos de todos los Sres. D. Manuel Maria de Areizaga y Da. Josefa de Corral, Marqueses de Narros, vecinos de esta Villa” (16). Narrosko Markesak izan ohi ziren nonbait aspaldiko garai haietan Sendotza hartzen zuten haurren aita-amabitxi. 799 haurrek hartu zuten orduan Sendotzako sakramentua: 404 gizakumek eta 395 emakumek. Haien artean 11 sasikume.

GREGORIO ARRUE EUSKAL IDAZLE ETA ITZULTZAILE

Bienbitartean, Gregorio Arrue lanean ari da jo eta ke, bai eskolak ematen, bai beste zeregin berezi batean ihardunaz: erdaratik euskarara liburuak itzultzen, alegia. Ez zen nolana hiko lana noski! 1858. urtean argitaratu zuen lehenengo aldiz Donostian Santiago Mazo apaizaren “Cristauaren Dotrinaren jaquinbide azaldua”, geroago beste argitalpenak ere izango zituen liburua. Handik bost urtetara, 1863. urtean azalduko da “Cristauaren escu liburua”; hau ere geroago behin eta berriz argitaratua izango da. 1866. urtean argitaratzen du “Aita San Ignazio gloriosoaren bicitza, Azpeiti-Azcoitietaco person ascoren erreguz”, hau ere geroago berrargitaratua. Eta horrela ekingo dio etengabe liburuak itzultzeari eta argitaratzeari. Nondik ateratzen ote zuen nahiko asti gure on Gregoriok, eskola maisu bezala zituen zereginen artean, hainbat eta hainbat liburu euskaratzeko eta argitaratzeko? Lan eskerga benetan urte haietan Gregorio Arrue pijoak burutu zuena! Ez bait da txantxetako kontua, eskola ordu nekagarriak jasan ondoren, halako liburu pila euskaratzeko beta aurkitzea... Benetan urte oparoak eta joriak haietxek Gregorio Arrueren bizitzan! Eta horrela azaltzen dira bata bestearen ondoren, “Baserritar jaquintsuaren echecho escola D. Juan Jose Moguel Marquinaco apaizac vizcai-eusqueran atera eta D. Gregorio Arruec Guipuzcoacoan itzulia” 1878. urtean, “Oracio mental edo pensamentuzcoa iduquitzecho gai egoquiac escu-liburua, Jesusen compañoico Aita Villacastiñooc Gaztelaniaz eguin zuenetic D. Gregorio Arruec eusquerara itzulia”, 1880.ean. Eta hurrengo urtean, 1881.ean, “Mariaren Gloriac, San Alfonso Ligoriooc eguin eta Jesusen Compañiaco aita Ramon Garciac gaztelaniara itzuli

(16) Zarauzko Parrokiako Artxiboa: Libro 3.º de Confirmados, años 1819-1890, 29 eta 33. folioak.

zuanetic D. Gregorio Arruec eusqueraz ipiñia”. Eta 1883. urtean, “Jesusen Biotzaren debocioa eracusteco Jesusen Compañiaco aita Sebastian Mendiburuc nafar eusqueran atera zuan liburutic D. Gregorio Arruec Guipuzcoara itzulia”. Eta urte hartan bertan, “Sarritaco Comunioaren ganean Segur Jaunac francesez eguin zuan liburua D. Gregorio Arruec eusquerara itzulia”. Eta urte berean, “Salvacioco Aingura edo bertutean biciro aurreratceco cristauai bide eta gai egoquiac... Jesusen compañiaco aita Jose Machec gaztelaniaz eguin eta D. Gregorio Arruec eusquerara itzulia”. Urte berean hiru liburu argitaratuak, alajaina! Hurrengo urtean, 1884.ean, “Cristau eguiazcoaren jauntasun aundi eta arrazoi-bide zuena”. Eta hurrengoan, bere libururik ezagunena eta famatuena, “Brabanteco Genovevaren bicitz arrigarri miragarria, Cristobal Schmid-ec eguin eta eusquerara itzulia D. Gregorio Arruec”, duela hogeita hamar urte Zarauzko Itxaropena argitaldaria bere Kulixka Sortan berriro argitaratua. Eta 1886. urtean, “Cerura igotzeco escallera gaztelaniazco cenbait liburu esleitutatic atera eta D. Gregorio Arruec eusqueraz ipiñia” (17).

Eta hurrengo urteetan beste liburu eta liburuxkak, bederatiurrenak eta beste. Ez bait dago hemen zerrenda osoa ipini beharrik eta ipintzerik ere! Harrigarria benetan Gregorio Arrueren lana! Ez zuen denbora alferrik galdu, ez! Aipatzekoa da bereziki hura hil ondoren argitaratu zen Juan Antonio Mogelen “Peru Abarca” liburu famatua, bizkaieratik gipuzkerara Gregorio Arruec aldatua. Liburu honetan hain zuzen azaltzen dira, sarrera aurreko ohar batean, nik lehenago aipatu nahi izan ditudan hitzak, Zarauzko frantziskotar fraileekiko harremani buruzkoak, alegia. Honela dio: “Existiendo en poder de varias personas copias manuscritas de esta utilísima obra, llenas en general de defectos, se advierte que esta versión se ha hecho del original que se conserva en el convento de los RR.PP. Franciscanos de Zarauz los que se han prestado generosamente a facilitárnoslo en aras del movimiento bascófilo que felizmente se desarrolla de día en día de muy pocos años a esta parte” (18). Halaxe da: “Peru Abarka” liburuaren esku-izkribua gure komentuko artxiboan aurkitzen da, aspalditxotik ezaguna denez. Honek esan nahi du, Gregorio Arruec harreman estuak zituela gure Zarauzko komentuko fraileekin. Lehen eman ditugu ezagun zitzakeen fraile batzuen izenak. Jakina da, Zarauzko fraileek, beste komentutako hainbatek bezala, 1840. urtean komentutik irten egin behar izan zutela, komentutik jaurtikiak eta barreiatuak izan zirela. Ordutik aurrera, 1878. urtean behin betiko —oraingoz noski!— hona itzuli arte, gure Zarauzko komentuak gorabehera asko izan zuen, eta orain gauza baterako bihar besterako erabilia izan zen. Eskolak emateko ere bai. Eta badakigu hementxe eman zituela bolara batean

(17) Fausto Arocena: «La versión guipuzcoana del “Peru Abarca”, de Moguel», BRSAP, 168-170 or.

(18) Ibid., 176 or.

Gregorio Arruek bere eskolak, eta gure komentuan bertan ere aldi batez bizi izan zela, nahiz eta bere etxea Kale Nagusian eduki. Urte hauetan izan zuen hain zuzen ere Guillermo van Eys eta bere emazte Matilderen bisita. Bi urtetan heldu ziren gure herrira holandar senar-emazte hauek: 1866. eta 1868. urtetan. Matilde emazteak ematen digu zehatz-mehatz ikustaldi horien berri. Oso hizkera gozo eta politean kontatu ere. Honela dio (neuk euskaratu dut noski): “Nire senarrak Arrue jauna ezagutu zuen, komentu zahar batean bizi zen eskola maisua (gure komentua da noski). Ez ditut gauzak zehazki gogoratzen, baina badaiteke nire senarrak hotelean genuen gela kaskarra zela komentatzea, eta Arruek bere etxean gela bat eskaini zigun alokairuan. Dena den, komentu zaharrera joan ginen logela zuen gela batera, nahiko alaiia bera. Baina onena onaren etsai dela egia baldin bada, txarra noski txarrena baino hobea da. Bi ohe zituen gela horrek, bata gelan bertan eta bestea barrurago. Azkenengo honetan sartu nintzen ni; egun batzuk bakarrik neramatzan erabiltzen eta senarrari arkakosoak zirela-eta nire kexua azaldu nion; nire senarrak, sinetsi ezinik, “nire irudipenak” zirela esan zidan eta oheaz aldatzea proposatu. Nik baietz eta bera komentzi zedin zain egon nintzen; ez zen denbora asko pasa eta egia, gela hartan ezin zela bizi. Biaramonean Arrueri esan gertatzen zena, eta nahigabez esan zigun enkante batean erosi berria zela ohea”. Lekuz aldatu beharra izan zuten senar-emazteek. Orduan ere gerora bezala famatuak ziren nonbait Zarauzko komentu zaharreko arkakosoak!...

Bigarren ikustaldia handik bi urtetara, 1868. urtean, egin zuten. Orduko berri zehatz-mehatz eta oso poliki ematen digu Matilde emazteak, “egunerokoa” bezalako idatzi bait zuen. Hona zati batzuk: “*Ostirala*. Nire senarra Arrue eta Velasco jaunak ikustera joan da. Arrue arratsaldean etorri da euskara irakastera (Velasco hori “Villa Munda” edo “Zeleta berri” eta orain Udal Musikategia dena eraiki zuen sendagile xeblere bat izan zen). *Larunbata*. Bero ikaragarria (Kontutan izan Abuztuan gaudela). Itsasoa urdin, garbi eta zakarra. Arrue etorri da. Haren komentu zaharra orain anaia misiolariet okupatua dago. Piso bat du Arruek etxe berri batean eta eskola harategi ondoan du. Bere semearen emaztea hil egin zen, baina semea berriz ezkondu da (aita bezala, diot nik)... *Ostirala*. Nire senarra komentura joan da, fraileekin euskarari buruz mintzatzen. *Larunbata*. Nire senarra berriro joan da fraileen komentura eta atzo ezagutu zuena baino fraile atseginagoa aurkitu du. *Igandea*. Fraileek ezin izan diote jaramonik egin nire senarrari... *Ostirala, 18*. Arruek liburu bat eman dit bizkaieraz. Ez dut titulurik gogoratzen; ezin nuen irakurri noski, eta nire senarraren liburuekin nahastuta geldituko zen. *Astelehena, 21*. Iraultza hasi dela diote eta Erregina Donostian dela zer egin jakiteke. Aspalditik somatzen zen halako zerbait... Berri hauetaz Arruekin hitzeginez, nire senarrak adierazi zion berehala Espainia uzteko gure asmoa; baina Arrue oso baikorra zen eta esan zion: lasai egon, ez

du inork bere burua hautsiko Erreginagatik. Zortzi egun barru, borrokan zebiltzan, karlista alderdiak Euskal Herria altxarazi bait zuen Espainiaren aurka, hauen menpean galdu bait zituzten euskaldunek beren abantailak”. Eta hemen amaitzen dira Matilde Van Eysen kontu politikak (19).

Garai honetan izan zuen baita ere Luis Luziano Bonaparte Printzearen bisita, zein urte eta egunetan izan zen zehazterik ezin izan dugularik. Dena den, 1878. urteko Irailaren 24ekoa da Gregorio Arruek Printzeari idatzi zion eskutitza (20). Bertan Arruek Jose Frantzisko Aizkibel hiztegi-gile famatuaren paper batzuk eskaintzen dizkio Bonaparteri. Eta eskutitzaren azkenean hauxe esaten dio: “Etzera kontura(tu)co nosqui ni nor edo zein naizan, eta beragatic esan behar dizut, Jauna, San Luis Gonzaga(ga)ren bicitza eta Kardaberazen dotriña-liburua Zarauzen zuri eratu zizkitzuna naizala”. Ziur da, beraz, Printzearen ikustaldia aurretik izan zela.

Bestaldetik, badakigu Donostian antolatzen ziren Euskal Lore Jokuetan, 1882. eta 1884. urteetan sariak jaso zituela gure Gregorio Arruek. Guzti horrek argi eta garbi jartzen du gure gizonaren balio estimagarria.

ZARAUZKO UDALETXEAN IDAZKARI

Baina bada oraindik besterik, eta honekin bukatzera noa. Bada Gregorio Arrueren bizitzan oso gutxi ezaguna den alderdi bat: Zarauzko Udaleko idazkari izan zela, alegia. Halaxe izan zen, bada, nahiz eta zeregin horretan denbora askorik ez iraun. Hilabete batzuk bakarrik iraun zuen, 1876. urteko Martxoaren 17an hasi eta urte bereko Abuztuaren 27an bukatu, bost hilabete besterik ez. 13 Agiri edo Akta izenpetzen ditu idazkari bezala, eskola maisu onari dagokion letra txukun eta dotorearekin izenpetu ere. Baina bere letra txukun hori aurretik eta ondoren ere beste agiritan azaltzen da, berak izenpetu gabe. Nonbait berak idazten zituen aktak; letra oso ona zuelako ote? Ez jakin ba! 65 urte zituen artean, oraingo usadioz jubilazio urtea. Eta hain zuzen lehenengo agirian Jose Mari Arrue bat azaltzen da lehenengo Alkate bezala. Bazuen Gregoriok seme bat Jose Maria Frantzisko Arrue zeritzana eta 1844. urtean jaioa. Hura ote? Ezin inolaz ere ziur esan. 32 urte izango zituen semeak orduan. Gregorio Arruek aurrena “secretario interino” jartzen du, geroago sinadura bakarrik: *Gregorio de Arrue* beti. Bere aurretik, Fausto Berazadi ezaguna azaltzen da “secretario interino” bezala, baina honek ez

(19) Karmelo Iturria: *Euskal Literatura Zarautzen, in Zarautz-ko gorabeherak historian zehar*, Itxaropena, S.A., Zarautz, 1987, 437-445 or.

(20) H.V.B. (Hermano Valentin Berriotxo): «Carta de Gregorio Arrue a L.L. Bonaparte», BRSAP, 1960, 101-103 or.

ditu agiriak izenpetzen, Gregorio Arruek baizik, nahiz eta haren sinadura ere azaldu, Zarauzko Udaletxeko “Depositario y Recaudador de Fondos Municipales de esta Villa” bait zen bera.

Geroago Alkate bezala, Frantzisko Manuel Egaña agertzen da. Oso gizon ezaguna izan zen hau Zarautzen lehengo mendean. Nik lerro batzuk eskaini nizkion duela hiru urte Zarauzko 750. Mendeurrenean argitaratu zen “Zarauzko gorabeherak historian zehar” liburuan, 62-63. orrialdeetan. Euskal olerkaria bera, “Lizardi” zenaren aitona amaren aldetik, Zarauzko Alkate ez ezik, Madrileko Parlamentuan Diputatu izana eta Kubara ere Ordezkarri bezala bidalia izana. Eta Zarauzko herriaren alde beti zintzo jokatu zuena. Eta hain zuzen ere, Gregorio Arrue zendu zen urte berean hil zen Frantzisko Manuel Egaña hau ere, aurtan ehun urte alegia. Ez al lioke, beraz, gure herriko Udalak omenaldiren bat eskaini behar? Hemen ditut nire alboan Antonio Alberdi gure Alkatea, eta Maite Etxaniz Euskara Zerbitzuko arduradun andereñoa. Beroriek dute hitza!

1876. urteko Apirilaren 26an izan zen aukeratua Gregorio Arrue Zarauzko idazkari bezala, nahiz eta, lehen esan dugunez, lehenagotik ere agiriak berak idatzi. Honela dio aktak: “El Señor Alcalde Presidente dio conocimiento a la reunión, de la renuncia que hizo el Secretario interino del Ayuntamiento de esta Villa D. Emilio Garcia (Martxoaren 17an izendatua bera) del cargo que ejercía, y en vista de ello se acordó nombrar para sustituirle, como en efecto y por unanimidad fue nombrado en tal concepto de interino: D. Gregorio de Arrue” (21).

Gregorio Arruek bere istilu eta gorabeherak izan zituen Zarauzko Udalarekin bere eskola maisutzari zegozkion diruak zintzo eta zuzen ordaintzen ez zizkiotelako. Hala azaltzen da behintzat zenbait agiritan. Abuztuaren 13koak, esate baterako, honela dio: “Asi mismo se dio lectura a una Circular del M.I. Señor Gobernador Civil de 2 del corriente, en que manda terminantemente, se le paguen al Profesor de Instrucción primaria de esta Villa D. Gregorio de Arrue sus haberes procedentes de sueldos devengados hasta el 31 de diciembre de 1875, y la Corporación teniendo en consideración que hace pocos días se le ha hecho a este funcionario otro pago de igual procedencia, y lo exhausto de sus cajas, ha acordado suplicar al Sr. Gobernador se sirva esperar hasta principios de octubre próximo venidero, en cuya época se le pagará su haber, contando para hacer esta súplica con la adquiriescencia del mismo Profesor”. Bihotz onekoa nonbait gure Gregorio Arrue, sei hilabetetako soldatak kobratu ezinik zebilen hartan! Akta honetan bertan

(21) Zarauzko Udaletxeko Artxiboa: *Libro de Actas de las sesiones ordinarias y extraordinarias del Ayuntamiento de esta N. y L. villa de Zarauz*. Se le dio principio el día 28 de Enero de 1876 y contiene noventa y nueve hojas útiles, 6 v. folioa.

izendatzen da Udaleko idazkari berria, Anselmo Murgoitio, artean Pasaia Donibaneko idazkaria. Soldata: urtean bost mila erreal eta etxe-bizitza (22).

Beste zenbait agiritan ere azaltzen da behin eta berriz Gregorio Arrue, bai bere soldatak, bai bere etxe-bizitzan egin behar ziren berritzeak ordaintzeko eskatzen, baina ez dago denak hemen aipatzerik luze joko bait liguke. Akta bat bai, aipatu nahi dut, bertan zenbait xehetasun interesgarri azaltzen bait da. 1877. urteko martxokoa da eta honela dio: “Leida la precitada sollicitud del Maestro D. Gregorio Arrue, que manifiesta lleva cuarenta y tres años de ejercicio en la enseñanza de esta Villa (1834 urteaz geroztik beraz), mereciendo entre otras la honrosa nota que expresa la certificación de la Junta Local de la misma que acompañaba, y el haber sido clasificado en la primera clase por la Junta de instrucción pública de la provincia para el percibo del aumento gradual de sueldo, y que constituido en la avanzada edad de sesenta y seis a sesenta y siete años, agotadas sus fuerzas tanto físicas como morales, sordo además y con escasa vista, se considera en el caso de dimitir su empleo, siempre que el Ayuntamiento le conceda las dos terceras partes del sueldo actual y la habitación que le corresponden por vía de retiro o jubilación” (23). Hirutik bi zati eskatzen zituen Arruek, baina erdia besterik ez ematea erabaki zuen Udalak. Horra hainbat eta hainbat urtetan zintzo lan egindakoari ematen zaion sari xuhurra eta eskaxa! Eskola maisu gizarajoak beti gaizki ordainduak!

AZKENENGO URTEAK

Zahartua, akitua, indarrrik gabea, gorra, ia itsua eta gaisorik aurkitzen du bere burua Gregorio Arruek. Baina oraindik ere beste hamahiru urtetan zehar liburuak euskaratze lanari ekingo dio gogotik. Baina halako batean etorri zaio azken ordua. Aurretik joanak zitzaizkion bere aita, 80 urte bete ondoren zendua, eta bigarren emaztea, 76 urte zituela 1885. urteko Azaroaren 7an hila (24).

(22) Ibid., 17 v. eta 18 folioak.

(23) Ibid., 69-70 folioak.

(24) Hona aitaren heriotze-agiriak dioena: “En doce de Octubre de mil ochocientos cincuenta y tres, murio en esta villa de Zarauz de edad de ochenta años, poco más o menos, Juan Antonio de Arrue, natural de Berrobi, viudo de Maria de la Asuncion de Rezola, natural de Albistur, y parroquiano de Zarauz: recibió los Santos Sacramentos de la penitencia, viático y extrema-unción: no testó. Al siguiente día fue conducido su cadáver a la Iglesia Parroquial de esta villa de Zarauz y hechos los suffragios de costumbre, fue trasladado al Cementerio de la misma, donde yace sepultado. Y para que conste firmo yo el Vicario, Dn. Luis de Guereca”. Elizbarutiko Artxibategia, Donostia: Libros Parroquiales, Parroquia de Zarauz (14), Libro 4.º de Finados, 1836-1885, 21 zenb., 70 folioa. Eta bigarren

Hona Gregorio Arrue zenaren heriotze-agiria:

“En la Villa de Zarauz, provincia de Guipúzcoa, Obispado de Vitoria, a los 22 días de Abril de 1890, yo el infrascrito Presbítero, cura-ecónomo de la Iglesia Parroquial Santa María la Real de la misma: *mandé* dar sepultura eclesiástica al cadáver de Don Gregorio Arrue, natural de Hernani, provincia de Guipuzcoa, de profesión Maestro de Instrucción Primaria, de 78 años de edad. Falleció a las diez de la mañana del día de ayer en la calle mayor número 39 de muerte natural ocasionada según certificación de facultativo por un catarro pulmonar crónico. Era hijo legítimo de Juan Antonio de Arrue, natural de Berrobi, provincia de Guipúzcoa, y de Maria Ascensión Rezola, natural de Albistur, provincia de Guipúzcoa. Se hallaba en el acto del fallecimiento viudo de Josefa Antonia Leunda, natural de Beasain, provincia de Guipúzcoa. Recibió los Santos Sacramentos de Penitencia, sagrado viático y extrema-unción. *No otorgó testamento* (azpimarratuta). Se le hizo entierro de cuerpo presente. Fueron testigos del sepelio Don Pedro Echave, Presbítero y Bernardo Macazaga, de oficio cantero, naturales y vecinos de Zarauz. Para que conste firmo fecha ut supra. Don José Manuel de Arizmendi, Cura-Ecónomo” (25).

Erregistro Zibileko agiria ere badugu eta bertan Gregorio Arrueren seme-alaben xehetasunak aipatzean, hauxe azaltzen da: “de los cuales viven casados en San Sebastián, casados, Dn. Juan de la Cruz y Dn. José María, murieron, Da. Josefa Joaquina y Dn. Antonio, y viven solteras en esta villa, Da. Marina (*Maria Balbina* jarri behar zuen) y Da. Francisca Ignacia” (26). Hementxe ditugu gure artean beraien zenbait oinordeko.

Hauxe gertatu zen hain zuzen gaur ehun urte Zarauzko gure herri honetan, bilduta gauden lekutik oso hurbil, Kale Nagusiko 39 zenbakidun etxean. Ospe eta ohore hainbat eta hainbat urtetan Zarauzko haurtxoen Maisu eta hezitzaile jator eta euskal idazle prestu eta ospetsu izan zen Gregorio Arrue hernaniar-zarauztar jaunari. Eta mila esker guztioi niri entzuteko izan duzuen arretagatik. Besterik ez.

emaztearenak berriz: “Como Cura-Ecónomo de la Iglesia Parroquial Santa María la Real de la villa de Zarauz, provincia de Guipúzcoa, Obispado de Vitoria: mande dar sepultura eclesiástica al cadáver de Josefa Antonia de Leunda, natural de Beasain, de edad de setenta y seis años, casada con Don Gregorio de Arrue, natural de Zarauz (sic), maestro de escuela jubilado, e hija legítima de Juan Bautista de Leunda y Nicolasa Elizalde, naturales de Beasain. Falleció el día precedente a consecuencia de un catarro pulmonar, habiendo recibidos los Santos Sacramentos de penitencia, sagrado viático y extrema-unción: no testó; y fueron testigos Bernardo Macazaga, cantero y Saturnino Alcorta, albañil, naturales de Zarauz. Y para que conste firmo en Zarauz a los siete días de noviembre de mil ochocientos ochenta y cinco. Don José Manuel de Arizmendi”. Zarauzko Parrokiako Artxiboa: Libro 5.º de Finados, años 1885-1890, 103 zenb., 3 folioa.

(25) Ibid., 1890, 26 zenb., 58 folioa.

**GREGORIO ARRUEren SANTA JENOBEBAZ
BESTE ZERBAIT**

Zarautz, 1990-IV-21

Maite Etxaniz

Hainbeste urtetan Zarautzen bizi izan zelarik bertako hizkeraz baliatu ote zen? Hauxe izan zen *Santa Jenobebaren Bizitza*-ren aurrean jartzekoan neure buruari egin nion lehen galdera, eta hona hemen, luze gabe, erantzuna, ondo baino hobeto Lino Akesolok liburuari egindako sarreran emana:

“...Ernaniar onen euskera, giputza dela erraz ulertzekoa da. Asko zor diola esango nuke Aita Kardaberaz eta Aita Mendibururenari; Lapurdi-aldeko aztarnaren bat ere ageriko zaio; baiña Arrueren euskera, geien batez bere erri ingurukoa da, iñolaz ere”.

Baina azterketa sakonagorik egin gabe, zaila iruditzen zaigu erabakitzea zer izan daitekeen Kardaberaren eragina eta zer hernaniar biek herri bereko hizkeraren iturritik edana. Dena den, ezin uka genezake asko dutela amankomunean, nahiz berezitasun nabarmenik ere izan. Argi dagoena, eta inolako dudarik gabe gainera, zera da, Arrue ezer gutxi baliatu zela Zarautz-ko hizkeraz.

Zaitegik ere aztertu zuen Arrueren hizkera, gehienetantsu zabarra eta mordoilokadak metaka omen dituen hizkera izan arren, “lore ezitia” deitzen duena.

Hona hemen Arruek berak auzi honetaz esaniko hitzak:

“Euskeraren aldetik ipiñi nezakean, askoz errazago, alere, itz euskeratsugoakin, ta gizon adituai zerbait obeto irudi zegikien eran; baña oroiturik ez nijoala oyentzat, ezpada ez jakin, ezta irakurtzen ta irakurtzen dutenak zer esan nai duan doi doya aditzen duanarentzat eskribitzera, sayatu naiz alegiñaz, zuk adi zenzakean eran ipintzera”.

Gorago aipatutako sarrera horretan bertan, Lino Akesolok Gregorio Arrueren hizkeraren zenbait ezaugarri ematen dizkigu “Gregorio Arrue idazlearen Santa Jenobebaz zerbait” izenburupean. Bere lanari jarraipen bat eman nahian, gehien bat morfologiari baitagokio, sintaxiaz zerbait esan nahiko nuke. Baina ez da nere asmoa *Santa Jenobebaren Bizitza*-ren sintaxia zehatz mehatz aztertzea, interesgarri gerta daitezkeen zenbait ohar egitea baizik. Honetarako perpaus bakun eta koordinatuak hartu ditut aztergai, subordinazioak arreta haundiagorik merezi duela bai baitakit.

Halere, eta nere lantxo honekin ahalik eta ikuspeirik orokorrena eskaini asmoz, hona hemen labur- labur menpeko perpausen zenbait ezaugarri:

1. Esaldi konpletiboak ematerakoan -eNIK ez du erabiltzen, iparraldeko ohiturari jarraituz:

(1) “Pozak onela izu zezakeala, uste ez nuen” (133. orr.).

Gehien darabilen menderagailua -eLA da, gehienetan bakarrik baina, eta ez gutxitan, perpaus hasieran EZEN duelarik.

(2) “Iruditzen zait esan nahi didazula...” (54. orr.).

(3) “Erantzungo dizuet ezen onek dakartzien gertakaririk andi edo printzipalenak guziz egiazkoak dirala,...” (34. orr.).

EZEN partikularen erabilera dela eta esan beharra dago ez Mendi-buru ezta Kardaberazengan ere, ez dugula horrelakorik topatuko.

Subjuntibozko adizkiez ere ematen ditu, atzean -eLA dutela beti:

(4) “Erregu zayezu gizonai eraman zaitzatela beragana” (93. orr.) eta adizki jokatugabeaz ere bai:

(5) “Galdua zedukan ondra biurtzea agintzen zion” (51. orr.).

2. Erlatibozkoak osatzerakoan ohizkoa den bukaerazko -eN darabil, aldiz bakarrik, aldiz aurretik NOIZ, ZEÑA bezalako partikulez lagundurik:

(6) “Senar aiñ on bati zegokion erakoa zan”.

(7) “Etorriko da eguna, noiz eta emen arkitzen garenek pozezko malkoakin (...) esker milla emango diozkagun” (38. orr.).

(8) “Zeña baitari zeritzayon Drako” (45. orr.).

3. Izenlagun balioa duten -eLAKOz osatutako perpausak ere ageri dira:

(9) “Obeditzen ziolakoa egiten zuen” (45. orr.).

4. Zergatizko edo kausalak egiteko -eLAKO, -eNEZ GEROZ, ZEREN... -eN, eta NOLA... BAIT- ematen ditu oro har. Azken hau ez dugu

aurkituko Kardaberaz eta Mendibururen lanetan, On Manuel Lekuona eta Patxi Altunak diotenez.

Hona hemen adibide batzu:

(10) “Esker milla, Jauna, nere semetxoa eta ni gizonen atzaparretatik atera gaituzulako” (67. orr.).

(11) “Orren ona zarenez geroz ekaizkidatzu argi bat, tinteroa eta papera” (56. orr.).

(12) “Jainkoak guzia beiñoan eta begien itxi-idiki batean egiñ zeza-kean, zeren guzia dezakeana dan” (81. orr.).

(13) “Eta nola sillarik eta mairik ez baizeukan, eskribatu zuen sotargañean ondorengo karta au” (56. orr.).

“ALABAÑA” juntagailu adbersatibora ere jotzen du zenbaitetan kausa adierazteko:

(14) “Jenobebak ardiari, bere ondoan ipiñi eta bere onera erakarri nayez bere kalabazako esnetik aoan sartu zion, baiña alperrik, alabañan ordurako hilla zegoan” (85. orr.).

5. Kontsekutibetarako berriz, honako forma hauetara jotzen du: “ALATAN NON... -eN”, “AIÑ... NON...-eN”:

(15) “Alatan, non ama guziak beren alabai gauza on guzietarako ispillutzat (...) ipiñi oi zieten” (36. orr.).

(16) “Aiñ gozatsu aiñ amorez (...) hitzegin zien non bere etxeko-andreaz (...) prendatuak guziak geratu ziran” (39. orr.).

Baina batzutan menderagailurik gabe ere bai:

(17) “Alatan non bere ustean egiña daukaguna egingabe idukitzea-gatik, eskuko beatz bat emango likek” (36. orr.).

6. Denborazko perpausetarako makina bat molde desberdin erakusten dizkigu, baina honi deritzogu bitxiena:

A. erroa + “EZ” + “AL” + A. laguntzailea.

(18) “Neskatx onek Jenobebagandik aldegiñ ez al zuen, sartu ziran presondegi artara gizon armatu bi” (61. orr.).

7. Dagokigun azterketari ekiteko, zenbaitetan gipuzkeraz ohizkoa den izen sintagmaren ordena urratzen eta bizkaierazkora jotzen duela esango dugu, hala nola:

(19) “Zaldun bi” (40. orr.).

(20) “Gizon armatu bi” (61. orr.).

Kardaberazek ere ematen digu honelakorik:

(21) “Gauza bi alere onen gañean ciertoac dira”.

Beste kasuren batzutan ere aldatzen du elementuen ordena:

(22) “Bakarrik zugan pentsatuko det” (49. orr.).

(23) “Asko milla gizon” (91. orr.).

Ezezko esaldietan, eta adizki perifrastikoez soilik arituko gara piskatean, ez du beti aditz laguntzailea aurreratzen, maiz irakur daitezkeelarik honelakoak:

(24) “Gordetzen ez nau” (41. orr.).

(25) “Uzten eztit” (56. orr.).

Kardaberaz eta Mendibururengan ere aurki ditzakegu antzekoak:

(26) “Izan eztu”.

(27) “Escatzen ez dizu” hernaniarrarenak, eta

(28) “Eguiten ez dute”.

(29) “Ecusten ez dugu” oiartzuarrarenak.

Ez dira bakarrak ordea, hona ordenaren ez aldatze horretaz zer dioen Patxi Altunak *Mendibururen Idazlan Argitaragabeak*-ei egindako sarreran, eta ematen duen adibidea:

“Añibarrok, Asteasuko Agirrek eta bezalaxe, ezezko per-pausetan partizipioa eta laguntzailea trukatu gabe ematen ditu maiz, beste batzuetan ez, ordea”.

(30) “Cenzanz andiric ez duèn bacatariaç ez du anitz beguiratzen becatuz galdu duèn cerura ta damu andiric arcen ez du hura galduta; cerura baño gueiago beguiratzen ez du bere becatu beràz irabaci duèn sulece infernura ta ez dute anitz izutzen...”.

Iparraldera jotzen badugu, aurkituko ditugu honelako egiturak, hau da Txomin Peillenek dioena Egiategiz eta haren ezezko perpausez:

“...Ezezko esaldian aditz ezezduna azkenean jartzen du (31) ohoiak eskilima hek atzürka e’litiro”.

Baina hau ez da beti gertatzen Egiategigan, ikus beste hauek:

(32) “Deusere etziela resolbitzen aiten thonbetan jarririk baizik”.

(33) “Egündano etzait bürrian sarthü”.

Ez da batere erraza fenomeno hau azaltzea, legerik ez, baina halako joeraren batzu aurkitu ditugu Arrueren kasuan, aditz laguntzailea noiz aurreratzen duen zehatz-mehatz jakiteko ezpada ere, susmatzeko bai. behintzat.

Gorago aipatutako autoreek bi egitura motak noiznahi ematen dituzte, Arruek aldiz, gehienetan trukaketarik gabekoa ematen du, beraz, errazago gertatuko zaigu ohizko leku aldaketa noiz egiten duen azaltzea, alderantzizkoa baino.

Aginterazko adizkietan, aurreratzen du aditz laguntzailea:

(34) “Ezezazu arren iñor sentenziatu” (57. orr.).

(35) “Ama, etzazu negarrik egin” (54. orr.).

(36) “Nire lepoa ebakiko didatenai ere ez egiezu ezer egiñ” (58. orr.).

Galderazko perpausetan ere bai:

(37) “Ezta eztezu begiratzen toki zeñ izugarrian gauden?” (53. orr.).

(38) “Eztezu aditzen?” (78. orr.).

Baina ez beti:

(39) “Esan etzidazun au?” (91. orr.).

Adierazkorretan ere honelakorik aurkitu dugu, baina hain gutxi iza-nik, salbuespen gisa har genitzake:

(40) “Ez det nai eraman” (58. orr.).

(41) “Eta ez diozute begiratzen” (127. orr.).

Gainontzekoetan, batzutan sintaxiak beharturik:

(42) “Etortzen etziranak” (83. orr.)

eta bestetan ageriko arrazoirik gabe, ez du erroa eta laguntzailearen arteko trukaketarik egiten:

(43) “Pinturak zer dan ezagungo ez luke” (34. orr.).

(44) “Jenobebak neskatz(a) au ezagutu etzuen” (127. orr.).

Adibideak ematen jarrai genezake, baina ikus beste hau non bi erabilerak perpaus berean azaltzen diren:

(45) “Ez det nai eraman eternidadera iñorentzat gorrotorik, eta odol tanto bakarrak ere nigatik ixuri bear eztu” (58. orr.).

“Ixuri bear eztu” eman duen bezalaxe goragoko “ez det nai eraman”en partez “eraman nai ez det” eman zezakeen.

Jakina da oro har ezezko perpausetan galdegaia laguntzailea eta erroaren artean doala, baina aditz laguntzailea aurreratzen ez denean erroa eta honen artean ez da ezer tartekatzen “ez” aditzlaguna ezpada, noski. Baiezko adizkietan ere bi elementu hauen artean ez dugu besterik sartzen (“omen”, “ohi”, “al”, “ote” eta “ari” bezalakoak ezik) beraz, badirudi galdegaiari dagokionez, ezezko hauek baiezko adizkiek bezalaxe jokaten dutela, hau da, eten baten ondoren aditza bera edota bere ezezkotasuna dirateke galdegai, eta gainontzekoetan, aditzaren azentupean, hitz andana berean ahoskatu eta bere ezkerretara doan elementua.

Adibidez:

(46) “Zuzaz aztuko ez naiz” (53. orr.).

(47) “Pozak onela izu zezakeala, uste ez nuen” (133. orr.).

Lehenengoan argi dago “zuzaz” dela galdegaia, gorago aipatutako baldintzak betetzen dituen neurrian behinik behin, ezin esan bait daiteke “aztuko zuzaz ez naiz” eta are gutxiago “aztuko ez zuzaz naiz”, eta “zuzaz” amaierara pasatuz gero berriz, argi legoke ez lukeela galdegai funtzioa beteko.

Bigarrenean aldiz, adizkiaren aurretik eten bat dagoenez, bere ezkerretara doana ezin jo genezake galdegaitzat, baiezko perpaus batean joko ez genukeen bezala.

8. Perpaus koordinatueta pasatuz gero zenbait ohar egingo dugu kopulatiboez, Patxi Altunak dioen bezala, mendebaldeko euskalkietako hiztunoi belarrian min piska bat ematen diguten esaldiak aipatuz.

Arruek ez du “BAITA ERE”, “ERE BAI” formarik ematen, hauen orde “ERE” soilik erabiltzen du gehienetan, batzutan “ETA”z laguntzen badu ere:

(48) “Topatu zuen ere an inguruan” (71. orr.).

(49) “Zu beti gure ondoan zauzkagu, iñor bizi ezten eremu onetan eta neguko gau luze onen erdian ere” (74. orr.).

Ezezkoetan aldiz, honelakoekin egiten dugu topo: lehenengoa guztiz arrunta zaigu, bigarrena ez hainbeste:

(50) “Ezta bizirik geranik ere” (92. orr.).

(51) “Eta bere emaztearen hitzak aditzen ere etzituen” (115. orr.).

“ERE” perpaus amaieran “BAI” edo “EZ” gabe jartzeko ohitura hau ekialdekoa da, dena den, Mendiburuk ere jarraitzen dio:

(52) “Nior ere”.

(53) “Nioiz ere”.

Kardaberazek berriz bitara ematen digu:

(54) “Ta emen ere”.

(55) “Emen ere bai”.

– Erregea da (erredundantzia semantikoa: *jaun* eta *errege*).

6. *Kukuso* hitza: adiera ez dute emaiten Azkuek eta Lhandek. Gaskoinaren kalkoa den ikertzekoa da. Kate metaforikoetan indexatu behar da. “Tertium konparationae” kolore beltza liteka, *tripazuri* hitza kontuan hartzen balinbada.

7. Apuntatu ez diren fenomenoak:

– Fonetika: *zeildu*, *zartein*.

– Lexikoa: *zeildu*, *ikhuzten*, *inposublez*, *ahatik*, *aatxeki*, *jastatu*.

– Neologismoak, maileguak: *poxa* (ez *moltsa*); *losanja*, *tapizatu*.

– *Switching* fenomenoak: “à l’appendice” horrek erakusten duelarik soziolinguistikaren aldetik, erreferente garbia duela lekukoaren ustez medikuntzaren frantses hitzak.

– Etabar: *zilhoa heldu zako*, *chez Massonde*.

Herria BARKOXE

ERANTZUNAK:

1. Lau [tripót] ...I+

Ezezko datuak:

α “odolgi”? # [oðolki]; (beste plat bat, apart jaten dena ardian, odola errerik).

Lekukoaren oharrak:

L2. [goilpeuin], tripotak egin ondun, hura üzten düzü hoztea, eta badüzü holako uin bat, hollixka, lehen kabalen ilher emaiteko, eta orgen unineztatzeke, grezatzeko.

Transkribatzailearen oharrak:

1. “Goipeuin”.

2. “Hollixka”: “jaunâtre”.

3. “Uineztatü”, “grezatü”: “graisser”.

4. Etnografia; medikuntza; hazkuntza; teknologia.

Metodologia-oharrak

1. *Odolki* zer den ez da zehazten, bakarrik ez dela ez ezaguna. Fonetikaren aldetik, *l* baten ondotik, *ki* agertzen da eta ez *gi*: ez da ustegabeko berria.

2. *Goipuin*: lexikografia. Beste herrietan apuntatua konfirmatzen da.
3. *Grezatü* eta *urineztatü* sinonimo gisa agertzen dira.

Herria: PAGOLA Lek. 1 Zint. 17A Zm. 341

ERANTZUNAK:

1. [tripót] lodi bat ...I+

Ezezko datuak:

a “odolgi”? # [oðólki] bestalde düzü hua. Eta tripotak in ondun behin edo beste ikhusi iten; egiten dizie bertz zolako odola-arresta e, ezpizen deus e enphoiltzen geo, odola dena biltzen zün hasteko eta etzün dena tripotetan ezarten sobera balinbazen eta baatzen odola phasta hua, geo beste bertza hüsten zün eta undar heiekilan egiten zün odolkia, untzietan eta aizuekin uano trükada egiten zün ttiphiña ttipi batzütan, juaiten aizulat eemaiteat, eni... (ez maite berak).

Lekukoaren oharrak:

Tripota, haur lodi bat balinbada, tripota Janbiuñña, hua düzü, müthürra, jentek zer die? L'appendicite. Leheno erraiten zizien eta etxe batetan hola seindü maindiek, seindü maingiak, seindü maingiak, huk tripotak eta jinkua, jinko düzü hoi, lodia, jaunbiuñña ezaia, jinkua, galthatü ziozün hua ahatziait nola zen, galthatü ziezün eskelai bat jin eta zer tützie horiek? Harek erran ziin: oh Jinkua eta seindü maingiak zirela, eta gio ordin ebatsi zietzün ordin Jinkua ützi ziezün eta seindü maingiak eaman beekin boh ahatziait eh! bazün ba zerbeit holako istorioa.

I. Nun entzun duzu hori, Jinkoa, Jesus?

L. Ba, Jinkua ziekin eta Seindü maingiak enekin, erran ziezün eta geo tripotak ebatsi ziezün,

I. Deboziona bazuen beraz,

L. (irriz) jinkua deitzen düte zonbeit lekhütan? Nik enizün istoioa hala entzün

I. eta maingiak?

L. ba, maingiak, txankü dena...

I. Hau da?

L. Hortaik landakoak, hoi üsü eztüzü bethatzen lodiegi düzü eta ez untsa egosten, ahalaz eztizügü bethatzen

I. Igortzen?

L. Urthukitzen, eztüzü..., absolutuki behar balinbada, ezpada hertseik, ordin ezarten ba bena ez ahalaz.

Texte traduit: Janbiuñña (de “jaun” = monsieur, maître, et “biuñ”, cf. “biro”), c'est ça, le bout, les gens qu'est-ce-qu'ils ont? l'appendicite. Autrefois on disait

que dans une maison, comme ça, il y avait les saints boiteux, les saints boiteux, les saints boiteux, eux c'étaient les boudins, et Dieu, lui c'est Dieu, placé (mis comme) jaunbiuña, et alors il avait demandé, j'ai oublié comment c'était, ah oui, un nécessaireux était arrivé et il leur avait demandé; qu'est-que vous avez là? Oh, que c'était Dieu et les Saints boiteux, alors il leur avait laissé Dieu et il avait emporté les saints boiteux avec lui, bo j'ai oublié eh! il y avait une histoire comme ça

I. Où avez-vous entendu ça, Dieu, Jésus?

L. Oui, Dieu (soit) avec vous et les saints boiteux avec moi, il leur avait dit, et c'est qu'il leur avait volé les boudins.

I. Il avait de la dévotion alors

L. (riant) ils l'appellent Dieu en certains endroits Je ne, l'Histoire entendue comme ça

I. Et les "maingiak"? (l'enquêteur, pas sûr d'avoir compris se fait expliquer)

L. Oui maingiak celui qui est boiteux (txankhü)

I. C'est ça? (realia montré)

L. A partir de là oui, ceci souvent on ne le remplit pas, il est trop gros, et il ne peut pas bouillir facilement, si possible on ne le remplit pas

I. Envoyé?

L. On le jette, on ne, s'il le faut absolument, s'il n'y a pas assez de boyaux, alors on le met mais si possible non.

Transkribatzailearen oharrak:

1. "Odoikia" ez da "boudin".
2. Norbait lodi batez: esaera.
3. "Enphoiltzen": "gaspiller".
4. "Hasteko": "toujours est-il, du moins".
5. "Geo": enfatikoa, ez da denborazkoa.
6. [trykáða]: "échange".
7. Etnografia; auzoen arteko harremanak.
8. [sléiIndymailnd/gjákJ], [sléiIndymailnlgjákJ], [jlinlkwa]
9. [jlaulmbiúña] motibazioa emaiten duelarik.

Metodologia-oharrak

1. *Odolki* zer den zehatz agertzen da.
2. Esaera badu *tripot*-arekin.

3. Narrazio etnografiko bat badakar Isturitzeko lekukoek erran dutenarekin bereziki erkatu behar dena. Ene ustez, ez da jaso izan narrazio hori.

4. *Jaunbioña* hitzaren inguruko informazioak baliosak dira Isturitzeko erantzunean bezala.

5. Konfusioa eta nahastea agertzen dira erreferenteari buruz: “caecum, ciego” ala “rectum, recto”? Hemen agertzen da eufemismoaren eta tabuaren problematika. Lekuko zenbaitek “vulve, vulva” galderari *onderitze* dute erantzuna. Alta “vulve, vulva” eta “recto, rectum” desberdintzen dute, behietan behintzat (erreferenteez ari naiz, prefosta). Bestalde “jasaille/jasana” (fr. “contenant/contenu”) erlazioak badu bere eragina. Gertatzen da “caecum, intestino ciego” nahastea (beraz “jasaile”, “contenant”), boltsa horretan egiten den jakiarekin (“jasaile + jasana”, “contenant + contenu”). Nahaste hauek, normalak izanagatik, heteronimia handia errexten dute.

6. Aktibitate ludikoa eta motibazioa: euskaraz, auzoko hizkuntzetan bezala, eta kurioski nozio berak adierazteko, jinkoaren izena edo personifikazioa agertzen da: (ikus fr. “jésus”, esp. “obispo”, bable “xuaniko”, gask. “bundius”). Isturitzen ez bezala, Pagolan lekukoak dio tripotak hobeak direla janbiuña baino. Horri lotzen zaio aktibitate paródikoa, *jinkua zurekin* elizako formularen gainean eraikia, erakusten baita sainduen ebastea ez dela lapurketa handia.

7. Narrazioaren frantses itzulpen bat emaiten dut, erantzun-kuadernoa ez dagoena. Espainolez, alemanez, edo ingelesez agert zitekeen. Zergatik bada? Atlasaren testuen edizioaren arazoa plantatzeko. Euskara ez dakiena, kanpoko ikerlaria izanik, zer neurritan sartuko da euskal atlasean? Galdera egiten dut.

* * *

Berriz ere, lehen galderarekin bezala, bil ditzagun “morquilla-boudin” galderak agerterazi dituen datuak.

1. Gilliéron-en lehen kolpearen teoriaren akatsa erakusten duen galdera da: lehen kolpez *tripot* biltzeak ez du erran nahi *odolgi* lema ez dela ezagutzen. Maparatzeko orduan ikusi behar da hiru egoera desberdin agerterazten direla:

1.1. Erantzun batek bestea eskluitzen du (*tripot* bai, *odolgi* ez, eta binperrez).

1.2. Bi erantzun ezagutzen du lekukoak, bata ez delarik bertakoa (bi posibilitate).

1.3. Bi adierazle eta bi erreferente baditu lekukoak. (Bi posibilitate baino gehiago, bi erreferente baino gehiago posible izaki).

2. Bestalde heteronimia izan daiteke mota askotakoa:

– Lexematikoa: *tripot/odolki/buskantza*.

– Fonetikoa: *odolki/oolgi/odolgi*.

– Maileguan, etimoan: *tripa*-tik, *odol*-etik.

– Motibazioan: jasaile/jasana, edo barnekoa/kanpokoa, ekaia.

– Semasiologikoa: *odolgi*, da:

1. “Boudin, chair de porc et...”.

2. “Boudin, chair d’ovin”.

3. “Plat formé de chair d’ovin et...”.

4. Etc.

– Konotazioaren arabera: on/txar/hobea.

3. Mapan agertuko ez diren testuek informazio baliosa emaiten dute:

3.1. Heteronimia esplikatuz:

3.2. Definizioak eskainiz.

3.3. Narrazio etnografikoak emanez: galdera honetan agertu da nola izendapen batek bere motibazioa hartzen ahal duen, izengoiti teoforoekin (*jinko*): sakratua zergatik agertzen den ez dugu esplikatzen, fenomenoaren berri emaiten dugu behintzat.

4. Beste xendra batzu:

– *Piroaren* etimoa aztertzea dago: Mugerren *biri* ikusi dugu; Sain-tonge herribidean “fressure” esan nahi du batetik, “birika” formarekin baduen egitekorik aztertzea da, bestetik.

– Aldiz ez dugu gure inkestetan (Iparraldean) ezer aurkitu Corominasen tesiaren indartzeko: dio “de origen incierto” dela “morcilla” hitza, bainan halere, Pouvreau eta Larramendi lagun, euskaratik datorkeela proposatzen du: etimoa liteke “*mokor, morko, mukur*”, “objeto abultado e informe”. Gogora jiten zaidana da bakarrik Pagolako saildu mainguen itxura. Aldiz *mukur, morkor*, etabar agertuko zaizkigu beste galdera zenbaitetan, hala nola “grappe de raisin”, “motte de terre”, morceau de sucre” galderetan...

– *Tripot* Euskal Herritik kanpo non erraiten den ikertzea da: dirudienez, gaskoinez ez da oso zabaldua non ez den Biarnon eta Euskal

Herriko mugetan, jakina delarik etimoa bera arabieratik datorrela (ez da ez “budet” ez “botellus”). Fossat-en tesisa eta ALG bisitatu behar dira.

– *Odolki* hitzak kanpoko hizkuntzetan motibazio bereko kiderik baduen aztertzea da: ikus “sanquette” Biarnon.

– Etimoa aipatu-berri bait dut, mapa baten egiteko hizkuntza erro-manikoetan oso emankorra den etimoaren erizpidea euskararen atlasak ez duela baliatzen ahal denen gogoan daiteke. Erran nahi dut latinezko etimo batek eskaintzen ahal dituen geroztikako forma guziak ager daitezkeela atlas erromaniko batean eta askotan beste erantzunik ez dela agertuko eremu horretan. Euskaraz, kasu hori, aldiz, bakan ez bada, batzutan baizik ez da aurkeztzen; ondorioz, adibidez, latinezko soinu baten bilakera ez da egiten ahal galdera bakar batekin. Binperrez pentsatzen dugu lan egitea, beraz fenomeno fonetiko baten gertaketa guziak bilatuz tratamendu automatizatu baten bitartez, eta bereziki kode bat eman ondoan fonema bakoitzari. “Morcilla-boudin” galderan agertu den ahostun / ahoskabe distribuzioa ez da bakarrik ikertuko *odolgi* / *odolki* gertaketekin baizik eta beste erantzun frangotatik ateratako kasuekin.

* * *

Horra orain hirugarren eta azken adibidea: Euskaldun batek nola agurtzen ote ditu haren ondotik igaiten diren jendeak?

Inkestak egin aintzin, formula hauek orduaren arabera alda zitezkeela pentsatzen genuela erran behar da. Ikusiko dugu gauzak ez direla hain sinpleak izan.

ALDERA: 11.18, 11.19, 11.20, 11.21, 11.22, 11.23.

“Fórmulas de saludo”; “formules de salut”: (8.etan, 12.etan, 14.etan, 18.etan, 20.etan, 22.etan).

Herria: BAIGORRI Lek. 1 Zint. 3A Zm. 180.

ERANTZUNAK:

1. [apur] (18, 19).
2. [gawon] (22, 23).
3. [eyunon] (18, 19).
4. [aRaclaldeon] (19?), (20) ...L.+

Lekukoaren oharra:

(Goizeko 8.ak): egun on (eta erantzunak): sarri artio [s1aRiartjo]

[ikus1artjo]

[paslatueɸunon]

[paslatugawun]

[paslatuacaldeon]

(12.etan): egun on, [egwuerditan] kanbiatzen da

(2.etan): [acaldeon] ...l ..

(5.etan): [acaldeon] eta [gawon] ilhuna hurbiltzen delaik.

[bailsurieri] noiznahi ematen ahal den arrapostua (aparte): jaten delarik [badeaapetitu], [badoa], [ondaiisula] (5), [ondaiisila] (5').

Ezezko datuak:

βC: “adio”?; adio [adjo] bereziki gazteek erraiten dute, orenari kasurik eman gabe. (L.ek dioenez, adio erraiteak ez du fisik egitekorik toka edo noka hitzegi-tearekin; gazte batek zahar bati ere bai: agur edo adio).

Transkribatzailearen oharrak:

1.ikus aldaerak: “gau on” eta “gau un”; “arratsalde on” eta “atsalde on” (?).

Metodologia-oharrak

1. Errealizazio fonetikoak eman dira; forma ortografikoak ez, denbora irabazi nahian.

2. *Adio*: gazteek bereziki erraten omen dute, eta noiznahi, orenari kasurik egin gabe. Hori lekukoak ez duela hain begi onez ikusten agertzen da. Beraz heteronimia-faktorea diakronian dago ere bai.

3. *Jinkoa* aipatzen duen formularik baden inkestagileak ez du galdegin.

4. *Agur* dio lekukoak; inkestaegileak ez zuen pentsatu egiaztatzea ea benetan “agur” den lekukoak emaiten zion hitza elkar ikusten zutelarik. Ezetz iduri luke baina magnetofoiak *agur* besterik ez du grabatu (ezetz diot, zeren eta, J. Haritschelhar eta E. Larre Baigorriarrek erranik, *agur* baitzen Baigorri kokatu zen Gipuzkoar bati eman zioten izengoitia 1936. urtean!).

Herria: MUGERRE

ERANTZUNAK:

1. [eyunon], [ikuslartjo] (18); (19)

edo [paslaasueɸunon]

edo [aacaldeon] (20), (21), (22)

Lekukoaren oharrak:

Egunon eguerdi arte; Arratsaldea heldu da oren batetik harat eta [aaclaldon] ...L.. [aaclaldeon] ...L..

ilundu eta [gaulon] eta arrapostia [gislaβera]

Ezezko datuak:

“bai zuri ere”?; ez, gisa bera.

βC: “adio”?; [esaðjóilk], berriz ikus artio. [aðjo] sekulako, hartan fini. Haurrek gehio ernten dute [aðó:]. Nik adio ernten bere izenez, Jean, Polo, oiko (?) gaztek ez tute pronunzatuko zure izena: [aðjo], aldiz guk [aðjo] Jean edo Mayi.

I. Eta jaun erretorari?

L. [aðjo Jaulnerretora] eta boneta altxatuz.

Transkribatzailearen oharrak

1. Gazteen aldaketa.

Metodologia-oharrak

1. Erantzun guziak ez dira eman behar den tokian.
2. *Adio* forma interpretatzen du “betikotz” balitz bezala. Hortik dator hitz-joko dirudien *ez adiorik* erantzunak.
3. Gazteen forma dela dio lekukoak, Baigorri bezala (ez da alde).
4. Gaur agurtzen den jendearen izena ez dela haboro gehitzen erraiten du lekukoak, piska bat gaitziturik.
5. *Jinkoa*-rekilako formularik ez du proposatu inkestaegileak.

Herria: PAGOLA Lek. 1. Zint. 7B Zm. 182.

ERANTZUNAK:

1. [Jinlkwateilsjelaeÿnhún] eta oai [eÿnhún].
2. [arrestihún].
3. [gailhún].
4. [deilsjela] edo [deilsyla].

Lekukoaren oharrak:

Jinkoak deiziela egün hun, oai egün hun, egüerdi artio eta egüerdi iganez geoztik, arresti hun. (gero) gai hun. Deizila edo deizüla; [bailsuile]. Eta khantin igaitiarekin, haurrek e frankotan etzie kasüik iten e, nik bethi bonjour egiten, (...),

lehen haurrek erraiten zizien lehenik ta bai zùì e emaiten zin arrapustia, oai haurrak igaiten tüzü deusik erran gabe.

Eta urdek hū iten zutela erraiten zizien igaitiaekin eta horrek eztik hua re egin.

Ezezko datuak:

α C; “agur”? ♦ .

β C; “adio”? \approx [adio] üsin, khantin igaitiaekin e bena konbersasionia finitü ondun, phartitzeko, [adió] - [bailesadioilk] bestiak. (deneei erraiten).

“adixatz? ♦ biarnesez.

Transkribatzailearen oharrak:

ϕ

Metodologia-oharrak

1. Oharrik mikorik ez du egin inkesta-egileak.
2. “**Bonjour**” forma ez da eman erantzun gisa: zergatik?
3. Urdeei buruz apuntatu dena ez da zehatza eta ez da aise ulertzen (ulertuko da beste herrietan bilduari esker).
4. Jinkoa aipatzen da formuletan.
5. Jendeek elkar ez agurtzea gaurko usaia dela dio lekukoak.
6. *Adio* despeditzeko forma dela zehazten du.
7. **Ez adiorik** formulak, hemen ere, *adio* nolazpait motibatua dela erakusten du.

Herria: LARZABALE Lek. 1. Zint. 2A Zm. 540.

ERANTZUNAK:

1. [eγúnon Jinlkwakesasjelaeyunón] [goilsik baaille]
2. [eyunon].
- 3.4. [acláldehun].
5. [gau1 on].

Lekukoaren oharrak:

(8.etan) egun on Jinkuak ezazila egun on, goizik bahaile

(10.etan) egun on

(12.etan eta 14.etan) atsalde hun

(18.etan) gau on eta oherakoan [Jinlkwakesasjela gaulon], leheno, oai ez. Eta (partitzean) [berrisartjo], [ikhuzlartio], [adió] ere.

◆ [esadioiIk] erraitenbeitute [adioslekhúkakoc], salbuik noaiték erraiten die-laik adio, ez adioik la réponse.

+ [urdek wū iten die] arrailkerian erten (norbaitek ez bazuen nehor agurtzen), oai ezta kasuik egiten, ezbeitute [elhéilk emáilten] (= ne pas adresser la parole).

Ezezko datuak:

“adixatz”?; ◆ ez, biarnesa hori.

αC; “agur”?; Laphurdin ◆ [ayur].

Lekukoaren oharrak:

1. “Bahaile”; cf Aditz-morfologia.
2. “Salbuik”; semantika.
3. “Adio” ez da erraiten erreterari.

Metodologia-oharrak

1. Formula guziak ez dira eman erantzunen tokian.
2. *Bahaile* formari buruzko oharra ez da aski zehatza: *ibili* OR I 2 (Allièresen kodean).
3. **Adio** hemen ere “betikotz” gisa ulertzen da.
4. **Urdeak** berriz agertzen: norbaiten ondotik agurtu gabe ezin dai-tekeela igan azpimarratzen du lekukoak.

Herria: SOHÛTA Lek. 1. Zint. 2A Zm. 142.

ERANTZUNAK:

Lekukoaren oharrak:

ezaguna bada (agurtzen da)

(8.etan) [eynhón]

(12.etan) [arrestí hón]

eta [gaiI hón] ülhünari büüz

(erantzunak):

[bail hie], [bailsjére] edo [bailsjere pharte hú/ón]

◆ [z2inlkwadeiIsjela eynhon] oai ere (zenbaitek)

[adio] re

[isanúnclá]

[berrisárte]

[slarriárte]

◆ [aðis2ác] biarnesek

◆ [c2áo] frantsesez.

+ (jendea ez agurtuz geroz) [urdékeerrailten die eγyn hón] entzun dit etxekoer, ütsü züzün gizon bat, eta urder errapostia eman ziezün ustez khantian norbait bazela: bai zier e erran ziezün.

Ezezko datuak:

αC; “agur”? ez.

Transkribatzailearen oharrak:

∅

Metodologia-oharrak

1. Oharrak ez dago eginik.
2. Lekukoak berak emaiten ditu beste nonbaiteko formulak.
3. Urdeaz ere mintzo da; itsuaren narrazioaren bitartez, agurtzeko formulazioa automatikoa dela, erran nahi baita beharrezkoa dela markatzen du.

Herria: ISTURITZE Lek. 1; 2, Zint. 2B Zm. 680.

ERANTZUNAK:

1. [eyunhón] (18).
2. [acláaldeon] (19, 20, 21).
3. [gaulhón] (22, 23).

Lekukoaren oharrak:

(emaiten den arrapostua)

[bailhirié], [bailsurié], edo [gislaβera]

[gaulhon Jaulnatisula gaulhon]

(bainan) [adio] arribatzian edo pasatzian [addo] lagunen artian.

I. Apezari?

L. Ez, ezagunari [addo], edo [ayurdJaulna].

+ Itsu bat, bidian johan eta, urketa eh! Bazitiin bere usaiak eta johan zen makhila eskian uraan xeka eta bide-bazterrian pasatzian, zeit aditu ziin eta “bai zuri re” eta zerri bat zen. Jendia hurbiltziarekin zerriak in ziin [khwēn1k] eta hak ezpitziin ikhusten, bai zuri re, uste ukhan ziin norbeit zen...

Ezezko datuak:

“Parte hun”?: ♦ [partehún] Amikuzen.

Transkribatzailearen oharrak

1. “Egun hon” eguerdi artio.
2. Narrazio etnografikoa.
3. “Adio” erabilerak araudiak badituzke.

Metodologia-oharrak

1. Erantzun guziak ez dira beren tokian.
2. Apuntatzekoa da: **johan zen** (= “bazihoan”, ez “joaiten zen”).
3. Jinkoa aipu da.
4. *Adio* ez dela errespetu haundiko fórmula ageri da.
5. Urdea berriz ere: eta itsuaren historia.

Herria: BASTIDA Lek. 1. Zint. 6B Zm. 010.

ERANTZUNAK:

1. [ayur], [adio].
2. [eyunón].
3. [aac1aldeón].
4. [gaulhón].

Lekukoaren oharrak:

(emaiten diren arrapostuak)

[ađio], [ikhuslartio]

[isánuncla]

[bailsieRe]

eta [Jin1kwatisila gauhon]

[Jin1kwatisila eɸnón]

(agurtzen ez delarik) hori [muthur dun] edo [mus d0 por].

Ezezko datuak:

βC; “adio”; ♦ [esadióik] ez adioik partitzian [adiú], [kímba], [oR0ved0], [adic2ac] à deux ou trois.

1. Bakarrik baldin bada? L. [adiú].

Lekukoaren oharrak:

1. Egun on goizean eta eguerdi artio.
2. “Agur” eta “adio” ikustean edo partitzean.
3. Gaskoinezko formak aldatzen dira singularretik pluralerat.

Metodologia-oharrak

1. Lekukoak gaskoina badaki.

2. Urderik ez du aipatzen bainan *mutur*, eta **mus de por** bai. *Mutur*aren balio semantikoa interesgarria da hain zuzen jendetasun-eza mar-katzeko. Jakina denez *mutur* hitza ez da errexki aplikatzen gizaki bati ez baldin bada “arima salbatu ta” bezalako formula baten laguntzaz. Ikuste-koa da beste galdera batean *mutur* ez ote den agertuko, “maugréer, boulder” galderetan konparazione: (*muthur doo*, “il boude”).

3. Lekukoari gaskoin aditzaren morfologia gardena zaio: *adiu* eta *adixatz* ongi bereizten ditu elkarretarik. Beraz, gaskoinez, *adiu* hikako forma dela badaki erromanista guziek bezain ontsa.

Herria: ALTZAI Lek. 1. Zint. 2A Zm. 075.

ERANTZUNAK:

1. [eynhún], [bonz2ur] (18, 19).
2. [arresItihún] (20, 21).
3. [gailhún] (22, 23).

Lekukoaren oharrak:

[bailsuié].

[z2inlko húnak deisyla gail hún] ohilat juaiteko (norbaitek ez bazuen agur-zen) [borthakwek e hōrrrr eiten die], [s2erriak e mincacen día], edo [myty hisa bail].

(partitzean) [berrisártino] edo [adjo] juiten delaik (ez etortzean). Frantsesez ba: adieu, comment vas-tu? edo phartitzian [isanciteúnc1a] (adio erran daiteke ere zuka). Heltzen delaik [núlasia] edo untsa ezagutzen delaik [baduá], eta ziek ♦ [Junendéa] edo [3uiltendea].

TR. oharrak:

1. Egunean hiru formula.
2. Urdearen onomatopeiaren transkribaketa dudazkoa da.
3. Manexen formak (ezezko datuak) bere baitarik eman ditu.

Metodologia-oharrak

1. Hemen “bonjour” erantzun gisa apuntatu da.
2. Beste nonbaiteko formulak berak eman ditu; manexenak hain zuzen, Iratiko eremuan artzain egonik, Manexak han gurutzatzen bait ditu.
3. Hemen ere urdeak aipu, *borthako* eufemismoarekin.

Herria: LARRAÑE**ERANTZUNAK:**

1. [gai|hu~n].
2. [erynhu~n].
3. [arres|tihu~n].
4. [arraclaldehu~n].

Lekukoaren oharrak:

Gai hun beantilat, egün hun goizian, gero arresi hun eta arratsalde hun arrestia abantzatü ondun; (arrapostuak): [bähie], [bérgizlan], [bái|surie] (ez agurtezarekin) urdez e [hy] iten beiti3 (irriz) uano hua errapru~ bat da, nurbaitek, ni iganen nitzaitzü zure khantín adio ez jeusik erran gabe, zük behala erraen düzü e iten die igaitin [hy].

Ezezko datuak:

β C: “adio”? uano re. Lehen e, bena ordian phartitzeko: sekhülakotz, edo [adioilkes].

α C: “agur”? ez. Oai (orai erraiten edo entzuten dela) “agurtu”? ez.

TR. oharrak:

1. [nicái|cy]: izan I15, ik. aditz-morfologia.
2. urdearen onomatopeiaren trankrib. dudazkoa.

Metodologia-oharrak

1. *Errapru*: hitza apuntatu da; harekin batera jaso behar da taxonomia metalinguistikoa (*errapru*, *hizkuntza erran thermañu*, etaba).

2. Urdeak berriz.
3. *Adio* despeditzekoa dela.

Herria: ESKIULA Lek. 1. Zint. 2B Zm. 200.

ERANTZUNAK:

1. [z2in]kúak deilsjela eɣyn hũn].
2. [z2in]kúak hunat deilsjela arresl̥ti hũn].
(29 fonema (= letra + diakritikoa) + 4 zurigune).
3. [z2in]kúak deilsjela gail hũn].
4. [eɣyn hũn].
5. [arresl̥ti hũn].
6. [gail hũn].

Lekukoaren oharrak:

(1., 2., 3., erantzunak) lehenago.

(4., 5., 6. erantzunak) orai.

(arrapostuak: [bail ta sue pharte hũn], hua bethi.

1. Gazte batek zuri adio erraiten ahal du? (zu = lekukoa, 85 urtekoa).

L. Ez hanbat, [adio] lagünen artian, üsü; [berrisártino], erran nahi dü, biarnesez [adiu] ça veut dire au revoir, edo [adisapotapebla] adichats vient d'une déformation de [adiu siac] soyez à Dieu.

+bidenabar, lekukoaren emazteak senarrari diona Oloronerat joanbeharrean:

L2. “debrullatüko hiz?”.

L1. Joaiten ahal hiz, fidel izanen nün.

Ezezko datuak:

αC: “Agur”? ♦ Agur? Txostakan, ba hori manexa da.

Transkribatzailearen oharrak:

1. Ikus egungo eta lehenagoko formak.
2. Adio: ik. Palay biarnesez.
3. Toka eta noka ari dira senar-emazteak; ik Aditz galdakizuna.
4. “Agur”: balio ludikoa; trufa-aire.

Metodologia-oharrak

1. Gaskoinez ez da mintzatzen lekukoa (ez zen mintzatzen, hila baita P. Orbiscay adiskidea) bainan ulertzen zukeen.

2. *Adio* errespetu gutiagoko formula dela zehazten du.

3. *Adio* hitzaren biarnes etorkia ez du dudan ezartzen eta “**adixatz**” formaren dioena zuzena da: “siats” hori baita pluraleko forma (euskaraz, *zaitetz* edo *zaitezte* liteke).

4. *Fidel izanen nün* pasartea zertara datorren baten batek galdegin lezake. Ohar hau aditz-galdakizunean sartu behar da erreferentzia gurutzatuen bitartez. Toka ta noka mintzo direla bi lekukoak bidenabar hemen entzun da eta apuntatu, gerta bait daiteke gero lekuko batek erabilera hori ukatzea (ez da kasua izan lekuko honekin), dauzkan edo xertatu dizkioten eritzi edo aurre-iritzi linguistikoak direla medio, partikulazki hikako tratamenduaren kontra.

* * *

“Formules de salut” galderaren inguruan, horra beraz labur bilduz egin daitezkeen oharrak.

Galdera honetan ez dira uste zen bezain sinpleak agertzen diren erantzunak. Ez dira bakarrik orduaren arabera moldatzen, kontuan hartu behar baita bestalde:

– Mintzatzen dena gazte den ala zahar.

– Nor nori mintzo den, errespetua markatuz ala ez.

– Jendeek elkar ikustearekin ala edo elkarretarik bereiztearekin baliatzen duten.

Ikusgarri da nola bestalde *jinko* hitza, dirudienez, gero ta gutiago erabiltzen den formuletan eta ber denboran nola sartu den *adio* hitza lehengo ñabardurak lehertuz, bainan gaskoinez duen balioa arras galdu gabe, gehienetan *ez adiorik* arrapostua eragiten baitu, frangotan despeditzeko formula gisa baliatzen baita, eta askotan adin bereko edo maila bereko lagunaren artean erraiten baita, azken honek gaskoinerazko hikako formaren oihartzuna erakusten baitu. Bi hizkuntzen arteko hunkipenaz ere informazio baliosa emaiten du erantzun sorta honek.

Komunikazioaren etnografiaren aldetik, ohartzekoa da ere, zein gaizki ikusia den (zen) jendeek elkar ez agurtzea. Horren markatzeko denetarik bada: onomatopeiak, esaerak, narrazioak, protagonista zenbait hala

nola urdea eta itsua. Eta sinbolikaren munduan ezaguna den bezala, itsuei esker jendeak gauza frango ikus dezake.

Ohargarria da ere naizen transkribazaileak ez duela kuadernoko-notetan nehon aipatzen zein gaizki ikusia zen/den *egun on* erraiteak destenorez, erran nahi baita egunaren bigarren partean, alegia bazkal ondoan. Alta, hizkuntzaren didaktikaren aldetik, egitekoa den ohar horrek badu bere garrantzia.

Kapitulu hau ez nezake utz azken ohar bat errepikatu gabe: informazio hauek, maparatzen ez badira ere, lo egon behar direa gure inkesta-kuadernoetan?

ONDORIO OROKORRA

Hiru galdera hauen inguruan bildu diren erantzunak ikusi ondoan, balio du bi gogoeta egitea Atlasaren helburuez. Galdera gehienek mapa batean agertu behar litezkeela ezaguna da. Bainan, **mapa zertarako?** liteke gure kezka objektu linguistikoak maparatu aintzin.

Heteronimia bat, ongi haztatua izan den heteronimia baten berri emaita eta *erakustea* modu ikoniko batez, hori da maparen helburua.

1. Orai artio, edo hobeki erranik, gaur ere, badago Gilliéron-en kartografia-modua hurbiletik segitzen duen dialektologo hanitz; Gilliéron-en metodologia ezin hunkituzko axiomatzat daukate dialektologo horiek. Zein da Gilliéron-en kartografia hua? Herri batean eman den erantzunaren errealizazio fonetikoaren transkripzioa herri horrek mapa batean duen tokian kopiatzea.

Bidenabar, erran dezagun erantzun **bakar bat** baizik ez zegoela Gilliéron-entzat, bigarren erantzunik ez baitzuen jaso nahi.

2. Gaur, ezinezkoa iduritzen zaigu hain hertsiki jokatzeari, erdal adierazi bati ez bait doakio beti euskal adierazle bakar bat (aipatu gabe lan honetako adibideek erakusten dituzten galdera irekiak, bederen erantzun bikunak eragiten dituztenak).

3. Errealitate linguistikoaren murrizketa ekartzen du Gilliéron-en ikusmoldeak. Adibidez “*morcilla, boudin*” galderan, herri batean **tripot** formaren berri emaita besterik gabe, ez da hain objektiboa, dakigularik **odolki** forma ezaguna dela ere. Maparen helburua zein den garbi adierazi behar du eta ahalaz ezplizitoki mapen egileak. Helburu hauek guziak hemen ez da aipatzerik. Markatu nahi dudana da Gilliéron-en kartografia soluzio bat dela beste askoren artean eta ez soluzio bakarra, are gutiago kartografia objektiboaren ondorioa. Hautu baten ondorioa da.

4. Beraz mapa baten bitartez emaiten den “bisualizazioa” **hautatzen** da, nahi ta ez; fenomeno linguistiko baten bisualizazioa interpretazio baten freitua da. Fenomeno batean zoin alderdi utziko den gehienik ilunpean edo agerian maparen bitartez interpretazio baten ondotik **hautatzen** da.

5. Mapa bera egiteko semiologia grafikoa baliatu behar da; “bizualizazio” modua eta maila **hautatzen** dira. Mapa-mota batez Himalayatzat ekarria dena, beste batean satorroskitzat utz daiteke.

6. Mapez bestalde dagoen informazioa eman behar da: edo mape-tako leiendetan, edo mapetatik kanpo, maparatzen ahal ez den informazioa delarik. Adibidez “formulas de saludo-formules de salut” galderan agertu da herri anitzetan jendetasun-eza nola markatzen duten lekukoek urdearen agurra aipatuz. Esaera, onomatopeia edo narrazioen bitartez adierazten dena isomorfia bezalako zerbait dela sumatzen da. Testuek honen berri emaiten dute. Testuak diren bezala maparatzeak ez du zentzurik. Baina testu hauek mapan ez sartuak izanik ere, ez du erran nahi linboetara igorri behar ditugula.

7. Orijinaltasun haundiko informazio-iturria da inkestagintzak bildu duen dokumentazio hau: kontsultagarria izan behar da bai mapak egin aintzin, frangotan maparen egitura determinatuko dutelakotz, eta bai mapez bestalde, gainerateko informazio-kopuru haundia dakarrelakotz. Horrek eskatzen du datu-basearen egitura aski zorrotza izaita, behar bada “hipertestu” deitu tresneriaren bitartez. Kontuan har ditzagun nolako aktibitateak agertu beharko diren lekukoek produzitotik:

- Aktibitate parafrastikoa: definizioak, zuzenketak.
- Aktibitate fraseologikoa: esaerak, metaforak, paremiologia.
- Aktibitate lexikografikoa: lexia ez ezagunak, guti ezagunak, adiera berriak, teknikoak,...
- Aktibitate gramatikala: egitura sintaxikoa, aditz-formak, deklinabide-kasuak, erabilera ohargarriak.
- Aktibitate fonikoa: errealizazio fonetiko ohargarriak (askotan apropos egindako galderan agertu ez bezalakoak).
- Aktibitate metalinguistikoa: komentarioak hizkuntzari buruz.
- Jakitate entziklopedikoa: enpirikoa (etnografia, antropologia).
- Informazio ikonografikoak: eskemak, argazkiak.

Adibideak milaka daude.

8. Ezinezkoa dirudi testu hauek kontsultagarriak izaita ez baldin badute “indexazio” on bat jasaiten. Ez ahantz kopuruak haundiak direla:

2.800 galdera 145 herritan. Segur aski 500 milio byte baino gehiagoko basea izango da.

Gainera, gaur inkesta-egileak zintatik jaso ez dituen testu-zatiak bihar etzi transkriba daitezke. Posibilitate hori ez da gaurtik, hatsarretik moztu behar ez eta ere testu hauen esplotazioa eta edizioa.

9. Atlasak bi koordenatu nagusi dauzka: mapak (datuen "bisualizazio" bat bainan datu batzuren eta ez datu guzien "bisualizazioa), eta bildua den testua.

Biak, mapak eta datuak elkarren bete dira nerretzat. Bien berri eman beharko du sistima informatizatuak.

10. Ulertzen denez, sistima hori eraikitzea ez da berehala egiten den gauza: ari gara martxan jartzen bainan ez da dudarik horretarako laguntza teknikoa behar dugula informatikaren aldetik. Laguntza honek bi kalitate behar ditu oroz gainetik; goi-mailakoa eta iraupen haundikoa. Euskaltzaindiaren bitartez, laguntza hori Atlasak segurtatua duela jakiteak urtzera doazen hódeien artetik zeruzaharra erakusten digu.

ERDAL HITZEN MAILEGATZEA IPARRALDEKO EUSKARAZ

Donostia, 1990-V-25

Martin Haase

Bi hizkuntza baino gehiagoren arteko harremanak ongi deskribatu ez diren arren, harreman anizkoitz hauek linguistikarentzat balio handia dute, orozgainera harreman hauetan eskuhartzen duten hizkuntzak bes-telakoak baldin badira. Horrengatik euskarak eta erdal hizkuntzek elkar hunkitzea, bereziki euskara, gaskoin eta frantsesaren arteko harremana ikertu nahi izan dut, haren ondorioak aztertzeko Iparraldeko euskaraz. Artikulu honek Baxenafarroa eta Zuberoan ikusi ditudan fenomeno batzu aurkezten ditu.

Nire ikerketan¹ euskaldun zaharrak mintzarazi ditut beren biziaz, herriko gertaerez, egun eta lehengo gaiez. Testu transkribatuekin linguistikako azterketak egiten ditut, hemen aurkezten dudan arazoa haien parte bat baita. Artikulu honetan adibideak, kasik oro, Amikuzen mintzatzen den euskalkitik hartuak dira.

1. Mailegatzeko mailak, hizkuntza ereduak

Euskaran erdal hitzetako bost maila ikusten ohi ditugu:

- a) Latinetikakoak (adibidez: *bake*).
- b) Latin berantiar edo erromantzeaurretikakoak (adib.: *eliza*).
- c) Gaskoinetikakoak (gutxiago Hegoaldean, adib.: *engis(er)atu*²).
- d) Frantsesetikakoak (bereziki Iparraldean, adib.: *auto*).

¹ Nire inkestarendako hizlariak aurkitzeko eta elkarrizketa egiteko asko lagundu naute Elena Touyarou, Txomin Peillen eta Xarles Videgain euskaltzaleek. Haiei eta nire lekukoei eskerririk asko!

² "Galkatu" edo "kalkatu" (fr. "gaver", gazt.: "cebar").

e) Gaztelaniatikakoak (gehiago Hegoaldean, adib. *frango*).

Iparraldean, gaztelaniatikako hitzak gehienetan ez dira zuzenki gaztelaniatik etorri, baina lehenik mailegatu izan dira Hegoaldeko euskalki batetan edo, gero ta gehiago, euskara batuan, azken hau euskalki guztien eredu bilakatzen ari delakotz. Aspaldian latina hizkuntza eredu³ izan zen bezala, gero Iparraldean gaskoina eta, haren ondotik, frantsesa hizkuntza eredu bilakatu ziren, eta orain paper hau euskara batuak harzen du.

Baina, Iparraldeko euskaldun guztiak elebidun direlakotz (erran nahi baita frantsesa ere badakitela), frantsesak paper garrantzitsu bat jokaten du. Frantsesaren paper hau halere ezen Hegoaldean gaztelaniarena bezain garrantzitsua eta orain ere ez da hain indartsu. Zerengatik? Frantsesa Euskal Herrira etortzen zenean, hor bazegon hizkuntza eredu biziki garrantzitsua, hots gaskoina, honekilako elebitasuna hedatua baitzen. Gaskoin-euskarako elebitasunak euskara zaintzen zuen frantsesaren kontra. Frantsesa biziki gotorki landatu zen arren, gaskoina, hizkuntza eredu ohizkoa, nekez ordeztzen zuen. Erdal hitzen integrazioak hori erakusten du, askotan mailegu frango eredu gaskoinaren arabera dabiltzalaketz, ikusiko dugun bezala.

Baina gaskoinak Iparraldeko Euskal Herrian gaur arte duen garrantzia oraino hemen bizi den gaskoin eta euskarako elebitasunean nabarigarria da, eta, frantsesez mintzatzen direnean, Iparraldeko euskaldun zaharren ahoskatze moldean, gaskoinena iduri du eta.

2. Erdal hitzen integrazio bideak

2.1. *Integrazio fonologikoa*

Hitz mailegatuetan euskal sistemaren barne ez diren fonema batzu baditugu. Huna Baxenafarroan aurkitu ditudan adibide batzu (erdal fonemak bereziki seinalatu ditut):

- (1) estrandžerak (“arrotzak”)
- (2) aiže (“erraz”)
- (3) errepreZentatzione (“antzerki”, Z = z ozena: [z])
- (4) menažia (“etxeko lan”)
- (5) kōntaple (“kontulari”)
- (6) kunzellia (“kontseilu”)

³ WEINREICHEN (1963) terminologia arabera (*model language*).

Beraz, euskarak latinean edo erromantzeaurrean hitz batzu mailegatu eta integratu zituen (1.) hitz horien fonema edo fonemen multzo bat identifikatu zen fonema edo fonemen multzoarekin frantsesezko hitz berean (2.) eta egokitasun hori eredu bihurtzen da beste hitzen mailegatzeko (3.).

Frantziako hegoaldeko frantseskiak paper bat jokatu du, zeren frantseski gaskoineratuak ez baitu konsonante sudurkaria galdu bokal ondoan.

Ber maneran, *v* frantsesa gaskoinetik mailegatu ziren hitzetako *b* fonemari egokitzen zaio:

(8) boatüra (frantsesetik: *voiture* “auto”)

Frantsesezko hitzetan *ch* eta gaskoinezkoetan *k* fonemen egokitasunak hunkitzen ditu frantsesezko hitz berriak ere bai:

(9) brankatu (“piztu”, *brancher* frantsesetik)⁵

Gaskoinezko *c* edo bokal zorrotzen aurreko *c*, [s] ahoskatuak, euskararen *-tz*- gisa sartzten da. Haren esplikatzeko, erdua erromantze-aurreko edo gaskoin zaharrean bilatu behar dugu, zeinetan fonema hori [ts] ahoskatzen baitzuten. Denbora hartan fonema horrekin lehen hitzak mailegatu eta gaskoinean beranduago [s] ahoskatzea hartzen zuen fonema beti aspaldiko gisaz integratzen da, hizlariak desberdinak bilakatu diren fonemak /ts/ eta /s/ egokitzen dituztelakotz.

Hizlariak hizkuntza harremanetatik atera diren egokitze erregularak aurkitu eta erabiltzen dituzte hitz berrien integrazioan. Ibiltze horiek eragiten du erregulara iduritzen diena erabiltzeko eta bere erran moldeari zahar-aire bat emateko, hots “egiazkatzeko”, hizlarien nahiak edo beharrak.

Erdal hitzetako fonemek iraun dute eta euskal fonologiaren sistema inguratzen dute periferia batekin⁶ (taula 2).

Lehenik, periferiako fonologia ez dugu aurkitzen hitz berrietan baizik, baina hitz zaharrak berrietatik berezitzean hizlariak engainatzen ahal dira, orozgainetik egokiketa bat hatxeman dutenean. Adibidez, normalean euskal hitz zaharretako leherkariak ongi aspiratzen dituen hizlari elebidun batek (10) aspiragabeko soinuekin ahoskatu zuen:

(10) kuntatü

⁵ Adieraren arabera frantsesetik mailegatua da, baina PALAYek (1980) *brancar* (“adar-katu”) aipatzen du. *Brankatu* gaskoinetik etortzen ahal da frantsesaren gainean kalkatu den adierarekin? Hemen *makina* adibidea ere eman nahi nuen, Amikuztar zahar batek *maxina*-ren ordezkari baitzuen, baina *makina* euskara batuaren forma bada, hortik mailega lezake, ohartugabe ere bai.

⁶ Pragako eskolan hizkuntzalariek (VACHEK 1966) *erdigune* eta *periferien* terminologia erabiltzen dute.

Taula 2.

euskal fonologiaren sistemako erdigunea	jarraipena ⁷		periferia
ptk bdg mnh lrj sss ...	f	z ozena	v
	mp	ž	ž
		dž	bl
		pl	
	leherkari aspiragabeak		
	ü		
latin-errom.	gaskoinaren gisa	bokal sudur- -kariak frantsesaren gisa	

Hurbildu zuen *khondatü* edo *khontatü* hitz zaharra (aspaldian mailegatu zen hitz bat) *contar* gaskoinezko hitzera, [kun'ta] ahoskatu baita.

Orozgainetik, elebitasuna ahultzen denean, gure kasuan gaskoina galtzen denean, periferiako fonologiaren parte bat erdigunekoa senditzen ahal da. Horrengatik hizlariak sendimendua badute, *muntatü* edo *kuntatü* hitzetan *u* fonema *o* baino euskarago dela⁸. Azkenean erdal hitzen fonologiak “egiazko” euskal hitzak lotzen ditu, horrengatik Iparraldeko euskalki batzutan *untxa* (edo *untsa*), *hun* edo *zumbait* bezalako formak baditugu, horrengatik ere biarnes-eko fonologia azkarra da zuberotarrez eta *ü* fonemaren erabilera oso zabala da Amikuzeko euskalkiaren parte batetan.

Pundu honetan hiperzuzenketaren⁹ operatzea hautemaiten da. “Behar den bezala” mintzatu nahi duten baxenafarrek *untxa* erraiten dute, baina euskara ona ibili nahi duten frangok *zumbait* eta, gehiago ere, *kampo* eragozten dute. *Untxa* eta beste hitzetan *u* fonema egiazko euskara gisa hartzen denean, *mp* eta *mb* multzoak bestalde erdarak orbanduak dira.

⁷ Integrazioko graduak erabaki du, non dauden fonemak jarraipenean (*continuum*).

⁸ *Küillera* (“goilare”) adibidean gaskoinean bezala // palatalizatuarentzat azaltze hau hartu dut: *küiera* baino euskarago da: “Ça fait plus basque”.

⁹ LABOVek (1965) “hypercorrection”-fenomenoa New Yorkeko anglesan deskribatzen du.

Zuzenki *mp* eta *mb* erdaratzen hartzen dituzte: Euskal fonologiak norma-lean asimilatze aurrerakaria erabiltzen du:

(11) ez + da > ezta
+-->--+

(12) bil + tu > bildu
+-->--+

(13) kontatu > kondatu
++

Asimilatze atzerakaria ez zuen ezagun. Baina periferiaren atetik, sartzen ahal zen:

(14) kōntaple

Asimilatze itzultzearengatik Baxenafarroa eta Zuberoako euskalkiek asimilatze aurrerakaria galdu dute neurri batetan:

(15) kuntatü (ez: kundatü)

Azentua

Azkenean hitz batzu azentuari buruz: Zuberoerak azentua nolaz duen ez dezaket esplikatu, baina fonologiaren aldatzea gutxiago aitandu den Baxenafarran ikusten dut erdal hitzek bakarrik azentu indartsu bat ekartzen dutela:

(16) pre'fosta ("noski", erromantzeaurretik)

(17) trak'türa

(18) ba'tüxa ("garijotzaile", gaskoinetik)

Azentua fonologiako periferian kokatua da gehienik, eta gero ta gehiago, erdigunean sartzen ahalko da. Zuberoerak azentua zerengatik ezin da hola agertua ahal izan? Bederen, azentu zuberotarra lehengo euskaratik etorria baldin bada ere, periferian azentuekin dauden hitz gaskoinek zuberotarrezko azentua kontserbatzera bulkatu dukete, gutxienez.

2.2. Integrazio morfologikoa

(3) eta (5)-garren adibideetan ikusi ditugun gaskoinezko fonologiaren fenomenoak atzizkietan kontserbatu ziren:

(3) errepreZentazione ("antzerki", Z = z ozena: [z])

(5) *kōntaple* (“kontulari”)

Errezki azaltzen da, zerengatik kontserbatzailea den atzizkien fonologia. Morfologiaren elementu bera aldi bat baino gehiagotan mailegatzen da eta horrela eredu bezala ezartzen da. Adibidez, mailegu zaharrek *mendu* atzizkia euskarari sartu izan dute eta gero elebidunek gaskoinezko *-men(t)* atzizkia horrekin identifikatu eta *mendu* eredu indartzen dute. Bestalde, *-men* atzizkiaren diren hitzak agertzen dira. Orain azkenean euskara eta frantsesezko elebidunek bi ereduren artean aukeratu behar dute. Adibide modernoek *-mendu* modelorako isuria erakusten dute:¹⁰

(19) *errexitamendu* (“grabatze”, frantsesetik: *enregistrement*)

(20) *erremembramendu* (“lurak berriz banatze”, frantsesetik: *remembrement*)

Testamen eta *testamendu* arte zalantzan den lekuko batek arkaismoaren alde jokatu du, *-mendu* atzizkia euskara egiazkoagoa delakoan.

Bestalde, kontserbatzeko nahiak azaltzen du erdal izenen *-a* bukaera. Beti *a* idazten den izen emezkoen bukaera gaskoina hizkuntza honen bilakatzean aldatzen den arren, idazten ezin duten hizlariak ere mailegatzeko hitzen bukaera hitz mailegatuen *-a* bokalarekin beti egokitzen dute. Orain arte iparraldean izenak horrela mailegatzen dituzte hizlari elebidunek, frantsesa asko urrutiratu bada ere bukaera horretatik.

Segurki *-a* bukaerarekin integrazioaren eredu izen emezkoena zen arren, laster gizonezkoetara hedatu zen. Lehenik emezkoentzat hartu zituzten hitzek *-a* lotu zuten, *kantika* erdal hitz zaharrean bezala¹¹, eta gero iparraldean izenen integrazioaren molde normal bihurtzen da:

(21) *telefona* (Hegoaldean: *telefono*)(22) *kilometra* (Hegoaldean: *kilometro*)

Gaskoinak ez du ezagutzen *o* bukaera izen gizonezkoentzat, hauek bukatzen baitira konsonante batekin. Modelo falta delakotz, iparraldean ez dugu *o* bokalarekin bukatzen den izen askorik. Gaztelaniarekin harremanak duen zuberotarra lekoratu behar dugu: hona eredu gaztelaniarri darraioten adibideak (ikus Peillen 1986):

(23) *benefizio*(24) *komerzio* (Baxenafarroan *komesu* gisa entzun dut ere bai)

¹⁰ Arrazoia izaiten ahal da, *-men* edo *-pen* euskal atzizkitzat hartuz geroz, hizlariak ezin dutela erdal hitzak integrazteko eredu bezala erabiltzen.

¹¹ Neutro latinaren pluralak papel bat jokatu du hitz honetan?

Zalantzan jartzen dut, iparraldeko jendeek *telefono* onetsiko duten, espainolegi zaielakoan; baina *kilometro* entzun dut iparraldean prestigio soziala duten jendetan. Hegoaldetik eragin garrantzitsuaren azpian beste *o* bukaerarekilako hitz batzu erabiltzen dituzte eta euskara batuan hitzak bilatzen. Uste dut, horrela hedatuko direla forma horiek¹².

Aditz integratzeko ereduak aditz erromantzearen lehen eta hirugarren, hots *a-* eta *i-*aditz-klaseetan aurkitzen ditugu; *-tu* euskal aditz-atzizkia hitz-basera gaineratzen da:

(25) *gask.*: *mastecar* [maste'ka] → *mastekatu*

(26) *gask.*: *seguir* [se'gi] → *segitu*

Aditz zaharrek *khondatu* bezalako ereduaren aintzintasun handia frogatzen dute¹³.

Horrela, bi eredu (*-atu* eta *-itu*) hartzen du euskarak. Erromantzeko bigarren edo *e-*aditz-klaseak ez du batere paperik jokatzen. Horren azaltzeko hiru arrazoi badira:

– Klase honen arabera aditz gutxi dabilta.

– Aditz horiek ez dute adierazten kontzeptu berririk, zeinentzat hizlariak hitzak mailegatu behar baitituzte.

– Gaskoinezko barietate batzuetan bigarren klaseko aditz asko hirugarrenera pasatu ziren (Rohlf's 1970: 212), jadanik garai zahar batetan, zeren nahasketa batzu beste okzitanierako barietateetan aurkitzen baititugu.

Gero, hizkuntza frantsesa etorri da eta elebidun berriek egokiketa horiek egiten dituzte:

(27) *frantsesez*: *-er* = *gask.*: *-ar* = *eusk.*: *-atu*¹⁴

(28) *frantsesez*: *ez -er* = *gask.*: *ez -ar* = *-ir* = *eusk.*: *-itu*

Heldu diren frantsesetikako adibideek lehen aditz-klasearen integrazioa erakusten dute:

(29) *fabriquer* → *fabrikatu*

(30) *occuper* → *oküpatü*

(31) *vernisser* → *bernizatu*

¹² Hizkuntza aldatzean prestigio sozialaren papelari buruz, ikusi LABOV (1965). Holarako jendeak bereziki irakasle eta apaizak dira.

¹³ Hizkuntzalari batzuren ustez *-tu* bukaera latinezko *-tum*-arekin egokitzen bada, eredu *-atu(m)* eta *-itum* aditz-izena izan liteke, gero horiek *-ar* eta *-it* egokitu ziren. Kasu hau ere erakutsi dudan molde beraren arabera dabil.

¹⁴ *Gask.* ordean, eman nuke *gast.* ere, gaztelaniarekin egokitutasuna berdina delakotz.

Ondokoak hirugarren aditz-klasearena erakusten du:

(32) finir → finitu

Heldu direnek bigarren aditz-klasearena:

(33) comprendre → kom- edo konprenitu

(34) recevoir → errezebitu

Lehen aditz-klaseko maileguak ugarietak dira, baina ez da agertzen aditz berririk *-etu-ekin. Guztiek modelo zaharra jarraitzen dute.

Modelo horrek azaltzen ahal du, zerengatik ondoko adibide bezalako euskal aditzetan -atu agertzen den:

(35) maite → maitatu¹⁵


Azkenean, -atu-z bukatzen diren aditzen uholdeak modelo eman du, nire ustez, Videgainek (1989.101)¹⁶ Oztibarren aurkitu duen aditz-erroaren -a harrigarriarekin:

(36) eztiat nahi busta hain (< *bustatu, normalean: busti)¹⁷

3. Bururapen gisa

Ezaguna da, hizkuntza baten sistema hertsia ez dela. Auzoko hizkuntzetatik biziki berezia delakotz, euskarak erakusten du, nola elementu berriak sistemaren periferiatik sartzen diren. Euskarako parte bilakatuak direlako, halere gutxi edo aski periferian dauden elementuak ereduak bezala erabiltzen dira beste elementu berriagoak mailegatzeko eta integrazteko, beste hizkuntzarekilako hunkibidetik badatoz ere bai. Taula batez (Taula 3) sistemetakoa interferentzia hori erakutsi nahi dut:

Taula 3.



¹⁵ Euskal hizkuntzalariek *egoite, joaite, emaita, joite* formak fonetikako barianteak bezala azaltzen dituzte. Galdegiten ahal da, hitz berrien -itu modelook papel bat jokatu ez duenez, haien kontserbatzeko bederen.

¹⁶ Haren lan zabalak euskal hiztegiaren aberastasuna frogatu du. Maileguaren ikerketa, euskara eta orotako lexikografia eta dialektologiarentzat nagusia da lan hori.

¹⁷ Bokalearen aldaketa oinarri lizateke subjuntiboan bokale "tematikoa" aldatzen duen modelo erromantzearen gainean (gask.: *aima* → *aime* "amite, 3.SG, indikatiboa → subjuntiboa" edo *baten* → *batian* "jo, 3.PL, indikatiboa → subjuntiboa").

Hemen aipatu ditudan fenomenoak ez dira mugatzen euskara eta erdaren harremanetan, baina hizkuntzetako hunkitze guztietan paper bat jokatzten dute. Bi adibide ezagun emanen ditut.

Integrazio fonologikoarentzat hona adibide erruso bat: hizkuntza errusoak *h* fonema ez du ezagutzen. Errusoak alemanezko *h* duten hitzak integratu behar zituenean, eredia beste erdal hunkitze zahar batean aurkitu zuen: *h*-tik hurbila den frikatibo ukrainiera, *g* bezala integratzen baitu. Horrengatik *h* alemana *g* gisa integratzen da errusoan. Gero, *h* frantsesa integratu behar du eta *h* alemanaren arabera *g* bihurtzen. Hola, olerkari frantsesa *Hugo* [ügo] ahoskatua, errusoan *Gjugo* bilakatu da.

Adibide morfologikoak *-atul/-itu* integrazioaren antza du: alemanak erdal aditzak *-ieren* atzizkiaz integratzen ditu. Atzizki honek lehenik frantsesezko aditzak integratzen ahal zituen bakarrik, infinitiboaren bukaera frantses (*-ir* edo *-er* > *-ier* pasatu baitzen) eta alemanetatik (*-en*) eraiki delakotz, baina gero beste hizkuntzetako hitzak integratzeko erabiltzen da (adibidez: *to shampoo, angalesetik* > *schampunieren* "xanpu egin, 'xanpuatu'")¹⁸.

Ikusi dugu hizkuntza harremanetan ereduak paper garrantzitsua jokatzten dutela. Noski, hitza unitate oinarritzkoa da, morfologia eta fonologiaren elementuak ez direlakotz mailegatzten isolatuak balira bezala, baina beti hitz unitatean. Halere, aspaldiko modeloek eta ereduak hizlariak gidatzen dituzte eta erabakitzen, zer eta nola integratzen den, hots azkenean, nola hizkuntza aldatuko den.

Martin Haase
Institut für Sprachwissenschaft
Universität zu Köln
D-5000 Köln 41
Alemaniko Errepublika Federala

¹⁸ BREU eta GLASERen artikulua (1979) italo-albanierako beste adibide batzu eman ditu. Haien artikulua nik dezagudan bakarra da hizkuntza harreman anizkoitz batetako mailegucen buruz (italiera-kalabres-albaniera).

BIBLIOGRAFIA

- BREU, Walter; GLASER, Elvira (1979): "Zur sprachlichen Situation in einer italo-albanischen Gemeinde", *Münchener Zeitschrift für Balkankunde* 2: 19-50.
- LABOV, William (1965): "On the mechanism of linguistic change", in: Kreidler, Ch. W. (ed.): *Monograph Series on Language and Linguistics*. Vol. 18: 91-114, Washington, D.C.
- PALAY, Simin (1980): *Dictionnaire du Béarnais et du Gascon moderne*, Paris: CNRS.
- PEILLEN, Txomin (1986): "El castellano y lo español en la provincia de Sola", *Fontes Linguae Vasconum* 47: 99-114.
- PEILLEN, Txomin (agertzeko): *Les emprunts de la langue basque à l'occitan de Gascogne (Etude du dialecte souletin de l'euskara)*, Groupe de recherches "Vasconiana" 2.
- ROHLFS, Gerhard (1970): *Le gascon*, Tübingen: Niemeyer.
- VACHEK, Josef (ed.) (1966): *Les problèmes du centre et de la périphérie du système de la langue* (= *Travaux linguistiques de Prague* 2), Praga: Academia / Paris: Klincksieck.
- VIDEGAIN, Charles (1989): *Le vocabulaire de l'élevage en Pays d'Ouzibarre* (doktormailako tesia), Bordele: Université de Bordeaux III.
- WEINREICH, Uriel (1963): *Languages in Contact: Findings and Problems*, Den Haag: Mouton.

**GASKONIAKO OKZITANOARENGANDIKAKO
MAILEGUAK EUSKARAZ
(Zuberoako euskalkiaren azterketa bat)**

Donostia, 1990-V-25

Txomin Peillen

Egin dudan ikerlan batez da txosten hau. Etimologia hiztegi bat abiatu omen da, eta horrek aringura bat sor lezake ezen ez baita euskalkika, maileguen monografiarik egin aspaldixkan. Neronek lantxo bat eman nuen Fontes Linguae Vasconum delakoan, zuberostatik abiatuz euskalki horretako gaztelaniazko maileguen nolakotasunak aztertuz. Tesia irakurri nuen egunean Bordeleko Unibertsitatean, Jacques Allières ek aipatu zidan, gaskoin maileguen biltzeko egokitasuna; zoritxarrez elkarrengandik urrunxko ginen lan hori biek egiteko, zorionez, haren ikasle izana eta oraintxe lankide eta gaskoin erakasle den Salles-Loustau jaunak, mailegu batzuen segetuak zulatzen lagundu nau, eta oroz gain beraien okzitano grafia berriari ipintzen Eskerrak zor dizkiot hari bai eta euskalzale ta erromanista izan diren H. Gavel, R. Lafon, J. Allières-ei ere. Hona lan honen laburpena:

1. *Hitzaurrea*

Bederatzi orrialdetan zuberoraren eremua mugatzen dut eta aipatzen gure probintzia horretan mintzatzen diren bi euskalkiak eta okzitanoaren gaskoin dialektoa hitzegiten duten herriak. Zuberotarren poliglosiaz Bela-k eta Egiategi-k egin aipamenak ematen ditut eta gaur gaskoin hitzen edo hizketaren sei erabilpen motak sailkatzen. Zuberoraren ezaugarri nagusiak azaltzen ditut.

2. *Metodologia hamar orrialdetan, lehenik. Iturriak*

1.a) Euskarazko eta idatzitakoak.

—P. Lhande, J. Larrasquet, J. Epherre, J. Casenave-ren hiztegiak arakatu ditut.

– Herri literatura idatzia: XVIII. mendeko astolaster ta trajikomeriak, XX.m Allande Elixagaraien ipuinak.

– Medikuntzako testu zaharrak eta berriagoak (XVIII-XX.m.raino).

1.b) Euskarazko lekukotasun mintzatuak eta hitzen kontrola, ama gureari entzunezkoak kanpo, Ligin Dordorruga, Elixagarai ta Axtegin bilduak izan dira eta Santa Grazin Hardoi, Junet, Salaberri, Etxeberri-porta Arrako auzo etxeetan, eta herri medikuntzako grabaketak.

1.c) Okzitanozko iturriak.

– V. Lespy ta S. Palay-en bi gaskoin hiztegiak luzaro arakatu ditut, gure gaskoin itxurazko hitzen etimologiak bilatzeko eta P. Lhande-ren hiztegian, hala hola, agertzen direnak segurtatzeko.

– Jean Salles –Loustau Pabeko fakultatean, okzitano erakasle denak ehun baten bilatzen lagundu nau laurogeitamar bat, aitarik gabeko maileguak geratzen zaizkidalarik.

2. *Sailkapenaren aurkezpena*

Corpus-a honela idatzi dut:

1.ik) Zubererazko hitza Euskaltzaindiko ortografian dago baina aha-lik kontsonante aspiratuak idatziz eta azentua markatuz. Hitzak muga gabea emanik dira. Beharra denean eta ez gehiegi zailtzeko, batzutan gramatika oharra badago edo aditz, izen, adjetibo oharra eta beste.

2.ik) Erabilera (hitzegileekin kontrolatua) eta laburpenez: galdua, ez erabilia, gutxi erabilia, asko erabilia, hapax eta abar.

3.ik) Okzitanozko hitz iturria, lau orrialdetan azaltzen dudalarik horren grafia eta horren ahoskera.

4.ik) Hitzaren frantseseko itzulpena.

5.ik) Dagoenean hitzaren zubererazko sinonimoa.

Lan hau egin dut denbora berean okzitanista ta erromanistentzat eta horregatik Mitxelenak erakutsi bidetik Fonetikarekin ta Hiztegiarekin horien hizkuntza, batean, frantsesez dago ikerlana.

3. *Metodologiaren bi erakuspen gisa*

Bi kasu bereizi ikertzen ditut zailtasunen erakusteko: XVIII. mendeko astolasterretan diren mailegu hitz bereziak.

XVIII. mendeko eta morfopsikologiako testu bateko gaskoin maileguak.

4. *Corpusa ondotik dator: 102 orrialde ditu*5. *Epilogoia edo azterketa (laurogei ta bat orrialdetan)*

5.1. Okzitanotikako maileguak

* Ahozkoen nagusitasuna, idatzizkoen gainean.

* Zubereraz, bearnes menditar auzoei mailegatu zaiela nabari da maiz.

* Zenbakiak eta maileguak.

Hustuketa handia egin dugu, hitz arruntak behintzat gehienak hor daude: denetara 1621 hitz bildu ditugu behin baizik ez badira testu bakan batean agertzen edo behin baizik ez baditugu entzun ere, horietatik 891. gorde dira eta Zuberoa guztian gutxi edo anitz gaur erabiltzen dira: horrek erran nahi baitu zubereratik pasatu diren gaskoin hitzetatik % 54,96 bizirik dirautela nonbait erdiak, besteak osoki galdu.

* Maileguen galeraz edo galtzeaz ohar batzu.

– Galtze hori zubereraren hiztegi orokorra murriztetik hel daiteke.

– Gaskoin-euskara dakiten zuberotarrak, Biarnoko muga herrietatik kanpo, bakandu egin dira.

– Batzutan frantses hitzak gaskoinezkoa galerazi du.

– Hitz horiei lotuak ziren teknikak galdu dira.

– Auzo herrietan gaskoinak beherakada bat ezagutu du.

5.2. Maileguen semantika sailak

1. Hirurogei ta hamazortzi (78) hitzez kanpo denek, sinonimoa zeukaten, batzutan berdin berdina edo askotan ere ñabardurekin bizpahirur sinonimo, hitz elkartu edo esaldiak. Sinonimorik ez dagoenean, gehienetan, *teknika* eta *tresna* hiztegian gaude.

2. Halere maileguak *hitz debekuen* eta *zikinkerien* izendatzeag nagusi dira, bai eta *birauetan* ere, nahiz hor gaztelania buruzagitzen den.

3. *Sukalgintzan*, okzitano maileguak garaile ditugu, eta bereziki goxogigintza eta bazkalondoko zeretan.

4. Ofizio batzutan, oihal ta ehungintzan, altzarigintzan, hargintzan, zurgintzan euskara erdizka iristen da okzitanoarekin.

5. Nekazaritzan tresna asko Biarnotik sartu ziren ezgero, okzitano hitzarekin etorri ziren, gero frantses hitzekin, garia jotzeko “batüsa”,

egurrak trenkatzeko, “tronzoneusa”, gaur ingelesetik bezala *kornkriper*, *raundbolero*, *krip* eta abar.

6. Frantsesek “hitz abstraktu”, deritzenetan okzitanoa gutxi sartu da, gaitzespenezko psikologia deskribapenetan apur bat; erlijio hiztegia, bizpahirur hitz hala nola *kalundje*.

7. Botanikan zoologian, geografian, oso hitz gutxi mailegatu dute zuberotarrek. Zuzenbide hiztegia hamar bat hitz.

5.3. Maileguak eta fonetika

Gaskoinaren fonetikan (okzitanoaren alderantziz) f. guti dagoelarik hitzen hasieran, berdin maileguetan; “r” gutxi dago edo zen gaskoinean hitz baten hasieran, eta maileguetan batere ez da agertzen. Beharbada modaz, joeraz ezpainkari ugari agertzen da -m. -b hitzen hastapenean (132, 112), leherkari gorak, p, t, k (denetara 560) d, g (74, 79) ozenak baino ugariago dira askozaz.

5.4. Dudak Lehenik badaude gaskoinaren itxura daukatenak eta okzitano hiztegieta aurkitzen ez direnak 90 hitz; kasu batzu hartzen ditut banaka, zailtasunen erakusteko

5.4. Maileguen fonetikaren esukalduntzea

/Oe/ jadanik gaskoinek /y/ bilakatzen dute eta hala dator zubererara ta euskalki honek arau berdina aplikatzen dio frantses maileguari zuzenka. Gaskoinak berdin hasierako “r” bati ar- edo er- protesia gaineratzen diolarik euskarari, errazago zaio gaskoinetik hartzea eta zeharbidetako mailegu frango daukagu; berdin hitz bat st- edo/ta -sp hasten delarik gaskoinak e- protesia lotzen baitio, euskarak errez mailegatzen ditu horrelako hitzak.

Aintzinako maileguetan —eta gaztelaniatikakoetan berdin— leherkari gorak aspiratu egiten ziren, mailegu berriagoetan ez; gero fonetikako ala jatorrizko planteamendu bat eman ote behar zaio; zubererak ezin onartuzko kontsonantei, hitzen azkenean, m, b, p, ta holakoei baita batzutan t-ri ere zubereroak ü, o bat, u bat, a bat gaineratzen baitu baina denbora berean forma berdintsuak aragonesean ematen baitira eta ez gaskoinean, beste duda iturria daukagu hor.

5.5. Maileguetan semantikazko aldaketak

Hitz batzuen esan nahia hedatu edo estutu egiten da hala nola, *abantxü* (kasi) *aperentzia*, *alegia*. Erran nahi berriak sortzen *zozoa'rentzat* bekatux (gask. *pè a capsùs*), *buruz behera murlas* (ahari arraza) *Munttot*, *Munttaut*, deabruaren gaitzizena.

5.6. Kalkoak eta eratorpenak

Akort eta apart, eskandala txerkha-, mau emplegat esaldiak dira baita *kabarra hüstü* (kalko).

Eratorpenetan, txipigarria -txot(ematxot) izenondotan -us (kürius) egintza atzizkietan -ter, -lant, -dant (gezürter, salhater, ogendant) euskarazko hitzekin erabiltzen direnak, gero okzitanokoak dira, *-aire, -aide aje, -es* eta *-ler*, agian ere *-men* eta *tür?*

5.6. Eredugintza edo semantikazko kalkoa

Euskarazko *ützi, eitzi* semantika alor zabalekoa zen, baina okzitanoaren kontaktuan, euskarak kasuekin eta osagarri motekin, norbait, zerbait, norbaiti, zerbaiti ezar zezakean eta ipintzen zuen lekuan hirur aditz mailegatu dira okzitano ta erroman hizkuntzen kategorietan sartuz, *utzi* zabalaren orde: *abandona-, kita-, pharti-*

Horrelako eredugintza frantsesak eragiten die zuberotarrei eta diglosiaren arazoa eztabaidatzen dugu hor.

5.7. Konotazioak

Gaitzespenezko hitz asko okzitanotik hartzen dira, baina diglosiarik ez denean ere gertatzen direla horrelakoak badakigu: halakoak dira: *afrus, ahul, arrogant, arnegat, bahest, malestrük, maladret, pek* ta beste.

5.8. Hitz arraroak

Okzitanzaleentzat bada zer bildu hitz gutxi erabili, edo hizkuntza hartan hil direnekin, baina ez gara horretan sartu, non ez zen corpus-ean trenkatu beharrik.

5.9. *-Es* herritar atzizki gisa erabiltzea zubereraz

Luzaro aipatzen dugu ez baita gai erraza, gaurko mekanika ez baita agian atzokoa.

6. *Euskal izenen eta hitzen gaskointzea*

Gaskoin formen nagusitasuna aspaldikoa da zentzuak okzitanoz egiten zirelakoz eta azken urte horretaraino euskarazko izena ez baitzen legezko baina okzitanoez eman itxurapean herrien sarreretan. Orain jenderen izenekin, frantsesak dauka eragina, euskaraz hitzegiten denean ere, etxearen izena aski errespetatzen bada, firmakoa frantses ahoskeraz ematen da. Ez da Zuberoako gaitza bakarrik.

7. *Okzitano hitzak beste euskalkietan*

Hasiera batean A letraz hasten ziren hitz zerrendak, Nafarroa Behe-
rekota Lapurdiko ikasleei irakurri nizkien eta gutxi gora behera orrialde
bakoitzean hitz bizietan bat edo bi ez zuten ulertzen; gero hizki berdina-
rentzat Lhanderen hiztegia harturik, ikusi nuen zuberotarrek erabiltzen
ez dituzten hamar bat hitz zeudela okzitanotik lapurdierara iraganak eta
beste horrenbeste eta ez berdinak, behenafarreraz. Ikerlan honetan agertu-
ko ez den sundaketatxoa egin dut Txomin Agirrerren Kresalan eta kontu-
ratu naiz, bakarrik txalupa-ren hiztegian, lau gaskoin hitz zeudela.

Hor ere ikusten da behenafarreraz nekazaritzazko hiztegian dela sar-
tzen gaskoina eta Lapurdi-Gipuzkoan itsas bizitzako tresna hiztegian,
arrainen izenetan eta abar. Gero hurbiltasunak egiten du diferentzia,
ezein Lapurtarrek, Chalosse-koei hartu badiete *koka* hitza zuberotarrek
Biarnoko azpieuskalkiari *piñolet* hartu. Mailegu horien zergatiaz kanpo
beraien balorapena egiten dugu.

8. *Euskara batua ta okzitanoa*

Hor harrigarriago da, ez baitugu benetan Euskara batuaren hiztegi
aruntik Kintanaren eta ekipoaren *Hiztegia 2000*ra jo dut eta A hizkiari
mugatuz konturatu naiz zubereraz bizirik dirauten A-dun 76etatik 70
hor zeudela eta horrez gain lapurtarretik eta gipuzkeratik hartu hitzak,
ezen Euskaltzaindiaren hitzez.


“Euskal hitzak dira euskara bizian sustraiturik daudenak”.

Egia esan, beharrik gabe sartu diren asko, atera direla.

9. *Ondorioz*

Kanpoko zioak aztertzen ditugu: tekniken jatorria, artzainen eta esku-
langileen migrazioak, haurren trukea, komertzioa), gobernu hizkuntza.

Barne zioen artean: azpimarratu dugu ereduaren (eskolan ikasitakoaren
prestijiozko hizkuntzaren) garrantzia eta ez beti beharrezkoak, debekuak
hizkuntzaren zahartzeak, berritzeko eskolarik eza eta abar. Batzutan mai-
legua aberastasuna baita.



**EUSKALTZAINDIAREN
BATZAR-AGIRIAK**

Donostian, Gipuzkoako Aldundiaren jauregian, 1990eko urtarrilaren 26an, goizeko hamar t'erdietan egin dute euskaltzain osoek hileroko batzarrea. Bildu dira: J. Haritschelhar burua, J. M. Lekuona buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, J. A. Arana diruzaina, P. Altuna, P. Charriton, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, Tx. Peillen, J. San Martin, I. Sarasola, L. Villasanté eta P. Zabaleta, euskaltzainak; J. L. Lizundia idazkariorde urgazlea.

P. Salaburuk ezin etorria erdierazi du.

Abenduko batzar-agiria onartu da.

Dialektologia batzordeko partaide den Rosa Miren Pagolari zorionak emango zaizkio, Deustuko Unibertsitatean pasatu berri duen tesiagatik.

Akademia Espainiarrari doluminak bidaliko zaizkio hil berria den Damaso Alonso zuzendari ohiaren galera dela-eta.

Batzar egutegia

Larramendiren III. mendeurreneko ospakizunei buruz Zuzendaritzak onarturiko proposamena irakurri du euskaltzainburuak. Erakunde ofizialekin harremanetan sartzeko, nahiz Jardunaldiak eta ospakizuna prestatzen joateko, batzorde baten beharra azaldu du. Horretarako, izen hauek aipatu ditu: J. M. Lekuona Gipuzkoako ordezkaria, batzordeburu. I. Sarasola Hiztegegintzako burua, M. Azkarate LEF azpibatzerdeko arduraduna, J. A. Aduriz LEF-eko idazkaria, P. Altuna Gramatika batzordeburua, P. Goenaga Gramatika batzordeko idazkaria, J. A. Arana Martija erakusketa antolatzaile eta J. L. Lizundia batzorde idazkari. Batzorde hau suntsikorra izango da, eta batzarreak onartu du.

Larramendi Loiolan bizi eta bertan ehortzia izan zenez, ez ote litzatekeen han ere zerbait egin behar, galdetu du P. Altunak. Kontutan hartzen dela oharra, erantzun zaio.

Otsailean Bilbon egitekoa den batzarreko egitaraua finkatu da gero. A. Irigoyen jaunak egingo du P. Novia Salcedori dagokion txostena. Bigarren ospakizune-

ko G. Manterolari buruz J. San Martin mintzatuko da. Kasu honetan, Zeanuriko Udalari eta Manterolatarrren familiari gomitak igorriko zaizkie.

Eta 1990eko batzar egutegiaz ari garenez, Gregorio Arrue zenaren mendeurrena aurten betetzen dela aditzera eman du P. Altunak.

Kanpo izendapenak

Madrilgo Kultura Ministeritzaren eskariz, urteoro iragarri ohi diren Literatura sari Nazionalerako partaideak izendatu dira. Kondakizunen epaimahairako I. Sarasola; saiakera sariketarako P. Altuna, eta olerkigintzako lanetarako J. Kortazar.

Era berean, Itzulpenen sariketarako Madrilgo Kultura Ministeritzak egin duen deialdiari erantzuteko, bi ordezkari izendatu dira hautapen batzorderako: P. Salaburu eta J. M. Larrarte, A. Sagarna izango delarik ordezkioa. Itzulpenen sariketako epaimahaikidea E. Knörr jauna izango da.

Basauriko Udalak zonaldeko euskalkia jasotzeko beka bat antolatu du. Hautagaien artean aukera egingo duen epaimahairako ordezkaria eskatu du. L. Villasanten joango da.

Debako Udaletxearen eskari bat jaso da, Euskara arduradunaren lanpostua betetzeko egin beharrak dituen azterketa saioetarako Euskaltzaindiaren ordezkari bat eskatzen. X. Mendiguren izendatu da, R. Badiola izango delarik ordezkioa.

Beste maila batean bada ere, Oviedo-tik "Fundación Principado de Asturias" Elkargoaren zuzendariak 1990eko "Asturiasko Printzea" izeneko sarirako iragarpenen baldintzak bidaltzen ditu, hautagaien baten izena aurkezteko Euskaltzaindiak duen eskubidea iragarritz. Martxoaren 15ean amaitzen da aurkeztu ahal izateko epea.

Berriro eta inoiz baino arrazoi gehiagorekin J. M. Barandiaran aurkeztea erabaki da. Ikerlearen gaitasunaz bestalde, bere ehunurteburua bete da aurten eta parada ezin hobea liteke Antropologia arloko saria berari emateko.

Euskal Herriko Erakunde ofizial eta Unibertsitate guztiei emango zaie aurkezpenaren berri euron babesa eskatuz.

Kirol ataleko sarira I. Perurena aurkeztea eskatu du P. Zabaleta euskaltzainak. Euskaltzaindia hizkuntza alorreko erakundea denez, kirolez arduratzen diren elkargoek eskari hori egitea hobesten du batzarreak.

Batzordeen berri

Onomastika batzordeburu den E. Knörr jaunak, Nafarroako toponimia ttipiari buruz bilketa lana egiten ari den taldearekin izandako harremanez mintzatu da. Eusko Ikaskuntzaren inguruan sortu zen eta, behin baino gehiagotan hemen esan denez, Euskaltzaindiaren erantzunkizuna oso mugatua da arazo horretan: lanaren iritzi tekniko edo diktamena ematea, alegia. Abuztuaren 7an elkarrekin izenpe-

tutako agiria ekarri dute lekuko, hala nola 1989ko ekainean Euskaltzaindiak hartutako erabakia.

Nafarroako Gobernuarekin egindako azken Hitzarmenean Euskaltzaindia agertzen da berriro lanaren arduradun inolako sinadurarik gabe. Agintariei batzarrearen kezka agertzea erabaki da.

Jarraipen batzordeak lehen hitzarmenari buruz zuen bere gain lanari azken begiratua ematea, eta bigarren hitzarmenak izendapen berria behar luke.

Euskaltzaindiak ontzat eman du batzordeak izenpeturiko agiria.

Oroit-idazkiari dagokionez, batzorde idazkariekin bi bilera egin direla, esan du J. L. Lizundia idazkariordeak. Bakoitzak bere azalpena ekarri zuen itzulpenarekin batera.

Campion Broussain S. A. elkargoaren izenean bi erabaki-proposamen aurkeztu ditu J. A. Arana Martijak: 1) Orain arte Arbieto kalean zegoen egoitza Elkanok kalera aldatu dela adierazi eta onartzea, eta 2) Elkarte Anonimoen lege berriaren arabera, *Campion Broussain Elkarte Mugatua* bihurtzea (*Sociedad Limitada*, alegia). Proposamen biak onartu dira.

Euskal Herriko Unibertsitatearekin izenpetua den Hitzarmenaren ondoren sortutako Jarraipen Batzordea bildu dela, aditzera eman du E. Knörr batzarkideak. Elkarren arteko lana beharrezkoa dela, ikusi da. Besteak beste, euskal idazleez osaturiko artxiboaren beharra, faksimilez testuak ateratzea eta Euskaltzaindiak egindako ikerlanen homolagapena, aipatu dira.

Euskaltzainburuak esan duenez, badago lexikografiari dagokion arazoren bat ere. Jasotako idazkiren baten arabera, Euskaltzaindiak maileguzko hitzei buruz emandako arauak arazoren batzu sortzen omen dituzte eta, eztabaida daitezen eskatuz, zenbait adibide aurkeztuak izan dira. Beste baterako, mahai gainean utzi da gaia.

Bi erakunde hauen arteko argitarapenei buruz arazo bat sortu da. Koldo Zuazoren liburua bien artean argitaratu ondoren, Unibertsitateak ez du diru laguntzarik eman. Zenbait konponbide aipatu da geroari begira.

Otsailaren 16an biltzekoak dira berriro.

Bilboko Egoitzaren berri eman du J. A. Arana Martijak etxe barneko altzari eta beste beharretarako diru-iturri berriak bilatu beharko direla, esan du. Bilera bat egina dutela dio.

Eskuartekoak

E. Gerrikagoitiak gutun baten bidez, uve (v) euskaraz erabiltzearen beharra agertzen du. Erabakirik dagoela eta ez dela oraindik aldatu beharrik ikusten, eratzungo zaio.

Euskara aldatzen ari dela eta trakeskeriak barra-barra sartzen ari direla, ikusten da. ETB ere aipatu da. Ez da erabaki zehatzik hartu.

Euskal izenak euskal grafian idazteaz mintzatu dela E. Mugica ministroarekin, esan du J. San Martin jaunak, konponbiderik balegokeelarik. Onomastika batzordeak ikus beza.

1989. urtean batzarretara etorritako euskaltzainen zerrenda banatu da azkenik.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

BATZARRE OROKORRA

Donostian, 1990.eko urtarrilaren 26an, Gipuzkoako Foru Diputazioan, arratsaldeko 4etan bidu dira goizeko bilkuran egondakoez gain, P. Arregi, M. Atxaga, R. Badiola, J. Etxaide, J. M.^a Etxebarria, J. Garmendia Larrañaga, X. Kintana, M.^a P. Lasarte, L. M.^a Mujika eta J. J. Zearreta, urgazleak.

Goizeko bilkuraren berri. J. M. Satrustegi idazkariak ohizko laburpena ematen du, azpimarragarrienak hauek izan daitezkeelarik: 1. Larramendiren III. mendeurrenaren inguruko Jardunaldi, erakusketa eta abar antolatzeako batzordea osotu da; 2. Kultur Ministeritzak eta zenbait udaletatik eskatutako epaimahaikideak izendatu dira; 3. J. M. Barandiaran "Premio Príncipe de Asturias" gizarte zientziarako sarirako hautagai proposatu da; 4. Nafarroako toponimia ttipiaren bilketan diharduen taldeaz jarraipen batzordekoaren erabakia birretsi da; 5. Uve (v) euskaraz erabiltzearen beharra aztertu da; 6. Euskal Herriko Unibertsitatearekin izenpetua den Hitzarmena betetzeko Jarraipen Batzordearen lehen bilkurako langaien berri eman da.

Jarraian, "Patxi Etxeberria euskaltzain urgazlearen hilberria" izeneko txostena irakurtzen du P. Altuna jaunak. Andoainen jaiotako josulagun euskaltzalearen bizitza eta lanak zehaztu ditu. Euskararen alde olerkigintzan, kazetaritzan, antzerkigintzan eta itzulpengintan egindako lanak goraiatu ditu, besteak, beste, *Argiako* zuzendaritzan. Hainbeste urtetan atzerrian izan arren Euskal Herriarenganako izan zuen atxikimendua azpimarratu du txostengileak.

"Oroitzapen purruxken purruxkak" izeneko txostena irakurri du X. Diharce "Iratzeder" euskaltzainak. Bere bizitzan zehar ezagututako euskal pertsonaia zenbaitekiko harreman gomutagarri, zertzelada literario amultsuz horniturik, azaldu ditu egileak.

Azken gai erara, "1989 Xenpelar" bertso paperen sariak banatu dira. Lehenengo, Jose Antonio Gesalagak "Zaldubi"k 100.000 pesetetako saria jasotzen du *Aitona zaharra* izeneko lanagatik. Bigarren saria, 75.000 pesetetakoa, Xanti Zabala "Lezo"k jaso du, *Gogoetak* izeneko lanagatik. Eta hirugarren saria, 50.000 pesetetakoa, Antton Kazabon jaunak *Esnatzerakoan* izeneko bertso paperengatik.

Hiru irabazleek, saritutako bertsoak kantatuz, amaitu da batzarrea.

Jean Haritschelhar
Euskaltzainburua

J. M. Satrustegi
Idazkaria

Bilbon, Bizkaiko Foru Diputazioaren jauregian, 1990eko otsailaren 23an egin dute euskaltzain osoek hileroko beren batzarrea. Goizeko hamar eta erdietan bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J. M. Satrustegi idazkaria, J. A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, J. L. Davant, X. Diharce, J. Hirriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, eta I. Sarasola, euskaltzainak; eta J. L. Lizundia idazkariordea, J. J. Zearreta Ekonomi eragilea, M. Azkarate eta J. A. Aduriz LEF azpibatzordeko arduradun eta idazkaria, dagozkien ataletan.

J. M. Lekuona eta L. Villasantek ezin etorria adierazi dute.

Urtarrileko batzar-agiria onartu da.

Mailegu hitzen arauak

Euskal Herriko Zientzi Fakultateko irakasleek mailegu hitzei buruz Euskaltzaindiak hartuak dituen araez berek idatzitako txosten bat jaso da zenbait arazo aurkeztuz, Euskaltzaindiak eztabaidatzeko eskariarekin. Besteak-beste, i/j letren erabilpena, eta kontsonante aurreko x euskaraz s bihurtzeak batzutan sortzen dituen eragozpenak, aipatzen dira.

Ez da hau maileguzko hitzak idazteari buruz Euskaltzaindiak emaniko araei egiten zaien azalpen bakarra. Arazoak egon badaude beraz eta Jardunaldi batzu antolatuko ditu Euskaltzaindiak gaia luze-zabalean ikusteko, zerbait esatekorik duen guztik bertan hitza izango duelarik. Jardunaldiok ez dira erabakiorrak izango, baina bere ondoreak kontuan izanik hartuko ditu gero Euskaltzaindiak azken erabakiak.

Maiuskulen erabilpena

Eskuarteko zenbait idazlan parekatuz maiuskulen erabilpenean gaurregun ikusten diren desberdintasunak bateratu beharra, azaldu du euskaltzainburuak. Erakunde eta elkargo izenak, pertsona izen eta karguak, hilabete nahiz asteko

egunen aipamena, noiz idatzi behar diren maiuskulekin eta noiz ez. Ohitura batzu nagusitu eta nazioarteko jokabide eta usadioak ezagutu beharra ikusten da.

Eztabaidan sartu aurretik bakoitzak bere iritzia eta han-hemengo lekukotasunak Bilbora bidaltzeko epea ezarri da. J. A. Arana Martija eta J. K. Lizundia arduratuko dira oharrak jaso eta sailkatu ondoren Euskaltzaindiari aurkezteaz. Iritziak ikusita aztertuko da arazoa.

Idazlanen inprimategiko zuzenketak adierazteko modua ere ez da berdina izaten gure artean eta, era askotako eskolak balia daitezkeenez, Argitarapenen batzordeak gomenda beza zer-nolako zeinuak erabili behar diren.

Maiuskulen bilketaz arduratuko diren bi atal-eragileez bestalde, aholkulari hauek izendatu dira gaiaren aurkezpena egiteko: J. Haritschelhar, A. Irigoyen, E. Knörr, E. Larre, Tx. Peillen, P. Salaburu, I. Sarasola, J. M. Satrustegi eta R. Badiola.

Lexikologi jardunaldiak

Egutegian agertzen ez den Gregorio Arrue-ren mendeurrena ospatuko du Euskaltzaindiak LEF-en Jardunaldiak egingo dituelarik Zarautzen, datorren apirilaren 20an eta 21ean. Txostenen berri eman dute M. Azkarate eta J. A. Aduriz batzorde arduradun eta idazkariak. 20an egingo da Euskaltzaindiko batzarrea goizetik. Eguerditik aurrera emango zaie hasiera eratorpenaren metodologiaz egin nahi diren Jardunaldiei, gero biharamunean egun osoan jarraitzeko asmoz. Egun bat eta erdiko saioa izango da beraz LEF azpibatzerdeak prestatu duena.

Gregorio Arrue zenari buruz mintzatzeko, L. Villasante, Maite Etxaniz eta J. A. Arana Martijari eskatuko zaizkie txostenak.

Diruzaintza

Herri Agintean eta Euskaltzaindiaren artean izenpetutako Hitzarmenaren arabera, otsailaren bukaerarako beranduenik aurkeztu behar dira urteko balantzeta eta aurrekontuen kitapena. Hori dela eta, diruzainak banaturiko dokumentazioa onartu da eta datorren astean eramango zaie agintariei.

Campion-Brousain S. A.

Orotariko Euskal Hiztegiaren arazoez mintzatu da J. A. Arana Martija elkar-goaren berri ematean. Langileen alogera dela-eta zenbait arazo konpondu behar izan dira eta lanorduak finkatu. Jarraipena beharrezkoa ikusten du. Argitarapenei buruz, oraino abiadan urteko liburuki bakarra plazaratuz, oso garesti irteten da emaitza. Lantaldeak bere aldetik bizkortu arren prestaketa, zailago ikusten dute azken begiratuak sortzen duen galgagunea arintzea. Bildumaren kopurura, bestal-

de, ez da garbi ikusten zenbat liburukirena izango den. Hamabi bat zenbaki izan daitezkeela, esaten da orain.

Bertan sartutako idazleei dagokienez, zenbait autoreren lanak hartzen jarraitzen dute, hala nola Tartas, Etxeberri Ziburukoa, Harizmendi, Haranburu eta K. Mitxelenaren fitxak.

Kanpo izendapenak

Dimako Udalak euskara hutsean jardungo duen administrazioko laguntzaile bat hartu nahi du, eta azterketen epaimahairako Euskaltzaindiaren ordezkari R. Badiola izendatu da.

Eskuarteak

Euskal Herriko Unibertsitatea eta Euskaltzaindiaren arteko Hitzarmenari dagokion jarraipen batzordeak otsailaren 16an egindako batzarraren berri eman du E. Knörr jaunak, batzar-agiriko zenbait artikuluren edukina azpimarratuz.

Errenteriako Udalak Koldo Mitxelenaren omenez sortutako sariketari buruz Euskaltzaindiak izan omen zuen jokabidea salatuz *Argia*-k argitaratu berri duen idazlan desegoki eta ausarta aipatu dute batzartuek. P. Altuna izendatua zelarik epaimahairako eta horrela adierazia garaiz Udalari, ez zitzaion inoiz deitu eta ez zuen, beraz, joaterik izan. Bestelako esames guziak susmo txar hutsak dira.

Euskaltzaindiak bere agerpena egitea eskatu du P. Salaburuk. Eztabaida horretan sartzea baino hobea pertsonalki erantzutea, esan da. Azkenean, argitze-erantzun soila igortzea erabaki da.

Arabako Foru Aldunditik datorren gutun baten bidez, Luxaondo izenari buruz ohar batzu jaso dira, Euskaltzaindiak berrikeria ditzan eskatuz. Arrazoizkoak dira azaldutako iritziak eta Onomastika batzordearen proposamenez *Luiaondo* gomendatzea birretsi da. Horrela jakineraziko zaie herri horretako Administrazio batzordeari eta dagokien beste agintariei.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

BATZARRE IREKIA

Bilbon, 1990.eko otsailaren 23an, Bizkaiko Foru Diputazioaren areto nagusian, bildu dira Pedro Novia de Salcedo, Migel Arruza eta Gabriel Manterolaren mendeurrenak ospatuz, hileroko bigarren bilkura egiteko, J. Haritschelhar euskaltzainburua; J. M. Satrustegi idazkaria; J. A. Arana Martija diruzaina; P. Charrington, J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, Tx. Peillen eta J. San Martin, euskaltzainak; L. Akesolo,

R. Badiola, F. Barrenengoa, J. G. Etxebarria, X. Gereño, J. L. Goikoetxea, X. Kintana, J. M. Larrarte, J. L. Lizundia, A. Muniategi, J. Oleaga, P. Uribarren eta J. J. Zearreta, urgazleak.

Mahaipuruan eseri dira Zuzendaritza eta hizlariekin batera, Tomas Uribeetxebarria, Bizkaiko Kulturako Foru Diputatua eta Sabin Intxaurrea, Zeanuriko Alkatea. Aretoan aurkitzen dira gonbidaturik, besteak beste: Migel Arruzaren alabak, Gabriel Manterolaren ilobak eta Zeanuriko kultur batzordeko zinegotziak.

Tomas Uribeetxebarria jaunak, Bizkaiko Diputatu Nagusiaren izenean, ongi etorria ematen die Euskaltzaindiko eta gainontzeko bilduei, aipatuz ohore dela Foru Erakundearentzat, hiru bizkaitar, Diputazio Jauregian, omentzea.

Jarraian, J. M. Satrustegik, goizeko bilkuraren berri ematen du, bertan tratatutako gai azpimarragarrienak hauek izan daitezkeelarik: 1. Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzi Fakultateko irakasle zenbaitek, mailegu hitzez egindako txostenari bigarren azterketa bat hitzeman zaio. 2. Maiuskulen idazkera eztabaidatu da, hori aztertzeko, batzorde suntsikor bat izendatu delarik 3. Zarautzen, Gregorio Arrueren heriotzearen ehunurteburua dela-eta, bertan egingo diren ospakizun eta XI. Lexikologi Jardunaldien egitarauak onartu dira. 4. Dimako Udalerako epaimahaikidea izendatu da. 5. Aiara eskualdeko Luiaondo herri izena birretsi da. 6. 1989ko kontu errendapena eman da.

Ondoren, J. Haritschelhar euskaltzainburuak, hitzaldiño labur bat egiten du, hiru bizkaitar euskaltzaleen mendeurrenak zergatik eta nola ospatzen diren azalduz.

A. Irigoyen euskaltzainak irakurri du “Pedro Novia de Salcedoren oroigarritz” izeneko txostena, bereziki haren nortasun politikoa markaturik, horren ondorioz euskararen munduan murgiltzearen arrazoiak adieraziz. Herri gizon legez nabarmendu bazen ere, historiagile erara *Defensa histórica legislativa y económica del Señorío de Vizcaya y provincias de Alava y Gipúzcoa* izeneko lau liburukitako lan mardularekin eta euskaltzale modura, *Diccionario etimológico del idioma bascongado*ren tomo biekkin agertzen du Novia de Salcedok Euskal Herriarekiko eta euskararekiko atxikimendua eta sena.

Euskaltzaindiaren hasieratik urgazle izan zenaren mendeurrena “Migel Arruzaga Egia 1890-1966”. E. Erkiaga euskaltzainak idatzia, baina bere ezin etorrian, gaixorik bait dago, J. A. Arana Martija euskaltzainak irakurri du: Bilboko Institutuan irakasle izana eta baita Erribera kaleko eskoletan ere euskara irakatsi zuen. Idazle erara zenbait egunkari eta aldizkaritan idatzi zuen. Bestalde hark argitaraturiko libururak hauek dira: *Método massé-dixon*, *Método práctico para aprender el vascuence* eta *Euskal-Ikasbide erraza, euskeraz ikasteko bide erraza*. Lizardi eta Arruzaren ametsak aipaturik “deiogun gorazarre Lizardiri, deiogun gorazarre Arruzari” esanez amaitu du Erkiaga jaunak bere txostena.

“Don Gabriel Manterola, mendurrenako oroitza” izeneko txostena irakurri du J. San Martin euskaltzainak. Duela ehun urte Zeanurin jaio zitzaigun. Urgazleak Euskaltzaindiaren sorreratik eta ohorezko 1968tik. 1914.ean, apaiztu ondoren, Eibarren egon zen gerrararte. Berak idatzitako liburuak hauek izan ziren: *Goi-ziak*, *Yesu Kristoren nekaldia*, *Gabonetako Antzerti Yaunkoya*, *Santuen bizitza*

laburra, eta abar. Bestalde zenbait aldizkaritan ere parte hartu zuen, hala nola, *Ekin*, *Yakintza*, *Zeruko Argia*, *Euskera*, eta abar. Hizlariak *Goi-izpiak* deritzon omenduaren poema batez amaitu du mintzaldia.

Azkenik, Uribeetxebarria jaun Diputatuak, amaitutzat ematen du batzar ireki hau.

Jean Haritschelhar
Euskaltzainburua

J. M. Satrustegi
Idazkaria

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioaren jauregian, 1990eko martxoaren 30ean egin dute euskaltzain osoek hileroko batzarrea. Goizeko hamaiketan hasi da gaien aurkezpena. Bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola, eta L. Villasante, euskaltzainak; J.L. Lizundia idazkariordea, eta zegozkien gaitan, G. Aurrekoetxea eta X. Videgain, Dialektologi batzordean Atlasgintzako arduradunak; LEF azpibatzerdeko M. Azkarate eta J.A. Aduriz arduradunak.

Ezin etorria adierazi dute, J.L. Davant, X. Diharce eta J. Hiriart-Urruty euskaltzainek.

P. Salaburu jaunari goresmenak eman dizkio euskaltzainburuak ukan berria duen bigarren haurragatik.

LEF XI. Jardunaldiak

Miren Azkarate eta J.A. Adurizek apirilean Zarautzen egitekoak diren LEF XI. Jardunaldien prestakizunen berri eman dute. Apirilaren 20an, ostirala, goizeko hamar t'erdietan egingo da Euskaltzaindiaren hileroko batzarrea. Arratsaldean Lexiko Erizpideen Finkapenerako XI. Jardunaldiei hasiera emango zaie. Biharamunean, goizeko bederatzi eta erdietan eratorpenaren plangintzari dagozkion txostenak aurkeztuko dira. Bilkurak "Sanzenean" egingo dira.

Larunbat eguerdian edo iluntzean, ordua zehaztu gabe dago, Gregorio Arrue zenaren omenezko ospakizuna egingo da. Maite Etxaniz, Karmelo Iturria eta J.A. Arana mintzatuko dira omenduaren bizi eta lanei buruz.

Hizkuntz atlasa

X. Videgain mintzatu da Atlasgintzari buruz Brest-en egindako Kongresuaren berri emateko. Urtarrilaren 15 eta 16an herrialde askotako ordezkariak bildu

ziren bakoitzak bere egoera azaltzeko. Diferentzia haundiak badirela ikusi zela, esan du, baina orohar, euskal atlasa omen doa zaluena. Lanaren metodologia, ekipamendu informatikoa eta zeinu fonetikoak aipatu ditu, besteak beste, erabilitako pundurik garrantzitsuenen artean. Testu bankua egin nahi dute. Interesgarria izan dela, dio, elkar ezagutzeko eta arazoan berri jakiteko. Programeria grafiko baten demostrazioa egin zaie eta fonoteka bisitatu dute.

G. Aurrekoetxeak lantaldearen berri eman du gero. EJJIE-ko informatikari batekin bilerak egiten dituzte astero lanbeharren arazoak ikusteko. Atzerapenen bat ere izan dute pertsona aldaketaren ondorioz. Inkestagintza uda aldean amaituko dute, eta analisi funtzionalarekin hasiak dira jadanik. Informatizatze lana hiru epetan egingo da. Datuak sartzeko fasea urrirako bukatu egongo da. Bigarren ekintza, datuak nola gordeko diren eta zainketa lana, urrian hasiko da. Mapagintza eta mapa konposaketa etorriko da gero. Lan handia eskatzen duela informatizatze prozesuak, aditzera eman du.

Fonoteka. Gaiarekin duen loturagatik, aurreko astean Madrilén ikusitakoaz mintzatu da J.A. Arana Martija. Reina Sofia Fonoteka bisitatu ondoren egoitza berrirako argibide asko jaso du. DAT sistemak abantaila asko eskaintzen dituela ikusi du, ala nola zinten iraupena, mantenimentu beharrik-eza eta gordetzeko toki gutxi beharra. Liburuen antzera erabiltzen da mahai batean, entzungailuen bidez.

Egoitza berriko informatizazio-plana laster egitekotan dira, Parisko fonoteka ikusi beharrik ez dagoelarik. EJJIEk egingo du informatizazio proiektua.

EJJIEri agindutako lana Euskaltzaindiarena izan arren, ez duela inolako garbitasunik aurkitu, aditzera eman du. Ordaindutako fakturak eskatuko dira hemendik aurrera.

Diruzaintza

Madrilgo Hezkuntza nahiz Kultura Ministerizetara egindako bisitarekin jarraituz, iaz baino dirulaguntzaren bat gehiago lortzeko itzaropena, agertu du J.A. Arana Martija diruzainak. Argitalpen bereziak egiteko izango da, gehien bat, diru kopuru hau.

Aldizkariaren katalogo zabal eta zehatza egiteko asmorik ere ba omen dago, eta Azkue Bibliotekakoen katalogoa egitea eskatu dute. Argitalpen asko dagoenez gordailuan, lan handia gerta daiteke ekintza burutzea eta horren kostua ordaintzeko prest egongo lirateke Madrilén.

Bilboko egoitzako fonoteka kontuan izanik, Madrilén ikusitako sistemak ez omen du pertsonal bereziaren beharrik, ez lukeelarik alde horretatik gastu berririk sortuko.

Kanpo izendapenak

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Turismo Saileko Euskara-Arazoetarako Zuzendaritzak Euskal Letretako Merezimenduzko sariaren epaimahairako ordezkaria eskatu du gutun baten bidez. P. Salaburu izan da izendatua.

Eskuartekoak

J.C. Guerraren fondoari dagokionez, beste bi zati agertu dira. Erosteke proposamena eztabaidatzen hasi aurretik pergamoen balioa neurtzeko iritziak jaso ditu J.A. Arana Martijak ikasiengandik Madrilen.

Arrasateko J. Letona zenaren artxiboa Euskaltzaindiaren esku uzteko prest omen dago familia, jabegoa galdu gabe, Etnografia gaiak Monterron bertako Kultur Etxera joango direlarik.

Monzonen liburutegia katalogatzeko asmoak zertan diren, galdetu du J. San Martin euskaltzainak. Udaberri honetan egitekotan direla, erantzun dio J.A. Arana Martijak, zenbait liburu etxean bertan fotokopiatzeko tresna eramango duelarik.

Nafarroako Toponimia Ttipia biltzaileen arazoa aurrera doala, aditzera eman du idazkariak. Aurreko astean aldean konponketarako deitua izan da bera eta legezko ekintza hutsa dela Euskaltzaindiari egindako deia, esan zitzaion. Auzirako deia izango delarik hurrengo, legegizonen baten esku uztea arazoa erabaki du batzarreak. Aholkulari Juridikoen batzordeak izendatuko du arduraduna.

Nafarroako AEK-ren arduradunek babesa eskatu diote Euskaltzaindiari, dirulaguntza ukatzeagatik Nafarroako Gobernuaren aurka daramaten salaketan. Entzun dute batzartuek sinatu gabeko gutunak dioena, eta Euskaltzaindia beti euskararen alde dagoela erantzungo zaie. Hala ere, AEK-k eskaturik eten zela bere egunean Euskaltzaindia sortzailearekiko lotura, eta arazo administratiboa denez oraiko hau eurek bideratu beharko dutela.

Lizarrako Toponimia Jardunaldiei buruz egunen arazoren bat sortu dela, aditzera eman zaie batzartuei. Arduradunak harremanetan dabilta Udalarekin.

Leizarragaren argitalpena zertan den, esan da gero. Lehen edizioaren ale osorik badagoela, baina azken orriak, hala beharrez, gaizki inprimatuak omen ditu. Bigarren argitalpena oso fidagarria omen da eta egoera hobean dagoelarik, apirilaren azkenerako plazaratuko da.

Azken berrien artean, J.M. Barandiaran "Príncipe de Asturias" sarirako Euskaltzaindiak egindako aurkezpenari jarraikiz eskakizun-erabakia ala atxikimendua eskaini dioten bederatzirakunde eta elkargoren zerrenda irakurri da.

Lau euskaltzainekin sinadurekin aurkeztutako izkribu baten bidez, Euskaltzaindia Euskal Herriko autodeterminazio-eskubidearen alde agertzen delako erabakia hartzea, eskatzen da. Hurrengo batzarre baterako utzi da gaia eztabaidatzea.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

BATZARRE OROKORRA

Donostian, 1990.eko martxoaren 30ean, Gipuzkoako Foru Diputazioan, arratsaldeko 4etan bildu dira goizeko bilkuran egondakoez gain, J.A. Arkotxa, R. Badiola, J. Etxaide, X. Kintana, R. de Rijk, A. Zatarain eta J.J. Zearreta, urgazleak.

1. *Goizeko bilkuraren berri*. J.M. Satrustegi idazkariak goizeko euskaltzainen bilkuraren berri ematen du, punturik azpimarragarrienak hauek izan daitezkeelarik: 1. Lexikologi Erizpideen Finkapenerako XI. Jardunaldien egitaraua aztertu eta onartu da, berarekin batera, Gregorio Arrue idazlearen heriotzearen mendeurrena Zarautzen ospatuko delarik. 2. Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren X. Videgain eta G. Aurrekoetxea lantalde arduradunek, hizkuntz atlasei buruz Bresten egindako bilkuraren berri ematen dute. 3. Euskaltzaindiaren euskararen fonoteka proiektuaz. 4. Eusko Jaurlaritzako Euskal Letretako Merezimenduzko sariaren epaimahairako P. Salaburu izendatu da. 5. Juan Carlos Guerraren fondoaz, Arrasateko Jose Letona historiagilearen artxiboaz eta Telesforo Monzonen liburutegia katalogatzeaz azalpenak eman dira.

2. *Dagozkien batzordeen azalpena*. Onomastika batzordeak hil honen 9an egindako bilkuraren azalpena ematen da, bertan aztertutako gairik garrantzitsuena euskal mendien izendegi berria izan zelarik. Baita ere batzorde honek Lizarran egingo dituen III. Onomastika Jardunaldien antolakizun arazoez informatzen da.

Bezperan, Baionako Ordezkaritzan, Jagon Sailaren batzordeak egindako bilkuraren berri ematen du idazkariordeak, E. Knörr Jagon sailburuaren izenean, gairik garrantzitsuena, Iparraldeko arazoak izan zirelarik.

3. J. San Martin jaunak: "Botanika lexikoa Eibarren". Txostengileak Eibar inguruko bilketa eta botanikako zerrenda eta eranskinaz azalpen ugari eskaini ditu. Bestalde, Toribio Etxebarriak buruturiko lanaren husketa egin duela eta honetaz ere zenbait argitasun eskaini die batzarkideei.

4. X. Videgain jaunak: "Lehatxun, Tripot, ez adiorik: euskal atlasaren bilketaren informatizatze bidean epantxu zenbait". Iparraldeko herri batzutan izandako goña-beherak eta bertako lekukoen adibideak eman, azaldu eta diapositiben bidez xehetasunak eskaini ditu. Bestalde, izandako zailtasun zenbait ere adierazten ahalegindu da. Gero atlasgintzakoak burutzen ari diren bilketa lanak eskaintzen dituen ahalbidez mintzatu da txostengilea, hots: hiztegi arloa, antropologia eremua eta abar.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Jean Haritschelhar
Euskaltzainburua

J.M. Satrustegi
Idazkaria

1990-IV-20

Zarauzko Sanzenea Kultura Etxean, 1990eko apirilaren 20an, egin dute euskaltzain osoek hileroko batzarrea. Goizeko hamarrek eta erdietan bildu dira: J. Haritschelhar burua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charriton, J.L. Davant, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, eta L. Villasante, euskaltzainak. J.L. Lizundia, idazkariordea. R. Badiola eta J.J. Zearreta, argitarapenen eta ekonomi eragile, urgazleak, dagozkien gaietan.

X. Diharce eta J. Hiriart-Urruty euskaltzainek ezin etorria adierazi dute.

Martxoko batzar-agiria onartu da.

Argitarapenak

J.A. Arana Martija, diruzainak, Argitarapen batzordearen azpiegitura hobetzeko asmoa aurkeztu du. Alde batetik, Euskaltzaindiak argitaratzen dituen lanak bere langileen bidez ordenagailuetan makinaturik inprimategira bidaliz, asko murriztu litekeela kostua, esan du. Ordenagailuen baliapena areagotzeko, bulego-langile talde batek ikastaroa egin berria du Bilbon, eta bigarren taldeak egingo du gero.

Beste alde batetik, Argitarapen batzordeko eragileak laguntzailereren bat beharrezkoa omen du bulegoan. Horretarako, Euskaltzaindiak orain arte izan dituen hamabost langileen kopurutik lanpostu bat hutsik dagoela, aditzera eman du.

Oraikoz eskatzen dena, aipaturiko bi gaiei bidea irekitzen zaiela onartzea besterik ez da, diruzainak proposamen zehatzak beste batean aurkez ditzan gomendatuz.

Asmoa begi onez ikusten da eta bi proposamenak azter ditzala diruzaintzak batzarreari bere egunean aurkezteko, erabaki da.

Batzordeen egitasmoak

Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia den M. Karmen Garmendiaren gutun bat jaso da Eusko Jaurlaritzatik batzorde bakoitzaren osakera, lan prozedura eta

eginkizunen berri eskatzen. Era berean, lan programa bakoitzaren barnean 1990. urterako egitasmoak eta kronograma eskuratu nahi dituela, aditzera ematen du.

Zergatik ez den Hitzarmenaren eskakizuna bete, galdetu du euskaltzainburuak.

Bi arazo desberdinen kontua da. Ekonomiari dagokionez, diruzaintzak urteko bere balantzea garaiz bidali zuen. Betekizun teknikoa da atzeratu dena, egitasmo, lanen epea eta abar, alegia. Sei hilabete hauetakoa ez da egin, batzorde bakoitzak bere txostena egin behar baitu lehenik, eta Hitzarmenaren prozedura berria denez, epe bat eskatzen du bidea urratzen joateko. Uztailerako gaurkotua izango da atzerakada hori, eta handik aurrera sistematikoki epe barruan bete daiteke eskakizuna.

Diruzainaren esanetan, Hitzarmenak berak dio aurrekontuen herena urtarri-lean ordainduko zaiola Euskaltzaindiari, eta apirilean egon arren ez dute herri-ginteeek sosik igorri, ezin direlarik soldatak ere ordaindu.

Hala ere, Euskaltzaindia bere epeak betetzen ahaleginduko dela, dio euskaltzainburuak.

E.H.-ren autodeterminazioaz

J.A. Arana Martija, A. Irigoyen, F. Krutwig eta Tx. Peillen euskaltzainek martxoko batzarrean aurkeztutako gutun baten bidez, autodeterminazioaren aldeko adierazpen bat plazaratzea eskatzen diote Euskaltzaindiari.

Eztabaida luzea izan da gaiak sortu duena. Besteak beste, Arautegia aurrean dela gai hau ez da Euskaltzaindiari dagozkionetakoa, esan da batzuren aldetik. Hala ere, autodeterminazioa bide bat dela euskararen hedapenerako, diote beste batzuk. Autodeterminazioa eta euskara bi gauza direla eta ez daudela, nahi eta ez, elkarrekin loturik, ihardetsi zaio.

Norberaren iritzienganako begiramendurik haundienarekin, gaia bera Euskaltzaindiaren arauetan sartzen den hala ez bozkatzea erabaki da.

Batzartutako hamasei euskaltzainez bestalde, X. Diharce eta J. Hiriart-Urrutyk euskaltzainburuari eman diote izkribuz euren ahala. Hemezortzi txartel beraz erabakitzeko. Hauetatik, 12 ez, eta 6 bai. Gehiengoaren ustez, beraz, autodeterminazioaz mintzatzea ez da Euskaltzaindiaren egitekoa. Hala ere, adierazpen bat banatu da jokabide honen zergatia arrazoituz.

Egutegiaren zehaztapenak

Datorren urriko batzarrea K. Otaegiren omenez Hondarribian egitea erabaki da. Euskaltzaleen Biltzarrak badu bere aldetik horrelako zerbait egiteko asmorik, eta Luberriaga elkarteburuarekin mintzatzea komeni da. Txostenei dagokienez, omenduaren bio-bibliografiaz J. San Martin mintzatuko da. Euskal Jaien eta poemagintzaren azterketa Patri Urkizuri eskatuko zaio, edo bestela J.A. Letamendiari.

Larramendiren omenez Andoingo Udalak prestaturiko egitarau orokorraren barnean Euskaltzaindiak egingo dituen Lexikologi eta Gramatika Jardunaldien berri eman da. 15ean goiz-arratsaldez Gramatika Jardunaldiak egingo dira. 21ean Euskaltzaindiaren hileroko batzarrea eta Lexikologi Jardunaldien hasiera, 22an eguerdirako amaitzeko asmoz. Atal desberdinak antolatuko dituen batzorde bat izendatu da, Udalarekin batera Eusko Jaurlaritzaren eta Donostiako Diputazioaren barne direlarik.

Kanpo izendapena

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Saitetik hartutako gutun baten bidez, euskarazko literatur lanak sortarazteko bekak eta saio nahiz antzerki lanak argitaratzeko laguntzak banatuko dituen epaimahairako ordezkaria izendatzea eskatzen da. E. Knörren izena emango zaie.

Eskuartekoak

J.I. Ruiz Olabuenaga jaunak bidalitako izkribu bat irakurri da *Euskararen Hizkuntz Mapa* argitaratzeko Euskaltzaindiak nolabaiteko babes, dirulaguntza edo onarpenen bat eman lezakeen galdetzen. Ez dagokiola esan du batzarreak.

Jagon sailburua den E. Knörr, J. Haritschelhar eta J.L. Lizundia Belgikan izan dira apirilaren 11n, *Taalunie*, Holanda eta Flandesen arteko nederlanderaren hizkuntz erakundearen berri jakiteko.

E. Mugica Espainiako Justizia ministroarekin izandako hartu-emanen berri eman da. Euskal deituren grafia legez aldatzeak ez duela inolako arazorik sortzen, esan du besteak beste. Eskatzea aski omen da.

Nafarroako urgazle den Mariano Izetari omenaldia egingo diotela Elizondon datorren igandean, aditzera eman du J.M. Satrustegi lurralde hartako ordezkariak. Berak joaterik ez duenez, zorion-txartela bidali dio eta P. Charritton joango da Euskaltzaindiaren izenean.

1989ko *Oroit-Idazkia* banatu da azkenik batzartuen artean, eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

AUTODETERMINAZIOAZ ADIERAZPENA

1. Euskaldun guztien ondarea da euskara, zeinahi diren haien usteak eta sinesteak, haien jaioterria, bizilekua eta gainerako ingurumenak.

2. Euskaltzaindiak 1918. urtean sortzetik beretik ikerlanak burutzeaz gainera beste xede hau du: euskararen sustatzea eta jagotea. Horrexegatik mintzatu izan da Erakunde hau argi eta garbi zenbait alditan euskara gure ustez oker tratatu

izan denean; hala nola, Espainiako Konstituzioan (1978), 3.1 artikuluan, eta Nafarroako Foru Hobekuntza Legean (1983), 9. artikuluan.

3. Euskaltzaindiak uste du, Erakunde Akademikoa den aldetik ez dagokiola bere iritzirik ematea Euskal Legebiltzarrak berriki Autodeterminazioaz hartu duen erabakiaz.

4. Euskaltzaindiak adierazten du eta aldarrikatzen beti eta nonahi defendatzen dituela eta defendatuko euskara ahalik gehiena hedatzeko eta garatzeko, bai eta Euskalerriko eremu osoan zuzen onez zor zaion "status" eta egoera hobereena erdiesteko, baliabiderik egokienak.

Zarautzen, 1990, apirilak 20

DECLARACION SOBRE LA AUTODETERMINAZION

1. La lengua vasca es patrimonio de todos los vascos, cualesquiera fueren sus credos o ideologías, sus lugares de nacimiento o residencia u otras circunstancias.

2. La Academia tiene desde su fundación en 1918, además del fin de la investigación, el de su promoción y fomento. Por ello mismo, esta Institución ha hablado claramente en varias ocasiones, principalmente sobre el tratamiento, injusto según nuestro criterio, de la lengua vasca en la Constitución Española (1978), artículo 3.1, y en la Ley de Amejoramiento del Fuero de Navarra (1983), artículo 9.

3. Euskaltzaindia es de la opinión de que, como tal Institución Académica, no le corresponde emitir juicio alguno sobre la reciente resolución del Parlamento de la Comunidad Autónoma Vasca sobre la Autodeterminación.

4. La Academia declara que defiende y defenderá siempre las mejores condiciones para la completa extensión y desarrollo de la lengua vasca y para que ésta alcance en todo el ámbito del País Vasco el "status" que en justicia le corresponde.

Zarautz, 20 de abril de 1990

BATZARRE IREKIA

Zarautz hiriko Udaletxean 1990.eko apirilaren 21ean, eguerdiko ordubetetan, bildu da Euskaltzaindia Gregorio Arrueren heriotzearen mendeurrena ospatzu bere batzar irekia egiteko asmoz. Bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, A. Irigoyen, F. Krutwig, F. Ondarra, Tx. Peillen, J. San Martin eta L. Villasante, euskaltzainak; I. Eizmendi "Basarri" euskaltzain ohorezkoa; X. Aranburu, M. Atxaga, M. Azkarate, R. Badiola, J.M. Larrarte, A. Lertxundi, J.L. Lizundia, L.M. Mujika, A. Sagarna eta J.J. Zearreta, urgazleak. Mahaipuruan eseri dira Zuzendaritzakoe-kin batera: Antonio Alberdi, herriko alkatea; Imanol Murua, Gipuzkoako Diputa-

tu Nagusia; M.^a Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusia; Josu Legarreta, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Zuzendaria; Agustin Ezponda, Hernaniko alkatea; Martin Etxeberria, HABEko Zuzendari Nagusi eta zinegotzia; Roman Zulaika, zinegotzia. Maite Etxaniz eta Karmelo Iturria hizlariak ere aurkitzen dira.

1. Antonio Alberdi herriko alkateak Euskaltzaindiari ongi etorria ematen dio, bigarren aldiz bere bilkurak Zarautzen egiten dituela adieraziz.

2. Jarraian, J. Haritschelhar euskaltzainburuak bere sarrera hitzak egiten ditu, azpimarratuz Akademia, alkateak ongi esan bezala, bigarren aldikotz etorri dela Zarautzera. Bietan hileroko euskaltzainen bilkura eta Lexikologi Jardunaldiak eginez, aurreragokoan hiriaren 750. urtebetetzea zela eta Zarautzek frantziskotarren bidez euskararekiko izan zuen eragina goraiatuz, oraingoan Gregorio Arrue euskal idazlearen mendeurrena ospatuz. Bestalde, Udalaren baimenaz Sanzenean, Euskal Herriko Hizkuntz Atlasean lanean diharduten lankide bientzat kokalekua ere utzi dio Udalak Euskaltzaindiari. Guzti honegatik bada, esker ona agertu du.

3. “Gregorio Arrueren biografia” izenaz txosten zehatz eta mamitsu bat egiten du A. Karmelo Iturriak. Hernaniko parrokiako jaiotza agiritik hasi eta gaurko egunean, orain 100 urte hil zenekorarte, xehetasun ugari ematen ditu, hala nola Arantzazun fraidegai egondakoak, herriko eskola maisu eta udal idazkari-zakoak, itzultzaile eta idazle lanetakoak, familia gora-beherak, eta abar. Guzti hau dokumentazio oparoz hornitua.

4. “Gregorio Arrueren Santa Jenobebaz beste zerbaiz” izeneko txostena irakurtzen du Maite Etxaniz Zarautzeko Euskararen Udal Zerbitzu arduradunak. *Santa Jenobebaren Bizitza* liburuaren sintaxia ikertu du, hau da, liburukian azaltzen diren perpaus bakun eta koordinatuak aztertu ditu, subordinaziokoak alde batera utzirik. Bestalde, joskerari buruzko zenbait berezitasun ere aipatu ditu gaur egungo bizkaieraren ildotik ekinik. Jarraian koordinatuetakoa kopulatibo, adbersatibo, disjuntibo eta azkenik *bada* juntagailuaz ere eskaini ditu berezitasun batzu.

5. “Gregorio Arrue, Mazoren lehen itzultzailea” izeneko txostena irakurtzen du azkenik J.A. Arana Martija euskaltzain jaunak. Ordurarte Astete eta Ripaldarenak itzultzen zirela aipatu du, Bonapartek aginduriko itzulpenak ere bi josl lagun horienak izan zirelarik. Valladolideko Kalonjea izan zen Mazo jaunarena hartu zuen Arruek eredutzat, Astete eta Ripaldaren testuak bateratzen zituela. Arrueren garaiari erabiltzen ziren euskal dotrinen aipamena ere egin du hizlariak.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioaren jauregian, 1990eko maiatzaren 25ean egin du Euskaltzaindiak, goizeko hamar eta erdietan, euskaltzain osoen hileroko batzarrea. Bildu dira: J. M. Lekuona buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, J. A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, J. L. Davant, X. Di-harce, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak, J. L. Lizundia idazkariordea, R. Badiola argitarapenen eragilea eta J. J. Zearreta ekono-mi eragilea, urgazleak, zegozkienetan.

J. Haritschelhar, euskaltzainburuak, ezin etorria adierazi du.

Apirileko batzar-agiria onartu da.

Euskaltzain hutsunea

J. M. Lekuona mahaiburuak, J. Hiriart Urruty euskaltzainaren heriotzea samurtasunez eta begirunez aipatu du, datorren batzarrean egingo duelarik haren bizi eta lanen goratarrea E. Larre euskaltzainak.

Zenduaren hutsunea betetzeko deialdia egin du gero buruordeak. Arautegia-ren arabera, hurrengo bi batzarreetara bitarteko epea irekirik gelditzen da hauta-gaiak aurkezteko. Ondoren, abuztuan batzarrerik izango ez denez, iraileko batza-rean egingo da bozketa.

J. M. Satrustegi, Nafarroako ordezkariak, M. Garde euskaltzain urgazle nafa-raren hil-berria eman du, ekaineko batzarrera ekarriko duelarik berak zenduaren merezimenduen txostena.

Maiuskulen idatz-arauak

Maiuskula edo letra larrien eta minuskula edo letra xeheen erabilera arautze-ko langai batzu aurkeztu ditu J. A. Arana Martija jaunak. Zenbait erakunde nahiz egunkariren jokabidea oinarritzat harturik, lau ataletan sailkatu ditu jasotako

adibideak: Egutegia, karguak, erakundeak eta gainerakoak. Batzartuen artean banatu da txostena eta ekaineko batzarrera ekar ditzake bakoitzak bere oharrak, uztailleko batzarrean eztabaidatuko delarik gaia.

Euskal hiztegi enziklopedikoa

P. Salaburuk Euskal Hiztegi Enziklopediko baten aurre-asmoa aurkeztu du. Aurrez erakunde eta eragileekin berak izandako hartu-emanen berri eman du, horrelako argitarapen baten eragin handia azpimarratuz. Izan ere, Ikasketxe eta biblioteketan eskuartean erabiliko den kontsulta liburu oinarrizkoa izango omen da.

Zehazki esateko, *Diccionario Enciclopédico Universal Durvan* izenekoan oinarritutako hiztegi txikiren bat edo izan liteke sei liburukiz osaturiko bilduma. Euskaltzaindiari legokiokeela lan hau egitea, hiztegiak egitea dagokion neurri berean, esan du aurkezleak, eta aurrea galtzeko arriskuan dagoela.

Unibertsitateko errektore hautaketa dela-eta Leioara joan behar izan du gero Salaburu jaunak.

Eztabaida luzea sortu du idazkiak. Erantzun nagusienak bilduz, Akademiak gure artean beste funtzio bat duela, esan da: Arauak ematea alegia. Erabakiak hartu eta plazaratzen ahalegindu behar lukeela Euskaltzaindiak eta arau horiek betetzea eska litzaike erakunde publikoei dirulaguntza ematen duten neurrian. Berandu baino lehen egin beharra ikusten da erabakiak hartzen joatea.

Eragozpenen aldetik, eragina izango duten enziklopedia eta liburu guziak argitaratzerik ez duela Akademiak, esan da. Erremediatu nahi den lanaren eta eskatzen zaion zamaren artean proportziorik ez dago; batzarreetara etortzeko burdinbide bat egitea bezala. Iparraldeko euskaldunentzat ez litzateke egoki izango. Ezezkoa nagusitu da, ia aho batez, batzartuen artean.

Euskaltzain bakoitzak, bere aldetik, izena eman dezake noski horrelako lanetan. Eusko Jaurilaritzako jaun arduradunei erabaki honen berri emango zaie P. Salabururi ere kopia bidaliz.

Diruzaintza

J. A. Arana Martija diruzainak ekonomia egoeraren berri eman du. Lehen hilabeteetako atzerapenak gairitu direla esan ondoren, erakunde bakoitzaren urteko laguntzak zertan diren, azaldu du. 1991ko dirulaguntzei buruz, bi arazo aipatu dira: Batzordeen aurre-asmoak eta berauen kostua datorren batzarrerako ekarri beharra, alde batetik; eta igazko Hitzarmenaren arabera, zerga ordainduen ziurtagiria aurkeztu beharra. Hori dela-eta, atxikipenak egin behar dira. Batzardietak eta osterak bakarrik ordainduko dira kenketarik gabe.

Hori dela bide, euskaltzain bakoitzak lizentzia fiskala atera behar du eta horren kopia Diruzaintzara bidali. Gauzak errazteko, 192-5 epigrafean sartzea gomendatzen da.

Kanpo izendapenak

Epe laburrean erantzuna emateko eskarien artean Madrilgo bi gutun zeuden eta Zuzendaritzak egindako izendapen bien berri emango da lehenik.

Kultura Ministeritzatik “Letras Españolas” delako saria emateko epaikide J. A. Arana Martija izendatu zen Zuzendaritzako azken bileran.

Era berean, Madrilgo Kultura Ministeritzak eskaturik haurrentzat argitaratutako liburuen saria emango duen epaimahairako, beste urteetan ere joan izan den Pakita Arregi izendatua izan zen.

Bizkaiko Irakaslegoaren Unibertsitate Eskolak hirugarren kurtsoko ikasleei bizkaierazko gaitasun frogak egingo dizkien azterketarako epaikide bat eskatu du. Eurek J. L. Goikoetxearen izena aipu dute gutunean, beste urteetan ere joan izan delarik, eta horrela bera izendatu da.

Zumarragako Udalak Euskara Zerbitzuko arduradun tekniko itzultzaile lanetarako pertsona bat kontratatu nahi duela eta, X. Mendiguren izendatu da Euskaltzaindiaren ordezkari epaimahairako.

“Hispano Americano” banketxeak antolatutako olerkaritza sariketarako J. A. Etxebarria, eta ipuin lehiaketarako mahaikide Jon Kortazar, aipatu dira.

Eskuarteoak

Eusko Legebiltzarrak, “Euskal Herriko Bakearen aldeko elkarteak” eta “Coordinadora Gesto por la Paz” izeneko bi mugimenduei Bakearen Nobel saria emateko eskaria egitea erabaki zuen bere egunean, eta horren aldeko babesa eskatu dio Euskaltzaindiari. Behin eta berriz agertu izan duenaren antzera, ez da hizkuntza arazoa eta, beraz, ez da bere egitekotan sartzen.

Lizarran egiteoak diren Onomastika Jardunaldiei dagokienez, aste berean eta toki hartan hain zuzen, erdi aroko Historia kongresu bat egingo zelako susmoa baztertu da, eta agitaraua zegoen-zegoenean bete ahal izango dela, adiztera eman du J. M. Satrustegi Nafarroako ordezkariak.

Analfabetismoaren aurkako nazioarteko urtea dela eta Euskal Herrian egin nahi diren ekintzak UNESCO eta Euskaltzaindiaren izenean eratzea, proposatu du Eusko Jaurlaritzak gutun baten bidez. Asmoari ongi deritzo Euskaltzaindiak. Besteak beste, Erakusketa Ibiltari baterako egin den ikurra “Bai Euskarari” eratzean adierazgarri erabilitako usoaren antzekoa da, eta azken batzarrean Zuzendaritzak ez zuen berriz erabiltzeko eragozpenik ikusten. Nestor Basterretxeak egin du, eta Bilboko egoitzan dagoen originala patentaturik dagoela esatean, poztu egin da egilea.

Datorren ekainaren 10ean Sopelan egingo da “Ibilaldia 90” eta J. A. Arana Martija joango da bertara Euskaltzaindiaren izenean.

Batzartuei jakinerazi zaie azkenean, datorren uztailaren 22an J. L. Davant euskaltzainaren "Abadia-urrastoi" pastorala emango dela lehenengoz Mauleko kirol-zelaian. Denei luzatu zaie gomita.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Jean Haritschelhar
Euskaltzainburua

J. M. Satrustegi
Idazkaria

BATZARRE OROKORRA

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioan, 1990.eko maiatzaren 25ean, arratsaldeko 4etan, bildu dira: goizeko bilkuran egondako euskaltzainez gain, X. Aranburu, J. A. Arkotxa, M. Atxaga, J. Etxaide, J. M. Etxebarria, J. Garmendia Larrañaga, M. P. Lasarte, X. Videgain eta A. Zatarain, urgazleak.

Lehendabizi J. M. Lekuona euskaltzainburuordeak, J. Haritschelhar euskaltzainbuaren ordez, ongi etorria ematen dio Claudia Perlick Berlin Ekialdeko "Humboldt" Unibertsitateko irakasle euskaltzaleari, besteak beste, euskarari buruzko ikerketan hasia baita, hain zuzen bere tesina Txomin Agirrerren *Garoaz* egin du eta doktoradutzako tesia ere euskal gai batez burutzekotan da.

Jarraian, J. M. Satrustegi idazkariak goizeko bilkuraren berri ematen du, laburbildurik gai hauek azpimarra daitezkeelarik: 1. Jean Hiriart-Urruty euskaltzainaren heriotzearen berri eman da, haren hutsartea iragarritz; M. Garde urgazlea ere hil dela esan da. 2. Maiuskulen edo letra larrien erabileraz, materialea bildu eta aurkeztu da goizean, lehen azterketa bat egin zaiolarik. Orain zuzenketa epea irekita utzi da. 3. Euskal enziklopediagintza. 4. Literatura, udal eta unibertsitateko zenbait epaimahaikideren izendapenak egin dira. 5. Aurtengo Aurrekontuen birmoldaketa onartu da. 6. II. Programa Jardunaldien egitaraua eta egunak finkatu dira. 7. Eusko Legebiltzarrari erantzun zaio bakearen aldeko elkarte birentzako Nobel sarirako hautagi atxikimendurik egitea ez dagokiola Euskaltzaindiari. 8. Analfabetismoaren aurkako nazioarteko urtea dela eta egingo den kanpainari babesa emango zaio.

Martin Haase jaunak egindako "Erdal hitzen mailagatzea Iparraldeko euskaraz" izenburua daraman txostena irakurri du Txomin Peillen euskaltzainak: Gaskoinetik, gaztelaniatik eta frantsesetik jasotako hitzak aipu ditu, gehien bat, Amikuzen egindako grabapenetan oinarriturik. Hemen ez da azaltzen azenturik. Bere ustetan hizkuntzak ez dira hertsia, inguruko hizkuntzetatik anitz berba hartzen baitituzte.

Txomin Peillen euskaltzainak, bere aldetik, "Gaskoniako Okzitanoarengandikako maileguak euskaraz", izenburua daraman txostena aurkeztu du. Gaskoinetik frantseseratua. Adibideteak 112 orrialde dauzka eta 700 bat berba. Peillenen ustez, Zuberoan, teknologi mailan mailegutza haundiena ematen zaigu. Beraren ikerketan, sinonimorik gabe, 70 hitz aurkitu ditu. Zuberoan, Okzitania erabiltzen dute hitz tekniko, arrantzu eta beste zenbait alorretan ere.

Mapa soziolinguistikoaren aurkezpena. M. Karmen Garmendia Hizkuntza Politikarako idazkari nagusiaren ordez, Mikel Ugalde Aholku Batzordeko Bateragileak sarrera gisa zenbait erakunde eta elkartetan mapa soziolinguistiko honen agerpena egiten hasia dela azaltzen du, zenbait xehetasun aurreratuz.

Jarraian, J. L. Lizundiak Aholku Batzordeko Demolinguistikako Atalburuak, mapa honen agindua nola Euskararen Erabilpeneko Oinarrizko Legearen betekizun bat den, argitzen du eta, baita ere, demolinguistika azpibatzerde horretan zeintzu izan diren lankide zehaztu.

Segidan, Xabier Aizpurua Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiko teknikari eta demolinguistika lantaldekoak zehatz-mehatz egiten du maparen aurkezpena. Honela labur bil daiteke: aztertutako edukinak eta metodologia argibideak; hizkuntz gaitasuna eta ama-hizkuntza: Euskal Autonomi Erkidego osoan, herrialdeka, eskualdeka eta herrien arabera; ereduaren zehaztapen eta ezaugarriak; indizeen azterketa; emaitza nagusiak; eta zenbait eranskin. Ondoren, elkarrizketa labur batez argibide zenbait emanez, bukatu du bere azalpena.

Eta besterik gabe, amaitu da batzarrea.

Oharra: Hil honetan ez dago Donostian edo Bilbon egiten den ohizko batzarre arruntik, bi egunetan Euskaltzaindia Aralarren bilduta izanzen delako, datorren urteko Euskaltzaindiaren lan programagintza prestatzen.

1990-VI-29

Aralar mendian, Mikel Goiaingeruaren santutegiko ostatuan, 1990eko ekainaren 29an egin dute euskaltzain osoek, arratsaldeko lauetan, hileroko euren bilkura. Batzartu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J. M. Lekuona buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, J. A. Arana Martija diruzaina, J. L. Davant, X. Diharce, P. Charritton, E. Larre, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, I. Sarasola, J. San Martin, L. Villasante, P. Zabaleta, A. Zavala, euskaltzainak, eta J. L. Lizundia idazkariorde urgazlea.

P. Altuna, A. Irigoyen eta E. Knörr jaunek ezin etorria adierazi dute.

Euskal Herriko Unibertsitatean Filologia saileko katedratiko izendatu berri den P. Salaburu zorionduz hasi da batzarrea.

Hil-berriak

J. Hiriart-Urruty euskaltzain ohiaren goratarrea egin du E. Larre jaunak. Ez zela hutsetik heldu bere euskaltzaletasuna, esan du, badituelarik aintzindari ospetsuak aitaren nahiz amaren aldetik. Erroman eginak zituen Teologia eta Soziologiako ikasketak. Hiru gotzainen inguruan mugitu da bera apaiz lanetan eta Baionako Bikari Generala izan da azken karguan. Euskara garbi, txukun eta errazean idatzi ohi zuen. Lau liburutan plazaratu dira bere izkribuak, boskarrena prest omen dago eta seigarren batendako gaia ere badagoela, aditzera eman du. Hori izango da, beraz, euskal idazle hoberenetako baten emaitza. Atzerriko misioetan ere egin zuen aldi bat, euskara bultzatzen ahalegindu zen beti Baionako elizbarrutiko ekintzetan eta hutsune handia utzirik joan da mundu honetatik.

Marcelino Garde Nafarroako euskaltzain urgazleaz mintzatu da J. M. Satrustegi lurralde honetako ordezkaria. 1925ean Erriberako Karkaztelun sortua izan arren, euskara ikasi zuen gerra osteko Iruñeko Seminarioan inoren laguntzarik gabe. *Paz de Ciganda* ikastolaren bultzatzaile izan zen beronen estualdi larri batean. Nafarroako Aldundiaren babesean plazaratzen zen *Principe de Viana* aldizkariaren ardura hartu zuen bere gain desagertu aurreko urteetan, eta DN egunkariak astero atara ohi duen *Nafar Izkuntza* orriaren zuzendaritza ereman du geroztik, azken arnasa eman arte. Abertzale sutsua izan da eta langile burutsua. 1964ean izendatu zuen Euskaltzaindiak urgazle.

1991ko programen aurkezpena

Hiztegigintza. a) *Orotariko Euskal Hiztegi*az mintzatu dira I. Sarasola, arduraduna, I. Segurola taldeko lankidea. Orokorki aditzera eman dute lehenik, langintzaren prozedura eta orain arte egindakoaren egoera. Datorren urteko kronogramari dagokionez, seigarren liburukiaren lehen erdia 1990ko azken sei hilabeteetan egingo da, 1991ko lehen urterdian burutuko dutelarik bigarren partea. Bi lagunek egiten duten koordinaketa eta zuzenketa lana, liburukia prestatu bezain laster hasiko dute. Sei hilabete horietan koordinatzaile bakoitzak 5. liburukiko 500 orrialde landuko ditu, ekain/uztail aldera amaitzeko lehen zuzenketa. 1991ko uztail aldera hasiko da 7. liburukiaren erredakzio lana, eta uztail/abuztu aldera 5. liburukiaren zuzenketa bigarren partea egiten hasiko dira, urrian edo bukatzeko.

J. A. Arana Martijak aditzera eman du, arazo asko izan dutela, baina tresneria berria ipiniz, dena bideraturik gelditu dela. WANG etxeak egindako proposamenaren arabera, aparailuen urteko mantenimendua 615.746 pta. gostako da. Batzarreak ontzat eman du proposamena. Lan osoaren bilduma EJE-k gordetzen du, baina jabea Euskaltzaindiarena da eta hori segurtatuko duen hitzarmen bat lehenbailehen egingo da. Programa halare EJE-rena da. Bilboko egoitza berrian egongo den aparailua, ez da informazio kopuru guztia erabiltzeko gai izango eta EJE-ren tresnak baliatu beharko dira ondoren ere.

b) *Lexiko-Erizpideen Finkapenerako* batzordearen aurre-asmoen berri eman dute Miren Azkarate eta J. A. Aduriz-ek. Bi lan-arlo dituzte 1991rako begiz jota: Aurreko urteetan landutako txostenak berrikusiz, hitz-elkarketari dagokion hirugarren liburukia, *Hitz-elkarketa/2* argitaratzeko prestatzea, batetik, eta eratorpenaren ikerketa-lanari segida ematea, bestetik. Egun osoko hiru Jardunaldi egiteko asmoa du batzordeak. Ekintza hauen kostua zehazteko abiapuntuak ematen dituzte aurkezleek azkenean.

c) *Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa* delako proiektuaren egitasmoak A. Sagarnak aurkeztu ditu. 1987an hasitako ikerketari jarraituz, 1990 eta 1991n corpusa hustu eta lematizatzeko asmoa dutela, esan du, bi milioiko testu-hitzen kopuru zerrendatua lortuko delarik, iturriaren kode eta behar diren beste zehaztapenekin. Lan hau UZEI-k burutzen du, noski, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzarekin, eta EEBS batzordearen egiteko lanaren jarraipen zientifikoa da soil-soilik. Eginkizun hau betetzeko urtean pare bana orduko lau bat bilkura aski baziren ere, 1991 fasearen bukaerako urtea izango denez, ohizko bilkura hauen gain beste hiru bat gehiago egitea proposatu du, ikerketaren emaitzak aztertu eta hurrengorako proposamenak landu eta aurkezteko.

Gramatika. Batzordeburuak eta idazkariak etortzerik izan ez dutelarik, M. Pilar Lasartek irakurri du P. Goenagak idatzitako txostena. Urtebeteko atzerapena daramatenez plangintza orokorrean, juntadura eta juntagailuak aztertzen jarraituko dute 1991n. Egun osoko hamabost bilkura egingo dituzte urtean zehar. Informatika lanetarako bekadunarekin jarraitzea beharrezkoa ikusten da. Argitalpeni dagokienez, *Lokailuak* eta *Juntadurari* buruzkoa, plazara daitezkeen bi liburua dira. EGLU-1 berrargitaratzekotan dagoenez, hiru izango lirarteke orohar.

Dialektologia. X. Videgain eta J. Haritschelharek aurkeztu dituzte Euskal Herriko Atlasaren batzordeak dituen asmoak. Lau urteren buruan datu bilketako

lanak amaitutzat eman daitezke eta 1991n hasiko dira ordenagailuetan sartzen. Bost pertsona ariko direla lan honetan, esan dute, beste hainbeste aparailurekin, hauen informatikako azken tratamendua EJIIE-k egingo duelarik. Datuak sartzeko sistema ere zehazturik eta erabakirik dagoen bitartean, elaboraketa eta kartografia automatikoaren diseinu eta programazioa egin gabe omen daude.

J. A. Arana Martija diruzainak bere kezka azaldu du kronograma berrian hamar urtez luzatzen delako helburuen iraupena, horrek berekin daraman diru-kopuruaren gehiketa haundiarekin.

Onomastika. J. L. Lizundia batzordeburuak honako puntu hauek azpimarratu ditu Onomastika batzordearen asmoen artean. "Terrier du Roy" XVII. mende-ko katastroa Zuberoan lantzea eta aurkeztea eskaintzen duela Rikardo Cierbidek, oso altxor interesgarria daitekeelarik toponimiaren ikuspegitik. Ikerlanetan badu zerresanik Unibertsitateak, eta hitzarmen bat daukagunez, elkarrekin mintzatu beharra ikusten da. Baldintzak hemendik aurrera juridikoki ongi ikusi behar direla eta gero bakoitzak bere aldetik bete, esan da.

Hain beharrezkoa ikusten den exonimoen azterketarako azpibatzerde suntsikor bat sortzea proposatu du batzordeak, eta transliterazioa beharko luketen izen arrotzen erabilera ere behingoan finkatu beharra ikusten du. Datorren urtean lau liburuki argitaratzeko parada legoke *Onomasticon Vasconiae* sailean. Herrietan toponimia bilketako lanak ugaltzen doaz eta horrelako ekintzetan gidaritza eskaini beharra izango du batzorde honek azken emaitzen baliagarritasunerako.

Literatura. a) *Herri Literatura.* A. Zavala azpibatzerdeburuak aurkeztu ditu datorren urterako asmoak. Xenpelar sariaren antzeko bertso paperen lehiaketak ugaldtu direnez, sariari sari bat antolatzea proposatu du. Ongi ikusia izan da asmoa. Saritutako lanak, bestalde, argitaratu gabe daude eta Herri-literatura aldizkari bat sortzea oso komenigarria dela esan du. Lan horretan dihardutenen topaleku gerta daiteke. Beste batzorde batzuren eskariekin bat dator, eta offset-en bidez merkeago egin daitekeela aipatu da. Ez dago horretan eragozpenik. Denen aurrekontuak egin behar direla, esan du diruzainak.

b) *Literatura Ikerketa saila (LIS).* J. M. Lekuona mintzatu da talde honen beharrez, asmo eta helburuez. J. B. Elissanbururen mendeurrenkari Jardunaldiak egingo dira bere lanen edizio kritikoa prestatu nahi delarik, besteak beste. *Literatur Kritika* hiztegia mamitu nahi da, bestalde, euskal izenak gai honetan finkatuz, euskarazko enenpluen bidez gaien edukin teknikoak geure hizkuntzan emanez, hala nola, figura eta generoak ere. Aldizkari baten beharra ikusten du talde honek ere.

c) *Literatura Klasikoa.* F. Krutwig azpibatzerde honen arduradunak, euskaltzain osoen batzarrean ez egon arren, Aralarko Jardunaldi hauen hasieran aurkeztua du 1991ko egitasmoen txostena, J. Lavin eta M. Erzilla taldekideak bertan zirelarik. Leizarragaren Testamen Berria honako testu hauekin parekatu eta aztertzeko xedea agertu du: Greko originalarekin, Vulgatarekin, Luteroren testuarekin, Geneveko Bibliarekin, King James-en ingeles itzulpenarekin, Casiodoro Reina eta Cipriano Valeraren testuarekin. Azkenekoz, Leizarragaren bertsio gaurkotua eramango du liburuak. Kostuen berri eman da gero.

Diruzainaren ustez, azpibatzerde honen bilkura-kopuruak sortutako dieten dirutza gehiegizkoa da; kostu orokorren oreka hausten du. Lanaren emaitza, alderantziz, ikustezina da agintarien aurrean aurkezteko, eta neurri handi batean murriztu beharra izango da. Leizarragaren bertsio gaurkotua zer den galdetzean, Leizarragak gaurregun izango zukeen euskarara hurbiltzen dena, erantzun du. Euskaltzaindiak argitaratzekotan liburua, zer nolako idazkera edo grafian plazaratuko diren euskal testuak, jakin nahi izan da. Literatura Klasikoaren azpibatzerdeak erabili ohi duen eran, esan dute batzordekideek. Euskaltzaindia ezin dela bere arauen aurka joan, ihardun du batzarreak. Liburu Santuen ikerketan saiaturako espezialistarik badagoen azpibatzerdean, izan da azken galdera.

Literatura Klasikoa Unibertsitatean emateko gaia dela-eta, azpibatzerde honen helburu, oraiko lan plangintza eta kostuak funtsez moztea, erabaki dute aho batez batzartuek. Zuzendaritzaren eskutan utzi da, elkarriketen ondoren, dagozkion neurriak hartzea.

Jagon Saila

J. L. Lizundiak eman du Jagon sailak eskuartean dituen ekintza nagusien berri. Euskararen Jagote I Jardunaldiak antolatzea da helburu garrantzitsu bat. Irakaskuntzaz, Administrazioez eta komunikabidez Euskal Herria hiru eremu politikotan banaturik dagoenez, bakoitzaren desberdintasunak eta jokabideak aztertu eta neurtzea izango litzateke helburua. Egoera berdintsuan dauden beste herri batzuren lekukotasunaz jabetzea oso ona litzateke, noski, baina lehenik gehien bat barnera begira analisi sakon bat egitea abiapundu balioetsua gerta daiteke, geroago beste herri batzurekin geure esperientzia parekatzeko. Asmoa onartzen da eta data, egitura eta antolakizun lanak zehaztu beharko dira.

Gaur hemen ez dagoen Jagon sailburuak, atzerriko euskalarientzat beka moduko laguntzak sustatzea proposatzen du, Euskal Herrian ikastaroak egin ditzaten. Beste arlo batean, eta gerra aurretik hasitako jokabideari jarraituz, Euskal Herriatik kanpo lanean diharduten ikerleei lan mugatu batzurentzat laguntzak ematea oso mesedegarri gerta daiteke euskararen ezagutza mailan. Simancas, Erroma edo Indietako Artxiboetan nork daki zenbat berri izkuturen altxorra egongo den.

Azkue Biblioteka

J. A. Arana Martija Azkue Bibliotekaren datorren urteko ekintzez mintzatu da. Azken hilabete hauetako itxialdian artxiboko fitxaketa lanekin jarraitzen dute, beste pertsona baten beharra ikusi delarik katalogatze lanetarako. Egoitza berrirako egin diren aurrekontuen arabera, zazpi milioi gostako dira aparailu berriak, aldaketako garraio eta gora-beherak milioi erdi, eta erosketen kopurua betiko hiru miliokoa izango da, asko delarik ordaindu gabe sartzten dena. Ekintza berezien artean, Bonaparteren lanen erakusketa dago. *British Library*n egingo da lehenik, Bilbora ekarriko delarik gero. Liburuaren aldaketa etxe berrian sartzearekin batera egingo dela uste du berak. Dialektologia Jardunaldiez mintzatzean emango da xehetasun gehiago ospakizunaz.

Bonaparteren mendeurrena

Datorren urteko ospakizunen egutegian L. L. Bonaparte printzearen heriotz mendeurrena nabarmentzen da bereziki. Euskaltzale honen lana euskalkien ikerketa izan zenez, Dialektologia Jardunaldi batzu egitea erabaki da. Bilboko egoitza, bestalde, 1991ko udazkenerako amaiturik egongo dela segurtatzen dute eta bertan egin daitezke Jardunaldiok, etxe berriko lehen ekintza garrantzitsua izango delarik. Datorren urtean beteko dira hamar urte Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak Leioan egin zirenetik, eta atzerrian euskararekin arduratzen diren ikerle eta irakasleen bigarren batzarrea izan liteke, hamarkada honetan Euskaltzaindiak egindako lan garrantzitsuaren zabalkunderako baliatuz.

Horretarako *Batzorde Akademikoa* eta *Antolakizun batzordea* berehala izendatu eta lanean hasi behar lukete. Bonaparte printzearen heriotza 1891ko azaroaren 3an gertatu zenez, udazkena izan daiteke ospakizunarentzat denbora egokia.

J. Duvoisin eta J. B. Elissanburu dira datorren urtean mendeurrena beteko duten lehen mailako beste bi personaia, eta bien omenezko jaialdia egun berean Saran egitea proposatu da abenduko batzarraren inguruan. Egutegia finkatzera-koan zehaztu daiteke.

Kanpo izendapenak

Madrilgo Kultura Ministeritzatik literatur-sorketarako dirulaguntzak banatzeko epaimahaian parte hartzeko Jon Kortazar izendatu du Euskaltzaindiak. L. M. Mujika ordezkoa.

Hispano Americano banketxeak eraturako sariketen banaketako epaimahai berezian J. Haritschelhar euskaltzainburua egongo da Bilbon.

Arrasateko Udalak bertako toponimia jaso nahian azterketarako beka bat ezarri du. Hautagaien epaimahairako E. Knörr izendatu da, P. Salaburu izango delarik ordezkoa.

Galdakaoko Udalak Euskararen arloko teknikari baten lanpostua iragarri du. Azterketak epaitzeko ordezkari baten eskaria luzatu zaio Euskaltzaindiari, eta R. Badiola izendatua izan da, P. Uribarren izango delarik ordezkoa.

Eskuartekoak

GESCO enpresak gure ordenagailuen erabilpenerako lau bulegariri eman berri duen ikastaroaren eritzi eta ondorioak kontutan harturik, Zuzendaritzak proposaturako zenbait erabaki onartu ditu Euskaltzaindiak. Euskaltzaindiaren bulego eta ordezkarietzan dagoen tresneriaren balioa gero eta haundiagoa da, eta bertako langileek bakarrik erabiliko dituzte aparailuak, beste inork ezin duelarik eskurik sartu. Beharrezkoa ikusten da neurri hau. Euskaltzaindiaren lanetarako batzordeidazkariaren bidez egingo dira eskariak, lan programaketa bulegoburuak eratu eta txandaturiko duelarik premien arabera.

P. Altunak eskatzen du, euskaraz erabiltzen diren esaera txarren bilketa egiteko batzordeño bat izendatzea. Gramatika batzordeko hiru euskaltzain oso izango dira.

Euskal Filologia espezialitatea duten irakasleek ezin dutela gaztelania irakatsi esaten duen legea euskararentzat diskriminatzailea dela salatzen duen izkribuari buruz, Euskaltzaindiak hitzez-hitz izenpetzen ditu bi eskariak: "Magisteritzako Euskal Filologia ikasketak egin dituztenak eta Euskal Filologian lizentziatuak, Filologia gaztelera emateko gai izan daitezela", alegia. Eta bigarrena: "Besterik gabe, EGA titulua izatea ez dadila kontsidera Euskal Filologian espezializatua izateko nahikoa".

Bizkaiko Posta eta Telekomunikabideen Sindikatotik hartutako gutun batek dioenez, duela hiru urte onartua izan zen lan-ordutan langileek euskara ikasteko eskubidea, ordua edo ordu erdia mailaren arabera, eta orain ukatu egiten zaie lan ordutan euskararen ikerketak egitea. Horrela errusoa eta ingelesa ikasteko errez-tasun gehiago dute geure hizkuntza ikasteko baino. Ministeritzara zuzenean eta arduradunei bereziki gutun bana igortzea erabaki da.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Jean Haritscheihar
Euskaltzainburua

J. M. Satrustegi
Idazkaria

BERRIAK

AITONA ZAHARRA (*)

Donostia, 1990-I-26

Jose Antonio Gesalaga "Zaldubi"

AITONA ZAHARRA

Doina: Hamalau heriotzearena.

1

Larogei urterekin
bizi naiz nekean,
nahiz eta orain arte
jardun jo-ta-kean,
bizitzak azkenean
jarri nau jakean,
baina azken hobe
izan zitekean,
hil arte bizi nahi dut
Jaunaren pakean.

2

Orain artean ez dut
izan pobrezarik,
inoiz pasatu arren
goibel bajezarik,
sekula ez dut eman
ezeren kexarik,
bizitzak neretzako
ez du sorpresarik,
ordu en joanarak
ez bait du presarik.

3

Esnatzean oraindik
daukagu iluna,
ta nekez argitzen da
hurrengo eguna,
leihotik artizarra
beti dut laguna,
isiltasuna bait da
maite ezaguna,
izarrak daki elkar
maitatzen duguna.

4

Seme eta alabak
hazi eta hezi,
baina ezkondu ahala
guztiak berezi,
orain gure artean
bada hainbat hesi,
zahartu naizelako
dabiltza ihesi,
horrela bazterterik
ez nuen merezi.

(*) *Xenpelar* bertso paperen saria. Lehen saria.

5

Nere telefonoa
hor dago isila,
nahiz ustezko lagunak
nik eduki pila,
erlojuak darama
pausaje trunkila,
eta ez naiz joango
heriotzan bila,
Jaunak nahi duenean
itzali nadila.

6

Sarritan egoten naiz
suari begira,
edo balkoi ertzetik
aurreko mendira,
edo bastoiarekin
jira eta bira,
baina inor ez dator
nagoen tokira,
ni hiltzen naizenean
etorriko dira.

7

Inor ez zait hurbiltzen
goxoki ondora,
eta ahaideak dabiltz
gerotik gerora,
nahiz eta nitaz jardun
ahotik ahora,
bakardadea sartu
zait gorputz osora,
inoiz irrifarrerik
ezin zait birlora.

8

Denak aspertzen ditut
nere oroimenez,
nahiz-ta esanak esan
asmorik onenez,
bakardadean nago
negar itomenez;
guztiak nere aurka
aurkitzen direnez,
arren pakean utzi
hiltzen gutxienez.

9

Edonon begiradak
dakuskit zorrotzak,
non-nahi entzuten ditut
zurrumurru hotsak,
bakarrik pasa behar
momentu mingotsak,
abegi hobea du
sarritan arrotzak,
neure etxean eta
jan behar nau lotsak.

10

Zahartzaroak egin nau
tristuraren jabe,
eta nere pausoak
mantsoturik daude,
oraintxe aurkitzen naiz
bizi pozik gabe,
non-nahira joan eta
guztietan sobre...
bizirik irautea
bainohiltzea hobel!

Aitona

GOGOETAK (*)

Donostia, 1990-I-26

Xanti Zabala "Lezo"

GOGOETAK

Doinua: Amurizaren, "Gizona ez da bakarrez bizi...".

1

Barrutik eske ari zait,
sentipenen ahotsa.
Zerbait esan nahirik daukat,
kantu bidez bihotza.
Zer da udako beroa,
edo neguko hotza?
Zer da pozen sustraia zer,
penen arantz zorrotza?
Bizi pozen iturria,
baldin bada jaiotza.
Nekatuen ohe goxo,
ez ote heriotza? (Errepika).

2

Hautzaroa dugu noski,
aro guztiz alaia.
Hortik aurrera hasten da,
bizitzako bidaia.
Umean ametsarekin,
haundi izate nahaia.
Ez egi ta ez gezurra,
izaten den garaia.
Oraindik udaberriak,
dauka lora usaia.
Jolas ta ilusioak,
zabal dute zelaia.

3

Ilusioa nahiz dugun,
zoriontasun dama.
Bizi moduak berekin,
du beste hainbat zama.
Nahi dena zail da lortzea,
Iortzea nola asma?
Ez da gutxi irrikatzen,
dirua eta fama.
Horren truke zenbaitek sal,
dezake bere ama.
Kapritxoan morroi denak,
inguruan du drama.

4

Alaitsu eta umorez,
egoten ez da errez.
Mundu honek nahiko penak,
ekartzen ditu berez.
Batzuek Naturarenak,
besteak giza legez.
Gizartea hor dijoa,
aurrera mila nekez.
Ahoa betetzen zaigu,
sarriegi hitz merkez.
— Hura da pekataria,
ai pekatuрик nik ez—!!!

(*) *Xenpelar* bertso paperen saria. Bigarren saria.

5

Errudun inor jotzea,
geure gaitzen botika.
Hori da gaur egunean,
nagusi den lojika.
Geure burua engaina,
dadin gabiltz apika.
Edo teoria hortan,
datza gure praktika?
Ahal bada besteren bizkar,
gizenduaz patrika.
Horrela balitz inbento,
polita da etika...

6

Batzuek beti dabilta,
irrifarra dutela.
Barruan daramatela,
arima txit ustela.
Sinetsi deskuidaturik,
egon nahiko nukela.
Oker horretan jauzirik,
uste bai dut gaudela.
Geuk hil dugun lagunari,
geuk eginaz gau-bela.
Hori da krudelkeria,
ezer bada krudela.

7

Baina zer motatakoa,
dugu giza-piztia,
Batzuetan hain krudela,
bestetan hain eztia.
Ordaindutzen dugun zerga,
ez al da garestia?
Anaiari ukatuaz,
egun senti izpia.
Ordu da ikus dezagun,
ongia ta gaizkia.
Betiko ez dadin gugan,
galdu ondra guztia.

8

Arrazoizko aberea,
omen dugu gizona.
Askotan iruditzen zait,
gusto txarreko broma.
Bera dugu jakin arren,
txarra ez dela ona.
Kalte egite hutsean,
aurkituz zoriona.
Lagun hurkearen aurka,
erabiliz azkona.
Besteren gaitzez pozezko,
lerdea dariona.

9

Pozoinezko landarea,
bihotzean aldatu.
Amodiotik gorroto,
izatera aldatu.
Arbol haundi egiteko,
berriz lurra goldatu.
Kontzientziaren kontra,
ere guztiz koldartu.
Barneko itxas barea,
bilakatuz olatu.
Besteek suntsitu hala,
erabat geu ondatu.

10

Ustelduz goxatutzen den,
fruitua da mizpira.
Gainerako denak doaz,
zabortegi saskira.
Geure burua ta bestez,
nahi badugu aixkira.
Behar duenari eman,
laguntza, ez azpira.
Bide horrek garamatza,
zeruko mahastira.
Eta zerurik ez balitz,
on egina aski da.

"Txorimaloa"

ESNATZERAKOAN (*)

Donostia, 1990-I-26

Antton Kazabon

ESNATZERAKOAN

Doinua: Betroiarena.

1

Zintzarri hotsarekin
berriro mundura,
jaikitzeke ordua
azkar heldu da,
bukatu da gaueko
ametsen lilura,
ezin esnaturikan
betiko modura,
hainbat duda-muda
eta arrenkura,
ideiak burura:
Hau, hori ta hura.
Komunera nihoak
hau pixagura!

2

Gaua gertatutzen zait
benetan murrizta
eta jaiki beharra
hau duk langintza!
Ireki eta itsi
begiak dabiltza,
behin eta berriz tinko
barrua zait mintza:
—Hola al zabiltza?
Entzun nire hitza
nahi baduzu ditxa
hona hemen giltza:
Estima eta goza
zazu bizitza—

3

Zakur zaunkak aurrena
datoz belarrira
eta begietara
argi dizdira,
dagoeneko norbait
lanean ari da
tirriki-tarra hotsak
entzuten bait dira;
ordua begira
nahi nuke sikira
hirurak balira!
Ta berriz naiz jira
tapakipean sartuz
ohe erdira.

4

Burukia hartuta
masailaren kontra
postura egokian
berriz naiz koka,
jaiki-ez jaiki honek
utzitzen nau jota
ta gelditzea ez zait
batere inporta,
gustora nago-ta
niretzat bikoka
hau duk hau konforta!
Mantarik ez bota,
lantegian gaur ere
a zer porrota!

(*) *Xenpelar* bertso paperen saria. Hirugarren saria.

5

Gauari hartu diot
 ustetan topea
 halere jaikitzeo
 nabil torpea,
 falta zait animoa
 ta borondatea,
 bertan gelditzen banaiz
 niretzat kaltea,
 amaituz epea
 hobe irtetea,
 altxa ta pakea,
 baina hau nekea!
 Zenbat maite zaitudan
 ohe maitea!

6

Maindirezko kate hau
 lotura epela
 baina jartzen nau triste
 eta goibela,
 zergatikan ote naiz
 hain kristau motela
 eta gizatasunez
 eskas ta ustela?
 Entzun hau bestela:
 Maite dut sabela
 betetzen sakela
 hornituz pardela,
 jakinik lur hezeak
 jango nauela.

7

Burua ilun eta
 odolak irakin
 kanpoan argi eta
 ni esna ezin,
 zertan egiten diot
 egunari muzin?
 Baikor izan nahi nuke
 ta nola ez jakin,
 behar diot ekin
 eta jokatu fin,
 dezadan ahalegin!
 helburu batekin:
 argitu nadin egun
 sentiarekin.

8

Oierren esku-oinak
 ta masail guriak,
 Ekainen irrintzi ta
 dantza-aldiak,
 Morroskaren irudi
 ta begi handiak
 nirekin dauzkat beti
 hiru aurpegiak;
 nahiz eta erdiak
 hor nire egiak
 poz eta zoriak
 gaueko argiak,
 sendatzen dizkidate
 nire zauriak.

9

Orain beste erdiak
 daitezen guziak,
 hautsiz gauaren muga
 eta hasiak:
 Ez al nau behar Euskal
 Herri nahasiak
 zelai ta sorotzeko
 malkar ta sasiak?
 Ahantz ahuleziak
 ta nagi-auziak
 bazter maleziak
 Jaunari graziak;
 jaiki nadin merezi
 du ta biziak!

10

Gaur ere jaikitzeo
 zenbat gogoeta!
 horretarako erre
 behar dut beta,
 nahikoa egondu naiz
 ohean gordeta
 beraz buka dezadan
 gaurko berriketa,
 gaintituaz seta
 jaiki naiz eseka
 lo gozoz aseta,
 non neukan arreeta?:
 Berriz ohera noa
 jaia da eta.

**JOANNES LEIZARRAGA: *TESTAMENTU BERRIA,*
KALENDRERA, ABC LIBURUKIEN FAKSIMILEZKO
BERRARGITARAPENAREN AURKEZPENA**

Bilbo, 1990-VI-15

Jose Antonio Arana Martija

AURKEZPENA

Denok dakigunez, Elsoren *Doctrina Christiana* (1561) delakoaren ale bat agertzen ez den bitartean, inprimaturik ezagutzen dugun bigarren euskal idazle baten lana Joannes Leizarragarena da, hiru liburu eman bait zituen argitara 1571ean: *Testamentu berriaren* itzulpena, eliz liburua eta katekima bat erantsi zizkiolarik, *Egutegi* bat eta *ABC* edo kristauaren jakintzarako ikasbide antzekoa.

Bernard Etxepare izan zen izatez lehen euskal idazle inprimatua, 1545ean ikusi bait zuen *Linguae Vasconum Primitiae* kaleratua. Liburu honen lehen argitarapenaren faksimila Julio de Urquijok eman zigun RIEV aldizkarian (1933) eta, beste argitarapen batzuren artean, Euskaltzaindiak ere ezagutzera eman zigun 1980an, edizio kritiko batetan, Euskararen Lekukoen bildumaren bigarren liburukian. Bere funtsezko helburuetariko bat bete nahian, beharrezkoa iruditu zaio Erakunde honi euskal literaturaren bigarren autorea ezaguteraztea.

Leizarragaren lana faksimilez inprimatzerakoan, ale eredugarri osoa eta bikaina aurkitzeko zailtasunaren aholkuz, beste bide bat hartzea egoki ikusi zen, hots, Hugo Schuchardt-ek, Theodor Linschmann-en laguntzarekin 1900ean prestatutako argitarapen ia faksimila eredutzat hartzea. Ordurako, 1828an argitaratua zen Leizarragaren *Testamentu berria* lapurteraz. Vinson (1874), Van Eys (1877) eta Dodgson-ek (1891-1896) ere San Marko, San Mateo eta San Juan-en Ebangelioak argitaratu zituzten. Baina idazlan osoak argitaratzea premiatsu ikusten zen, lehen edizioa lortezina zelako eta 1900ean aipatu alemanek egindakoa ere bakana izatera iritsi delako eta toki gutxitan oso osoan irakurgarria, hau da, Schuchardt-en hitzaurre baliotsuarekin. Hordagok 1979an egin zuen argitarapena ez da 1571.eko lehen edizioaren faksimila, 1900.ekoarena baizik, apurren bat neurritz handitua, baina filologo alemaniarren hitzaurre bakoa.

Duela laurogeita hamar urte Strasburg Europako hiriburuan egindako argitarapenaren faksimila da oraingoan aurkezten dena, eta honekin Europari eskaintzen diogu euskaldunok beraren hizkuntza zaharrenaren erakuspena, oraindik bizirik jarraitzen duena, XVI. mendeko erabilera landuan. Bertan faksimilaturik azaltzen diren euskal testuek zehazki jarraitzen dituzte lehen edizioak, Schuchardt-

-ek hasierako estudioan egiten dituen oharrak kontutan izan behar direlarik. Honen emaitza Iñigo Ruiz Arzallus eta José Manuel Vélez Latorre jaunek gaztelaniara itzuli dute, izenen aurkibidea eta aipatu estudioan agertzen diren euskal hitzena ere itzulpenari erantsi diotelarik. Leizarragaren lana hobeto erabiltzeko gaien aurkibide bat erantsi diogu azken orrialdeetan liburu mardul honi, beheko aldean jarri dugun orrialdeztapen orokor berriari dagozkiolarik aurkibide horren zenbakiak.

Liburu honen berregintza Euskaltzaindiak Altube euskaltzain jaunaren liburutegitik lortu zuen aletik egina da. Leizarragaren idazlanen edizio osoaren mila ale zenbatuak kaleratzen dira, aurrekontuaren zati bat ordaintzeko Kultur Ministeritzak diru laguntza eman duelarik.

I. LEICARRAGA^S

Baskische Bücher von 1571

(Neues Testament, Kalender und Abo)

im genauen Abdruck

herausgegeben

von

TH. LINSCHMANN und **H. SCHUCHARDT**

Mit Unterstützung

der Kais. Akademie der Wissenschaften

zu Wien

Strassburg

Verlag von K. J. Trübner

1900

PRESENTACION

Es de todos sabido que, mientras no aparezca algún ejemplar de la *Doctrina Christiana* de Elso (1561), el segundo autor vasco cuya obra impresa se conoce es Joannes Leizarraga, quien en 1571 dio a la luz tres libros: la traducción del *Nuevo Testamento*, con un devocionario y un catecismo, un *Calendario* y el *ABC*, o especie de método para la instrucción del cristiano.

El primer escritor vasco impreso, Bernard Etxepare, vio publicada su obra *Linguae Vasconum Primitiae* en 1545. Julio de Urquijo hizo una edición facsímil de esta obra en RIEV (1933) y, entre otras ediciones, esta Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia la dio a conocer con el número dos de su colección de clásicos del vascuence, en edición crítica, en 1980. En cumplimiento de uno de sus objetivos fundamentales se hacía preciso dar a conocer al segundo autor de la historia de la literatura vasca.

La dificultad en encontrar un ejemplar completo y correcto de la obra de Leizarraga para su edición facsímil ha aconsejado recurrir a la edición, casi facsímil, preparada por Hugo Schuchardt, en colaboración con Theodor Linschmann, en 1900. Ya antes, en 1828, se había publicado el *Nuevo Testamento* de Leizarraga en versión labortana. También Vinson (1874), Van Eys (1877) y Dodgson (1891-1896) habían publicado los Evangelios de San Marcos, San Mateo y San Juan. Pero se hacía necesaria la publicación de la obra completa, porque si la primera edición era prácticamente inasequible, la alemana de 1900 ha llegado a ser también rara y en pocos sitios consultable en su totalidad, es decir, con la valiosa introducción de Schuchardt. Ha de advertirse aquí que la edición que hizo Hordago en 1979 no es facsímil de la primera de 1571 sino de la de 1900, algo ampliada, pero sin el estudio preliminar del filólogo alemán.

Esta edición que ahora se presenta es facsímil de la que hace noventa años se hizo en la capital europea de Estrasburgo y con ella ofrecemos los vascos a Europa una muestra de su idioma más antiguo, todavía vivo, en versión culta del siglo XVI. Los textos vascos facsimilados en ella respetan escrupulosamente los de la primera edición, con las advertencias que hace Schuchardt en su largo estudio preliminar. Las aportaciones de éste han sido traducidas al castellano por Iñigo Ruiz Arzallus y José Manuel Vélez Latorre, quienes han añadido un índice de nombres propios y otro de términos vascos que aparecen en el citado estudio. Hemos añadido también al final del voluminoso libro un índice de materias que facilita el manejo de la obra de Leizarraga, índice que remite a la nueva paginación general situada al pie de las hojas.

La reproducción se ha hecho del ejemplar que posee la Academia, procedente de la biblioteca del académico Sr. Altube. Una subvención del Ministerio de Cultura ha hecho posible, en parte, la edición de mil ejemplares numerados de la obra integral de Leizarraga.

HILBERRIAK

AITA PATXI ETXEBERRIA S.J. (1900-1989)

Ia hirurogei urtez erbestean bizi ondoren, Loiolako txoko ezti eta baketsuan hil da ustekabean Aita Patxi Etxeberria. Andoainen jaio zen 1900 garren urteko Apirilaren 23an Merdilegi zeritzan etxean eta hamaika senidetarik zaharrena zen. Sorabilan eta Azalainen egin zituen haurtzaroko lehen ikasketak. Mutiko zelarik gaitz anker batek hartu zuen eta haren ondorioz oinez ibiltzen ahaztu zitzaion. Amona Mikela Antoniren eskutik ibiltzen omen zen, berriz oinez ikasi arte. Latineko lehenbiziko urteak etxetik egin zituen eta hamasei urte zituela Andoain bereko seminarioan sartu, non Ustoa jauna baitzen zuzendari. Latineko lau urteak han bururatu zituenean, Gasteizkora aldatu zen. Han izan zituen irakasle, gehiagoren artean, Pildain, Sagarminaga, Yurramendi gero apezpiku izana eta Joxe Migel Barandiaran. Honek matematika irakatsi zion. On Manuel Lekuona ere han ezagutu zuen, irakasle ez baina mutikoen begirale zelarik. Lehen Meza 1925eko Abenduaren 19an eman zuen eta gero La Lastran, Itsason eta Ezkiogan apaiz lanetan aritu ondoren, *Argia* astekariaren zuzendari izendatu zuten. Orduko aski ezaguna zen, izan ere, euskal letretan. *Euskal-Esnalean* idatziak zituen zenbait puxka, batetik; Donostian San Tomasetan izan ohi zen ipuin lehiaketan, bestetik, berak irabazi zuen saria 1920an, On Manuel Lekuonak zertxobait zuzendu omen zion ipuin batekin, “eta saritxo bat eman zidaten, 25 pezeta. Orduan asko zen (25.000 pezetekin etxea egin zuen Barandiaranek, atzo esan zigun bezala)”, dio berak, Ataunen Joxe Migeli bixita egin eta biharamonean, Loiolan Aita Intxaurrandietarekin egin zuen elkarrizketa batean. Alzaga jaunak eman omen zion saria eskura.

Argia-n ere agertuak ziren orduko haren beste lan batzu. “Eta batez ere”, dio berak ondoren, “ni *Eneida* euskaraz jartzen hasi nintzen, eta ez nion neure buruari latin gehiegirik ikusten eta orduan, ez dakit bada, Agirre Jorgek esanda edo, «Loiolara joan hadi, han duk Estefania Aita, gizon argia, gai horietan oso trebea», eta horregatik ni hona etorri nintzen. Eta Estefaniak nik *Euskal-Esnalean* argitaratzen nituenak ikusi zituen, eta horrela ibili nintzen *Argia* hartu nuen arte”.

Aita Jorge Agirre hori bera izan zen 1929an Andoainen Larramendiri egin zitzaion omenaldian Aita Patxi Etxeberria topatu eta esan omen ziona: “Adi zak, adi zak, etorri hona... Badakik: *Argia*-n zuzendaririk ez zegok, eta ibili dituk bila eta bila, eta hire izena agertu duk hor tartean, eta hik izan beharko duk”. Denbora gutxi egin zuen han, halere, 1930eko Uztailaren 17an nobizio izatera joan baitzen Loiolara, apaiz izan arren, urte eta erdi geroago handik Belgikako erbestaldira joateko, gainerako jesulagun guziak bezala. Tournai-n egin zituen bi urteren buruan lehen zinitzak eta berehala Txinara destinatu. Honela kontatzen du berak pasadizu hori: “Txinako hori etorri zen goitik behera. Nik, sartu

nintzenez ere, halakoxe zerbait izan nuen eta, «Joan egin behar diat: Txinara ere bai, noranahi». Uste dut sartu nintzenez hori esan nuela, Iberori, Legarragari ez dakit. Gero ordea hasi ziren ni... Ni ez nintzen abertzalea, ni ez nintzen horiek uste zuten eta esaten zuten bezala nazionalista. —Hala uste al zuten, bada? —Bai zera!; uste...? —Zein ziren haiek? Azcona? —Azcona, Legarraga, gehiago ere beharbada izango ziren. Eta azkenean Tournai-n ia amaitu aurretik, hilabete bat edo izango zen, Legarragak hemendik eta handik, eta horrela eta hala; eta behin Belgikako Probintziala gu ikustera joan zen (gogoan al duzu? Uste dut Germain zela), eta orduan ongi etorriak eta egin zitzaizkion, eta azkenean gure Aitaren ereskia abestu, Martxa abestu, baina espaineraz, eta nik ez nuen ahorik zabaldu, ez dakit eta; eta norbaitek Legarragari esan hori, salatu, eta Legarragak neri kontua hartu. Ni isildu egin nintzen. Nik hari esan behar nion: Baina Aita, huseria horiekin al zabiltzate?, baina ez nion esan. Eta gainera berak ni defenditu egin behar ninduen: Utziozue, beharbada ez du jakingo eta. Nik behin baino gehiagotan esan nien: Hemen behar ez banauzue, ni Txinara bidali. Hori dena ni nobizio nintzela gertatu zen. Ni ere ukitu ninduten eta nik horixe esan nion: Hemen nahi ez baldin banauzue, bialdu”.

Txinara baino egun batzu lehenago euskal poetarik handien erroldan sartzea merezi izan zuen eta “erramu boneta” eskuratu, 1933ko Uztailaren 16an Urretxun ospatu zen Eusko Olerri Egunean saria eraman zuelarik “Bost lore” izeneko olerkiaren bidez. Zenbait lagunek egin zituzten ahaleginak Txinara gabe hemen geldu zedin eta nagusiengana jo ere bai, baina alferrik: “Joateko, hik eskatu omen duk eta”. Zortzi lagun joan ziren batera; entzun deiturak eta atera ondorenak: Lopez, Gogorza, Lazpita, Barandiaran, Bolunburu, Eguren, Totoricaguena eta Patxi Etxeberria bera. Txinoa ozta-ozta ikasi omen zuen. Hona bere hitzak: “Amaren hizkuntza ez dela, beste hizkuntzak oso nekez ikasten dira. Behar bezala, eta mami guztia dutela, eta haien izakera eta guztia, oso nekez, eta txinera berriz nekezago. Gu hara joan ginenean, eskolarik ez genuen ikasteko”. Hizkuntza ikasten urtebete aritu eta “gero misiolari izan nintzen eta txineraz ikasi nuen bakar-bakarrik, haiekin batean”.

Spainiaiko politikaren zipriztinak Txinara ere iristen ziren, gezurra badirudi ere. Hona berak kontatzen digun pasadizua: “Vilarñok, hemengo gudua bukatu zenean, Bilbao hartu zutenean, *Mensajero*-n izugarritzakoak idatzi zituen. Hor egongo dira nonbait. Eta ale hori, *Mensajero*-rena, Wuhu-ra iritsi zen; gainera hori nere eskura etorriko zen lehenbizi, baina nik, ikusi banuen ere, askatu, azala kendu eta han jarriko nuen salan; eta lehenbizi ikusi zuena norbait izan zen eta hark ezkutatu; hark eta beste batzuk ikusi zutela uste dut, eta beste horiek, espainolista bildurgarriak, Nagusiarengana: «Hara, hara zer gertatu den; ezkutatu egin digute *Mensajero*» [...] Haiek uste izan zuten ni izan nintzela [...] Hori egin zuena Imaz izan zen. Imazek hori neri geroago esan zidan”. Baina zigorra Patxi Etxeberriari eman zioten nagusiek, hura izan zelakoan.

Txinan hogeitau urte handi eman zituen hortxe-hortxe, komunistek handik jaurtiki zuten arte: “Komunistekin egon nintzen ni lau urtez etxean”, diosku berak; “etxea kartzela bihurtu zitzaidan, espetxean bezalaxe. Eta bertsoak idatzi nituen egunorokoa eginez, egunero, egunero, egunero; eta idatzi, utzi eta handik zortzi egunetara ikusi berriz eta garbi ipintzen nituen [...] Eta komunistekin lau urte horrelaxe”. Handik ateratzean, Formosara joan zen eta bi urte han egon,

Olabideren Bibliari azken ukitua ematera eta inprimategirako prestatzera etor zedin agindu zioten arte. Lana amaitu, Formosara berriro itzuli eta han 1967garren urte arte egon ondoren, Filipinetara igorri zuten. Hemen beste hogeitau urte igaro zituen Ilo-Ilo deritzan herrixkan eta laurogeitazazpi urte zituelarik, ongi merezia zuen erretiroa bere gogoz kontra harturik, Loiolara bildu zen duela bi urte, eta Xabierko Frantzisko deunaren egunean hil iaz.

Hitz gutxitan esango dut nolako gizona zen Aita Patxi Etxeberrria: gozoa, apala, haserregabea, langilea, euskaldun kartsua. Milaka bertso jalki zen haren eskutik eta zuzen onez esan dezakegu haren etorriaz Homerok Nestorrenaz esaten duena: "ahotik hari ezitia baino gozoago zerion mintzoa". Hori bai, gaztetan ikasi zuen hizkera idatzi motari —Olabidek eta, Orixek eta, erabiltzen ohi zutenari, adizkiaren elisioz eta hitzen forma hanka-motzez eta laburtuz beteari, eta are grafian ere gaineko kakoz jantziriko *r* eta *l-z* zirtatuari— irmo itsatsirik iraun zuen azken arte, honako bertso hauetan ageri denez. Bertso hauek hil bezperan eginak eta, goizeko seietan haren gelan Aita Migel Etxeberrria sartu zenean, idaz-makinatik oraindik atera gabe zegoen paper mutur zartzar batean idatziak dira, zeinetan deitoratzen baitu Garbizu musikariaren heriotzea gerta-berria. Hona bertsoak:

Garbizu lezotaña,
Ereslari argi:
Euskalgintzan etzera
Ibilia nagi.
Zure anaia ere
Olerkitan garbi...
Zure begi biak gaur
Betirako itzali.

Urteak zuk oraintxe
Larogei ta zortzi:
Lufa agurtu beaña
Mugonez etofi.
Abestiz zuk bizitza
Alaitu askori...
Zure izenak iraungo
Euzkadi'n engoiti.

Ziñan lagun arteko
Ta efi maitale:
Zure alde dituzu
Zaafak eta gazte.
Albokoak negafez
Senaf ta emazte...
Guztiek diotela
Agur, ufena arte.

Eguna bezain laister
Urteak amaitu:
Zabalik ataria
Andik nai det sartu.
Goibelaldi txatxuak
Betiko baztaftu...
Biotz bařengo labe
Ez det nai banatu.

* * *

“Zabalik ataria - Andik nai det sartu”: horra haren hil bezperako hatsbehera-pena. Sartua bego Larramendiren jaioterriko eta ezpaleko apaiz zintzo eta euskaldun kartsua hain irrika zuen atarian barrena!



Hilberri honetan aipatzen diren zenbait jesulagunen argibideak:

- Inchaurrendieta, Gabriel:* apaiza, Lezon sortua 1910ean; Belgikako erbestaldian Euskal Akademiaren zuzendari izan zen Marneffe-n; aurtan hil da Loiolan, Martxoaren 8an.
- Aguirre, Jorge:* Zegaman jaioa; apaiztu ondoan sartu zen Lagundian; gerrate aurreko urteetan Gipuzkoako gazteriaren elkarte eta mugimenduen buru txit ezaguna izan zen; Ameriketara hil zen.
- Ibero, Ignacio M.:* Azpeitian jaioa; bost anaia ziren jesulagun eta hiru ahizpa monja; XVIIIgarren mendeko Ibero arkitektoaren leinua orduantxe agortu zen. Probintziburu izatera iritsi zen.
- Legarraga, Aniceto:* Nafarroako Iruritan sortua; Belgikako erbestaldian Tournai-ko etxean Nobizioen “maisu” izan zen.
- Azcona, Severiano:* Nafarroako Eultz-en jaioa; urte askotan izan zen agintari (nobizioen “maisu”, hiruzpalau etxetako erretore, Probintziburu ere bai); gerrate garaiko jesulagun euskaldunen barreiatzen eta geroagoko *Castilla* zeritzon probintziaren erdibitzean zer ikusi handia izan omen zuen.
- Lopez, ?:* hiruzpalau anaia ziren jesulagun, Burgosko Villaves-en sortuak; haietatik bi Txinara joan ziren misiolari.
